


# Bilboko Urtekari Sozioekonomikoa

2011

**B**ilbaoObservatorio



1 BIZTANLERIA

2 EKONOMIA ETA ENPRESA

3 LAN-MERKATUA

4 MERKATARITZA

5 TURISMOA

6 BERRIKUNTZA

7 KULTURA ETA KIROLA

8 HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

9 GARRAIOA, MUGIKORTASUNA ETA INGURUMENA

AURKIBIDEA

ESTATISTIKA ERANSKINA

## 1 BIZTANLERIA

Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura  
Atzeritik etorritako biztanleak  
Biztanleria: Errenta, gizarte-babesa eta eskolatzeko-maila

## 2 EKONOMIA ETA ENPRESA

Testuinguru ekonomikoa  
Ekonomia- eta enpresa-jarduerak  
Soldatapeko langileak dituzten enpresak  
Autonomoen araubidearen afiliazioa  
Merkataritza-sozietate berriak

## 3 LAN-MERKATUA

Testuingurua  
Biztanleria aktiboa, okupazioa eta langabezia  
Afiliatutako biztanleak  
Erregistratutako kontratuak  
Erregistratutako langabezia

## 4 MERKATARITZA

Merkataritza jarduerak eta enpresak  
Merkataritza jardueraren bilakaera  
Soldatapeko enplegua  
Etxeetan egindako kontsumoa  
Sektorearen salmentak

## 5 TURISMOA

Turismo jarduera  
Biltzar eta bileren turismoa

## 6 BERRIKUNTZA

Bilbo: "Zientziaren eta berrikuntzaren hiria  
Informazioaren gizartea Bilbon  
Ikerketa, garapena eta berrikuntza  
Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen  
eta enpresen jarduerak  
Unibertsitatea, ikerketa iturri

## 7 KULTURA ETA KIROLA

Udal jarduera kulturala  
Antzerki, dantza eta musika jarduerak  
Museoak  
Liburutegiak  
Kirola

## 8 HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

Hirigintza  
Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak  
Higiezinaren eskaintza


## 9 GARRAIOA, MUGIKORTASUNA ETA INGURUMENA

Garraioa eta mugikortasuna  
Ingurumena

## ESTADISTIKA ERANSKINA

Biztanleria	Merkataritza	Kultural eta Kirola
Ekonomia eta enpresa	Turismoa	Hirigintza eta etxebizitza
Lan-Merkatua	Berrikuntza	Garraioa, mugikortasuna eta ingurumena

# 1. Kapituluia Biztanleria



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

Atzerritik etorritako biztanleak

Biztanleria: Errenta, gizarte-babesa eta eskolatzeko-maila



# 1 Biztanleria

kapitulua



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

Atzerritik etorritako biztanleak

Biztanleria: Errenta, gizarte-babesa eta eskolatzeta-maila

Biztanleriaren mugimendu naturala

Biztanleria barruti eta auzoen arabera


1 • 2 • 3

## Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

Azken hamar urteetan, Bilboko udalerriak bilakaera demografiko egonkorra izan du, biztanleen kopuruaren aldetik eta biztanleriaren etengabeko zahartzeari dagokionez. Bilboko joera demografikoa hizpide duen kapitulu honetan jarraian azalduko denez, 2011n ez da aldaketa nabarmenik izan, iazko datuekin alderatuta.

Gainera, adierazle nagusiek eta joera demografikoez erakusten dutenez, Bilboko demografiaren bilakaera Europako herrialdeetarako eta Euskal Autonomia Erkidegorako aurreikusitakoaren parekoa izango omen da.

**Biztanleriaren bilakaera. 1960-2011**



Iturria: Udal errolda.

**2011n, Bilbok 353.256 biztanle izan ditu**

2011ko urtarrilaren 1ean, 353.256 bizilagun zituen Bilbok, aurreko urtean baino 815 gutxiago. 2000. urtetik hona ez da joera aldatu, eta igoera xumeak galera txikiekin tartekatuz joan dira, urtetik urtera. Izan ere, 2000ko datuak erreferentzia hartuta, hiribilduko biztanleria % 0,6 baino ez da murriztu (2.232 pertsona).

Bertan, hiribilduan, Bilboko metropoliko biztanleen % 39 batzen da (35 udalerritan; guztira, 910.000 lagun): Bizkaiko biztanle guztien herena pasatxo (% 35,5).

Zehatzago esanda, saldo horretara 17.981 alta eta 16.430 baja erregistratu ondoren heldu da.

# 1 Biztanleria



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	Biztanleriaren mugimendu naturala
Atzeritik etorritako biztanleak	Biztanleria barruti eta auzoen arabera
Biztanleria: Errenta, gizarte-babesa eta eskolatzeta-maila	

Bilbok 40,6 km<sup>2</sup> -ko azalera du eta biztanle-dentsitate handia, batez beste: 8.690 biztanle km<sup>2</sup> -ko 2011. urtean. Estatuko probintzia hiriburuen artean dentsitate kopuru handienak dituztenetakoa da, izan ere. Bizkaian, kasurako, 519,8 biztanle dago km<sup>2</sup> -ko, eta EAEn, 300,5 biztanle km<sup>2</sup> -ko, batez beste. Bestalde, dentsitate maila handiena duten udalerri dagokienez, Bilbo bigarren tokian dago, Portugalete (14.829,6 bizt./km<sup>2</sup>) eta Sestaoren (8.100,0 bizt./km<sup>2</sup>) artean.

## Biztanleria, sexuaren arabera


	2009	2010	2011	% 2011/10
Biztanleria	355.731	354.071	353.256	-0,2
Emakumezkoak	187.257	186.571	186.080	-0,3
Gizonezkoak	168.474	167.500	167.176	-0,2

Iturria: Udal errolda.

Koadroan ageri denez, emakumezkoak gehiengoa dira: 2011n, biztanle guztien % 52,6; eta gizonezkoak, % 47,4. Horrek esan nahi du bi sexuen arteko ratioa 1,11koa dela; hau da, datuak biltzeko unean, 100 gizonezko 111 emakumezko zegoela Bilbon. Proporzio hori bere horretan mantendu da azken urteetan.

Bilboko biztanleriaren batez besteko adina 45 urtekoa da (43 gizonen kasuan eta 47 emakumeenean). 15 urtetik beherakoak biztanle guztien % 12 pasatxo dira, eta 30 urtetik beherakoak, laurdena (% 26,6). Biztanleriaren piramideak adinaren arabera erakusten duen egiturari jarraiki, adinez zaharragoak direnen tarteetan ikusten da igoera nabarmenena. Jakina, biztanleriaren zahartzearen erakusgarri da hori, azken hamarkadetako aldaketa demografiko garrantzitsuenak Bilboko hiriburuan ere badu eta eraginik.

## Biztanleria, adinaren arabera



Iturria: Udal errolda.



## Biztanleen % 22k 65 urte baino gehiago ditu, eta % 3k, 85 baino gehiago

Biztanleriaren egitura aztertuz gero, argi ikusten da mendekotasun-adierazlea<sup>1</sup> etengabe igo dela azken urteetan: 2011n, 15 eta 64 urte bitartekoak % 52 izan da. Kontuan hartu behar da, gainera, adierazle horrek gora egiten duen hein berean areagotzen dela biztanle aktiboenganako zama (15 eta 64 urte bitartekoengan), ekonomikoki mendeko direnak (umeak eta adinekoak) mantentzeko.

Hori gutxi izango balitz bezala, azken urteetan etengabe jaitsi da biztanle aktiboak zenbateraino berritzen diren neurtzen duen adierazlea<sup>2</sup>: 2011n, % 88,5; edo beste modu batera esanda: lan-merkatua uztear dauden 100 laguneko, 89 dira lan-merkatuan sartzen direnak.

2011. urtean, zahartzearen adierazlea (65 urtetik gorakoak eta biztanle guztien arteko erlazioa neurtzen duena) % 22,2koa da. Horrek esan nahi du Bilboko biztanleen bostena baino gehiago adinekoak direla. Ehuneko horrek gora egin du etengabe azken urteetan, eta horren ondorioz, dagoeneko hasi da indarra hartzen gainzahartzearen kontzeptua: hots, laugarren adinekotzat har daitezkeen adin-tarteari dagokiona. Izan ere, 85 urtetik gora dituztenak biztanle guztien % 3,2 dira dagoeneko (2011n 11.322 lagun ziren; beraz, urtetik urtera % 5,8 hazi da kopuru hori); eta 65 urtetik gorakoak artean, laugarren adinekoak % 14,5 dira jada.

2010eko datuekin alderatuta, 0 eta 14 urte bitartekoak kopurua igo egin da, gutxi izan bada ere (% 0,9). 15 eta 44 urte bitartekoak, berriz, behera egin du (batez beste, -% 2,2; 15 eta 29 urte bitartekoak adin-tartean, -% 3,4). Eta azkenik, 45 urtetik gorakoak adin-tartean ere biztanle gehiago dago orain; batez ere, 85 urtetik gorakoak multzoan.

Piramidean ikusgai geratu den beste datu nabarmengarri bat zera da, gizonak gehiago direla 40 urtetik beherako adin-tarteetan, baina hortik gora, joera alderantzizkoa dela eta gehiengoak emakumeek osatzen dutela; batik bat 70 urtetik gorakoak artean.

### Biztanleria, adinaren arabera

	2009	2010	2011	% 2011/10
<b>Biztanleria</b>	355.731	354.071	353.256	-0,2
0-14 urte bitartekoak	41.824	42.215	42.592	0,9
15-29 urte bitartekoak	55.158	53.087	51.286	-3,4
30-44 urte bitartekoak	85.268	83.497	82.345	-1,4
45-64 urte bitartekoak	96.697	97.812	98.725	0,9
65-84 urte bitartekoak	66.565	66.759	66.986	0,3
≥ 85 urte	10.219	10.701	11.322	5,8
guztirakoaren gaineko 0 eta 14 urte bitartekoak %	11,8	11,9	12,1	0,2pp
guztirakoaren gaineko 85 urte edo gehiagokoak %	2,9	3,0	3,2	0,2pp
Mendekotasun-adierazlea*	50,0	51,1	52,0	0,9pp

\* Mendekotasun-adierazlea: (0-14 urte bitarteko + 65 urteko edo gehiagoko) biztanleen %, 15 eta 64 urte bitartekoak gainean.  
Iturria: Udal errolda.

(1) Mendekotasun-adierazleak lan egiteko adinean dauden (mendeko ez diren) eta 15 urtetik beherako eta 65 urtetik gorakoak (mendekoak) arteko erlazioa neurtzen du.

(2) Biztanle aktiboak berritze adierazleak 20 eta 29 urte bitartekoak eta 55 eta 64 urte bitartekoak erlazioa neurtzen du.



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	Biztanleriaren mugimendu naturala
Atzeritik etorritako biztanleak	Biztanleria barruti eta auzoen arabera
Biztanleria: Errenta, gizarte-babesa eta eskolatzeta-maila	

## Biztanleriaren mugimendu naturala

### Bilboko saldo naturala negatiboa izan da azken urteetan

Bilbon 2.929 jaioberri izan dira 2011. urtean. Beraz, 2010ean bezala, 2011n ere jaitzi egin da jaiotza-tasa (-% 1,7, 2010eko datuarekiko), nahiz eta 2009an, 3.244 jaiotzarekin, jaiotza-tasak goia jo zuen. Heriotza kopuruei begira, datuak ez dira asko aldatu azken urteetan: 2011n 3.599 izan ziren, 2010ean baino 7 gutxiago (-% 0,2) eta 2009an baino 20 gutxiago (-% 0,6).

Ondorioz, jaiotza-tasa gordinak beherantz egin duenez (2011n, 8,3 jaiotza 1.000 biztanleko), eta heriotza-tasa gordina, gutxi gorabehera, bere horretan mantendu denez (10,2 heriotza 1.000 biztanleko), azken urteetako saldo naturala negatiboa izan da; zenbateko garbitan adierazita: 2011n, 670 pertsona gutxiago; 2010ean, 627.

Udal erroldan erregistratutako alta eta baja gorabehera esker, migrazio-fluxuen edo bizileku aldaketan berri dugu. Bilboko migrazio-saldoa positiboa da: urtearen buruan datozenen kopurua (etorkinak) guztira irteten direnena baino handiagoa da. 2011. urtean Bilboko migrazio-saldoa 2.154 lagunekoa izan da; 2010ean, 2.464koa; eta 2009an, 3.182koa. Hortaz, argi dago urteen joanarekin saldoa murriztuz doala.

Mugimendu naturalek zein migrazioei lotutakoek (bizileku aldatzeak), biek ere eragina dute biztanleen bilakaeran. Bilboko datuei dagokienez, biztanleen galera naturala erraz konpentsatzen da biztanleen hazkundearekin—erroldatzeek gora egin ahala—.

Erroldatze horiek hurbiletik aztertzean zera ageri da: 2011n gauzatutako 17.410 alta erregistroen % 60 (guztira, 10.390) udalerriz aldatu izanagatik egin direla. Gainerako alta erregistroak atzeritik etorritakoenak (% 16), jaiotzenak (% 17) eta erroldan agertzen ez zirenenak (% 7) dira.

Erroldan baja hartu dutenak 18.225 izan dira 2011n; gehienak, udalerriz aldatzek (% 61) eragindakoak, eta askoz gutxiago, heriotzen ondoriozkoak (% 20), bidegabe eginiko inskripzioenak (% 16) eta atzerrira joandakoenak (% 3).

### koadroa Biztanleriaren mugimendu naturala

	2009	2010	2011	% 2011/10
<b>Hazkunde begetatiboa</b>	-375	-627	-670	-6,9
Jaiotzak	3.244	2.979	2.929	-1,7
Heriotzak	3.619	3.606	3.599	-0,2
Jaiotza-tasa gordina (bizt. ‰)	9,1	8,4	8,3	-1,3
Heriotza-tasa gordina (bizt. ‰)	10,2	10,2	10,2	0,2

Iturria: Udal errolda.

### Positiboa izaten jarraitzen duen arren, Bilboko migrazio-saldoa behera egiten ari da

### Migrazio mugimenduak

	2009	2010	2011	% 2011/10
<b>Immigrazioa</b>	13.824	13.468	13.295	-1,3
Udalerriz aldatzea	9.932	10.471	10.390	-0,8
Atzeritik itzultzea	3.892	2.997	2.905	-3,1
<b>Emigrazioa</b>	10.642	11.004	11.141	1,2
Udalerriz aldatzea	10.139	10.472	10.643	1,6
Atzerriratzea	503	532	498	-6,4
<b>Migrazio-saldoa</b>	3.182	2.464	2.154	-12,6

Iturria: Udal errolda.



## Biztanleria barruti eta auzoen arabera

### Ia 62.000 biztanle izanik, Ibaiondoko barrutia hiribilduko kopurutsuena da

Bilboko biztanleak zortzi barrutitan eta laurogei auzotan banatzen dira. Ezer baino lehen, banaketa nahiko proportzionala dela nabarmendu behar da, nahiz eta nolabaiteko aldea badagoen: Ibaiondok ditu bizilagun gehien (2011n, 61.950; guztirakoaren % 17,5) eta Otxarkoaga-Txurdinagak gutxien (28.055 lagun; guztirakoaren % 7,9).

2010ean erregistratutako biztanleriaren datuekin alderatuta, pixka bat gora egin du biztanle kopuruak Abandon (% 0,6) eta Ibaiondon (% 0,7); Errekalden ez da aldatu (% 0) eta gainerakoetan behera egin du; batez ere, Zorrotzan (-% 1,3) eta Uribarrin (-% 1,2).

Biztanle-dentsitateari begira, nabarmentzekoak dira Abandoko (24.311 bizt./km<sup>2</sup>) eta Begoñako (23.974 bizt./km<sup>2</sup>) datuak, dagoeneko udalerriaren batez bestekoaren hiru halako baitira. Deustu (10.223 bizt./km<sup>2</sup>) eta Uribarri (9.006 bizt./km<sup>2</sup>) ere batez bestekotik gora daude; gainontzeko guztiak, berriz, hortik behera. Horien artean, Basurtu-Zorrotzak (4.651 bizt./km<sup>2</sup>) du biztanle-dentsitate txikiena.

#### Biztanleria eta biztanle-dentsitatea barrutien arabera

	2009	2010	2011	% 2011/10	Bizt./Km <sup>2</sup>
<i>Biztanle kop.</i>	355.731	354.071	353.256	-0,2	8.690
<i>Abando</i>	51.718	51.687	52.002	0,6	24.311
<i>Basurtu-Zorrotza</i>	33.658	33.403	32.975	-1,3	4.651
<i>Begoña</i>	43.030	42.661	42.450	-0,5	23.974
<i>Deustu</i>	51.656	50.939	50.616	-0,6	10.223
<i>Errekalde</i>	47.787	47.486	47.500	0,0	6.822
<i>Ibaiondo</i>	61.029	61.501	61.950	0,7	6.420
<i>Otxarkoaga-Txurdinaga</i>	28.518	28.240	28.055	-0,7	7.195
<i>Uribarri</i>	38.335	38.154	37.708	-1,2	9.006


Iturria: Udal errolda.

# 1 Biztanleria



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	Biztanleriaren mugimendu naturala
Atzeritik etorritako biztanleak	Biztanleria barruti eta auzoen arabera
Biztanleria: Errenta, gizarte-babesa eta eskolatzeta-maila	

**Bilboko biztanleriaren bilakaera auzoen arabera, 2010-2011**



*Guztirako biztanleen herena Santutxun, Indautxun, Abandon eta Deustuko San Pedron bizi dira*

Hona hemen zenbait datu, barrutiz barruti: Santutxuk (32.968 biztanle), Indautxuk (27.930), Abandok (24.072) eta Deustuko San Pedrok (21.098) biztanle kopuru handiak dituzte; guztira, Bilboko 2011ko biztanle guztien % 30 batzen dituzte. Alderantziz, Elorrietan, Olabeagan, Lorurin eta Erriberan ez dira 1.300 biztanlera heltzen.

Aurreko urteko datuekin konparatuz, 2011n 23 auzotan biztanle gutxiago zenbatu dira. Aipatzekoak dira, kasurako, Zorrotzan, Uribarrin eta Txurdinagan galdu dituzten biztanleen kopuruak (200 baino gehiago). Miribillan eta Abandon, berriz, 342 eta 224 biztanle gehiago izan dituzte urte horretan, hurrenez hurren.

Iturria: Udal errolda.

# 1 Biztanleria

kapitulua



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura  
Atzerritik etorritako biztanleak  
Biztanleria: Errenta, gizarte-babesa eta eskolatzeta-maila


Nazionalitatearen arabera  
Barrutien arabera

## Atzerritik etorritako biztanleak

*Atzerritarrek biztanle guztien % 8,5 dira. 2011n ere inoizko kopuru handiena erregistratu da: 29.863 lagun, guztira*

2011n, Bilbon bizi izan diren atzerritarren kopurua inoizko handiena izan da: 29.863 pertsona, guztirako biztanleen % 8,5. Kanpotik etorritakoak, beraz, aurreko urtean baino 998 gehiago izan dira (% 3,5 hazi dira), eta 2009an baino 1.491 gehiago. Atzerritarren kopuruak gorantz jarraitzen duen arren, gorakada hori motelduz joan da azken urteetan.

*Biztanle atzerritarrek*



Iturria: Udal errolda.

Gure artean bizi diren atzerritarrek gazteak dira, oro har, gehienak erdiko adin-tarteetan sartzen dira-eta. 2011ko datuei begira, biztanle atzerritar guztien % 57,25 eta 44 urte bitartekoa da; % 13,16 urtetik beherakoa, eta 65 urtetik gorakoak % 2 besterik ez dira. Sexuari dagokionez, ia ez dago alderik udalerrian erroldatutako gizonen (15.054) eta emakumeen (14.809) artean.



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

Nazionalitatearen arabera

Atzerritik etorritako biztanleak

Barrutien arabera

Biztanleria: Errenta, gizarte-babesa eta eskolatzeko-maila

## Nazionalitatearen arabera

### Hiribilduan bizi diren atzerritar gehienak Boliviatik etorritakoak dira

Bilbon bizi diren atzerritarrek jatorri askotarikoak diren arren, 2011ko datuen arabera gehien nabarmendu direnak Ameriketatik etorritakoak izan dira. Erdia baino gehiago bertakoak dira (% 52,4). Eta horien atzetik, kopuru handienetatik txikienetara, afrikarrak (% 22,5), europarrak (% 17) eta asiarrak (% 8,0) datoz, hurrenkera horretan.

Azterketa herrialdez herrialde eginez gero, gehienak Boliviatik etorri direla ageri da (2011n, 4.654). Gutxiago izan badira ere, kolonbiarren (3.333), marokoarren (2.125) eta errumaniarren (1.871) kopuruak aipatzeko modukoak izan dira. Denak batuz gero, lau herrialde horietako atzerritarrek kanpotik etorritako guztien % 40 osatzen zuten 2011n (hiru urte lehenago, % 47).

#### Biztanle atzerritarrek

	2009	2010	2011	% 2011/10
<i>Biztanle atzerritarrek</i>	28.372	28.865	29.863	3,5
<i>Emakumezkoak</i>	14.037	14.383	14.809	3,0
<i>Gizonezkoak</i>	14.335	14.482	15.054	3,9
<i>0-15 urte bitartekoak</i>	3.844	3.888	3.994	2,7
<i>16-24 urte bitartekoak</i>	4.563	4.425	4.380	-1,0
<i>25-44 urte bitartekoak</i>	15.881	16.305	16.878	3,5
<i>45-64 urte bitartekoak</i>	3.658	3.815	4.138	8,5
<i>≥ 65 urte</i>	431	432	473	9,5
<i>Europa</i>	4.943	4.910	5.090	3,7
<i>Afrika</i>	5.702	6.215	6.715	8,0
<i>Amerika</i>	15.958	15.734	15.663	-0,5
<i>Asia</i>	1.756	1.991	2.376	19,3
<i>Ozeania</i>	11	13	16	23,1
<i>Herrigabeak</i>	2	2	3	50,0
<i>Bolivia</i>	4.879	4.727	4.654	-1,5
<i>Kolonia</i>	3.730	3.546	3.333	-6,0
<i>Maroko</i>	2.058	2.177	2.399	10,2
<i>Errumania</i>	2.248	2.280	2.358	3,4
<i>Gainerako herrialdeak</i>	15.457	16.135	17.119	6,1
<i>atzerritarren %, biztanle guztiekiko</i>	8,0	8,2	8,5	0,3 pp

Iturria: Udal errolda.

# 1 Biztanleria

kapitulua



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura

Nazionalitatearen arabera

Atzerritik etorritako biztanleak


Barrutien arabera

Biztanleria: Errenta, gizarte-babesa eta eskolatzeko-maila

## Barrutien arabera

Bilbon erroldatutako atzerritarrek zortzi barrutietan bizi dira; horietan guztietan ez dira berdin banatzen, ordea. Hamar atzerritarretik zazpi lau barruti hauetan bizi dira: Ibaiondo (% 28), Errekalde (% 16), Deustu (% 13) eta Abando (% 12). 2010eko datuekin alderatuta, barruti guztietan igo da atzerritarren kopurua (batez ere, Otxarkoaga-Txurdinaga eta Begoñan), Basurtu-Zorrotzan izan ezik, bertan ez baita gorabehera handirik egon (-% 0,8).

2011. urteko Bilboko guztirako biztanleriaren eta atzerritarren banaketa barrutien arabera (%)



Iturria: Udal errolda.

1

BIZTANLERIA

2

EKONOMIA ETA ENPRESA

3

LAN-MERKATUA

4

MERKATARITZA

5

TURISMOA

6

BERRIKUNTZA

7

CULTURA Y DEPORTE

8

HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

9

GARRAIOA, MUGIKORTASUNA ETA INGURUMENA

10

AURKIBIDEA

11

ESTADISTIKA ERANSKINA



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	Errenta pertsonala eta familiakoa
Atzerritik etorritako biztanleak	Gizarte-babesa
<b>Biztanleria: Errenta, gizarte-babesa eta eskolatzeko-maila</b>	Eskolatzeko-maila

## Biztanleria: Errenta, gizarte-babesa eta eskolatzeko-maila

Biztanleriaren egoera sozioekonomikoa aztertzeko orduan askotariko irizpideak kontuan hartzen ditugu, baina badira derrigor aintzat hartu beharreko batzuk. Horrexegatik, atal honetan hauei erreparatu diegu: Bilboko biztanleek hautemandako errenta pertsonala eta familiakoa, egoera ekonomiko ezegonkorra bizi duten pertsona eta/edo familientzako gizarteratze-laguntzak, eta, azkenik, biztanleen eskolatzeko-maila, hiribilduko biztanleen heziketa mailaren adierazle gisa.

### Errenta pertsonala eta familiakoa

## Hiribilduko biztanleen batez besteko errenta pertsonalak Bizkaikoen datua eta EAEkoena ere gainditzen ditu

Eustatek biztanleen Errenta pertsonalaren eta familiakoaren datuak hartuta osatzen duen estatistikaren arabera, Bilbon bizi diren 18 urte edo gehiagokoen batez besteko errenta pertsonala 20.081 eurokoa zen 2009an (azken datuak urte horretan zabaldukoak dira). Balio hori % 10,4 hazi zen, 2006tik 2009ra. Bizkaian, bestalde, batez besteko errenta pertsonala 19.241 eurokoa izan zen 2009an, eta EAEan, 19.631 eurokoa (hurrenez hurren, % 11 eta % 13 igo zen hirurteko horretan).

Hiribilduko emakumeen batez besteko errenta pertsonala 15.060 eurokoa izan zen 2009an, gizonena baino askoz txikiagoa (25.828 euro). Bi zenbatekoen arteko aldea nabarmena da oso, baina murrizten ari da, gizonen errenta (% 7,9, 2006ko datuarekiko) baino gehiago hazten ari baita emakumezkoena (% 14,1).

### Errenta pertsonala eta familiakoa (€) esparruaren arabera, 2006-2009

ESPARRUA	2006		2009		% 2006-2009	
	Errenta pertsonala	Familiako errenta	Errenta pertsonala	Familiako errenta	Errenta pertsonala	Familiako errenta
CAPV	17.362	38.853	19.631	42.729	13,07%	9,98%
Araba	17.190	38.610	19.657	42.001	14,35%	8,78%
Gipuzkoa	17.488	38.704	20.270	43.950	15,91%	13,55%
Bizkaia	17.332	39.008	19.241	42.191	11,01%	8,16%
Bilbo Hanadia	17.519	39.181	19.317	42.179	10,26%	7,65%
<b>Bilbo</b>	<b>18.196</b>	<b>39.679</b>	<b>20.081</b>	<b>43.119</b>	<b>10,36%</b>	<b>8,67%</b>
Donostia-San Sebastián	20.056	43.893	23.054	49.539	14,95%	12,86%
Vitoria- Gasteiz	17.597	39.506	19.980	42.554	13,54%	7,72%

Iturria: Errenta pertsonalaren eta familia-errentaren estatistika, Eustat.



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	Errenta pertsonala eta familiakoa
Atzeritik etorritako biztanleak	Gizarte-babesa
<b>Biztanleria: Errenta, gizarte-babesa eta eskolatzeko-maila</b>	Eskolatzeko-maila

## Sexuen arteko aldea handia da oraindik, nahiz eta azken urteetan txikitu egin den

Laneko errenta pertsonala 12.285 eurokoa da, batez beste. Ohiko legez, horixe da biztanleen diru-sarrera nagusia. 2006ko datuekiko, % 14,3 hazi dira laneko errentak. Errenta pertsonalen ildo beretik, lanekoen kasuan ere emakumezkoen datuak (8.860 euro) gizonezkoenak (16.205 euro) baino askoz atzerago daude. Halere, esan beharra dago 2006tik 2009ra bilakaera hobeia izan dutela emakumeen datuek (% 21,4 hazi dira, gizonen % 10,2ko hazkundearen aurrean).

Errenta pertsonal eskuragarriari dagokionez (guztirako errenta ken Errentaren gaineko zerga eta langileak ordaintzen dituen gizarte kotizazioak), Bilboko batez besteko datua 16.951 eurokoa izan zen 2009an; beraz, hiru urtean % 12,3 hazi zen. Emakumeen artean, errenta pertsonal eskuragarria % 16,0 igo bazen ere, batez bestekoa 12.939 eurotara baino ez zen iritsi, eta gizonezkoen datutik oso urrun geratu zen (21.544 euro; % 9,8ko igoera).

Familiako batez besteko errenta (familia bereko kideen errenta pertsonalak, guztira) 43.119 eurokoa izan zen 2009an; hau da, batez besteko errenta pertsonalaren balioa 2,1 aldiz gainditu zuen. 2006ko datuekiko % 8,7 igo dira familia bilbotarren batez besteko diru-sarrerak. Bilboko eta gainerako esparruetako datuak alderatuta, errenta pertsonalarekin gertatzen den bezala, familien batez besteko errenta handiagoa da Bilbon, Bizkaian (42.191 euro) eta Euskal Autonomia Erkidegoan (42.729 euro) baino.

Datu orokorrak alde batera utzita, egoera auzoz auzo aztertuz gero, batetik bestera alde handia dagoela ikusten da, bilbotarren errenta mailari dagokionez; bai errenta pertsonalaren kasuan, bai eta familiako errenten kasuan ere.

2009an, hain justu ere, batez besteko errenta pertsonal altuenak Abandon (35.939 euro) eta Indautxun (32.561 euro) erregistratu ziren, eta askoz atzerago, Castañosen (27.763 euro). Bilbon, lau auzotik bakarra dago hiribilduko errenta pertsonalaren batez besteko datuaren gainetik. Errenta pertsonal baxuenak, berriz, auzo hauetakoak dira: Otxarkoaga (10.840 euro), San Frantzisko (10.823 euro) eta Iturrigorri-Peñaskal (10.579 euro). Azken auzo honetan erregistratutako datua hiribilduko batez bestekoaren erdia da, gutxi gorabehera.

Familiako errenta handienak ere Abandoko (2009an, 77.929 euro), Indautxuko (70.627 euro) eta Castañoseko (57.627 euro) auzoetan daude. Txikienak, aldiz, Uretamendin (24.344 euro), Iturrigorri-Peñaskalen (23.166 euro) eta Otxarkoagan (22.821 euro). Guztira, hamabi izan ziren 2009. urtean hiribilduko batez bestekoaren gainetik familiako errenta izan zuten auzoak: 2006an baino bi gehiago.

## Batez besteko errenta pertsonala

	2003	2006	2009	% 2009/06
<b>Errenta pertsonala (€)</b>	13.922	18.196	20.081	10,4
Emakumezkoak	9.467	13.195	15.060	14,1
Gizonezkoak	18.988	23.931	25.828	7,9
<b>Laneko errenta pertsonala (€)</b>	8.813	10.749	12.285	14,3
Emakumezkoak	5.679	7.300	8.860	21,4
Gizonezkoak	12.376	14.704	16.205	10,2
<b>Errenta pertsonal eskuragarria (€)</b>	11.798	15.099	16.951	12,3
Emakumezkoak	8.208	11.152	12.939	16,0
Gizonezkoak	15.879	19.624	21.544	9,8

Iturria: Eustat.

## Familiako batez besteko errenta

	2003	2006	2009	% 2009/06
<b>Familiako errenta (€)</b>	32.463	39.679	43.119	8,7
Emakumezkoak	25.684	31.782	34.740	9,3
Gizonezkoak	36.315	44.632	48.985	9,8
<b>Familiako laneko errenta (€)</b>	20.634	23.521	26.455	12,5
Emakumezkoak	15.275	17.422	20.151	15,7
Gizonezkoak	23.679	27.345	30.869	12,9
<b>Familiako errenta eskuragarria (€)</b>	27.494	32.908	36.383	10,6
Emakumezkoak	22.049	26.583	29.600	11,3
Gizonezkoak	30.588	36.875	41.132	11,5

Iturria: Eustat.

## Errenta altuenak dituztenak Abandon eta Indautxun bizi dira



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	Errenta pertsonala eta familiakoa
Atzerritik etorritako biztanleak	Gizarte-babesa
Biztanleria: Errenta, gizarte-babesa eta eskolatzeko-maila	Eskolatzeko-maila

## Gizarte-babesa

Bilbon, errenta eskasa izanik egoera larrian edo gizarte-bazterketa arriskuan dauden biztanleek herri administrazioen laguntza jasotzen dute, hainbat ekimenen bitartez. Indarrean dagoen lege-esparruaren barne, Bilboko Udalak hiru motatako gizarteratze laguntzak kudeatzen ditu: Gizarteratze-hitzarmenak, Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta Gizarte-larrialdietarako laguntzak.

Horien osagarri, gizarte-bazterketa egoerak saihesten eta/edo arintzen laguntzeko helburuarekin martxan jarritako hainbat ekintza bideratu dira: laguntza bereziak, gizarte erakundeei gizarteratze-programetarako emandako diru-laguntzak...

## 16.031 familiak jasotzen du diru-sarrerak bermatzeko errenta: guztira, ia 28.000 onuradun

Bilboko Udalaren Gizarte Ekintza Sailaren datuen arabera, 2011ko urte bukaeran, Bilbon Diru-sarrerak bermatzeko errentaren 16.031 espediente aktibo zegoen; guztira, 27.915 onuradun. Espediente aktiboen ehunekoa % 9,9 igo da 2010etik hona, eta onuradunen kopurua, % 15,3.

Beheko koadroan ageri denez, Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsona gehienak San Frantzisko eta Abusuko barrutian bizi dira (2011n, 4.285 onuradun eta 2.517 espediente aktibo). Alde handia dago, gainera, barruti horretako datuen eta horren atzetik datozenen artean: Otxarkoaga-Txurdinaga eta Santutxu-Bolueta. Hiribilduko oinarrizko gizarte zerbitzu guztietan nabaritu da Diru-sarrerak bermatzeko errentako espedienteen eta onuradunen gorakada, Basurtu-Altamirako barrutikoan izan ezik.

### Diru-sarrerak bermatzeko errenta, oinarrizko gizarte zerbitzuen arabera

	2009		2010		2011		% 2011/10	
	Esp.	Onurad.	Esp.	Onurad.	Esp.	Onurad.	Esp.	Onurad.
<b>Guztira (kop.)</b>	15.163	26.882	14.582	24.206	16.031	27.915	9,9	15,3
<i>Deustu-San Inazio</i>	1.452	2.570	1.405	2.346	1.595	2.770	13,5	18,1
<i>Uribarri-Zurbaran</i>	1.557	2.661	1.428	2.286	1.592	2.695	11,5	17,9
<i>Otxarkoaga-Txurdinaga</i>	1.614	3.439	1.427	2.710	1.743	3.535	22,1	30,4
<i>Santutxu-Bolueta</i>	1.658	2.966	1.710	2.848	1.898	3.341	11,0	17,3
<i>Alde Zaharra</i>	1.512	2.465	1.423	2.212	1.530	2.456	7,5	11,0
<i>San Frantzisko-Abusu</i>	2.562	4.406	2.454	3.920	2.517	4.285	2,6	9,3
<i>Irala-San Adrian</i>	1.410	2.551	1.392	2.405	1.564	2.732	12,4	13,6
<i>Errekalde-Peñaskal</i>	1.130	1.969	1.150	1.887	1.303	2.248	13,3	19,1
<i>Abando</i>	1.071	1.647	1.028	1.513	1.090	1.622	6,0	7,2
<i>Zorrotza</i>	646	1.242	578	1.067	637	1.227	10,2	15,0
<i>Basurtu-Altamira</i>	551	966	587	1.012	562	1.004	-4,3	-0,8

Iturria: Bilboko Udala.



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	Errenta pertsonala eta familiakoa
Atzeritik etorritako biztanleak	Gizarte-babesa
<b>Biztanleria: Errenta, gizarte-babesa eta eskolatzeko-maila</b>	Eskolatzeko-maila

Errenta pertsonala eta familiakoa
Gizarte-babesa
Eskolatzeko-maila

## 2011n gizarte-larrialdietarako 3.528 laguntza eman dira

Gizarte-larrialdietarako laguntzei dagokienez, 2011n 6.050 eskaera izapidetu dira, eta horiei erantzuteko 3.528 diru-laguntza banatu dira (2010ean baino % 11,4 gutxiago): guztira, 3,8 milioi euro ordaindu dira.

Diru-laguntza gehienak Otxarkoaga-Txurdinagako barrutira (544, guztira), Santutxu-Boluetara (469), San Frantzisko-Abusura (452) eta Errekalde-Peñaskalera (369) joan dira, hurrenkera horretan. Onuradunek jaso dituzten diru-laguntza handienak etxebizitzaren mantentze-lanetarako (guztirakoaren % 26; ia-ia milioi bat euro) edota etxebizitzan egindako gastu edo konponketetarako (% 22) erabili dituzte.

Etxebizitzarako prestazio osagarriak 51.719 izan dira 2011. urtean, eta horien bitartez, guztira, 17,5 milioi euro eman dira. Onartutako diru-laguntza kopurua, gainera, % 20 handitu da 2010eko datuarekiko, eta horiei lotutako zenbatekoak % 30,6 egin du gora, urtetik urtera.

Gizarte-hitzarmenak 724 izan dira 2011n, eta laguntza hartzaile horietatik enplegu zerbitzuetara bidali dituztenak, 375. Guztira Gizarteratzeko laguntza bereziko 1.402 espediente izapidetu dira; gehienak (1.052), laguntza berriak.

Aipatutako laguntzez gain, babestutako etxebizitzaren alokairu zerbitzuaren bitartez, udalak merkatu librean etxea eskuratu ezinean daudenei laguntzen diete. 2011. urtean, Udal Etxebizitzaren zerbitzuak 646 etxe gehiago prestatu ditu alokairuan emateko. Hortaz, urte amaieran, 3.975 etxebizitza zegoen (3.694, alokairuan emanda) sail horretan. Guztira 9.150 lagun bizi dira zerbitzu horren bitartez kudeatutako etxeetan.

### Ordaindutako gizarte-larrialdietarako laguntzak, oinarrizko gizarte zerbitzuen arabera

	2009	2010	2011	% 2011/10
<b>Ordaindutako laguntzak, guztira (kop.)</b>	<b>9.561</b>	<b>3.984</b>	<b>3.528</b>	<b>-11,4</b>
<i>Deustu-San Inazio</i>	939	403	351	-12,9
<i>Uribarri-Zurbaran</i>	923	355	292	-17,7
<i>Otxarkoaga-Txurdinaga</i>	952	538	544	1,1
<i>Santutxu-Boluetara</i>	1.070	552	469	-15,0
<i>Alde Zaharra</i>	851	316	268	-15,2
<i>San Frantzisko-Abusu</i>	1.486	476	452	-5,0
<i>Irala-San Adrian</i>	922	332	282	-15,1
<i>Errekalde-Peñaskal</i>	862	392	369	-5,9
<i>Abando</i>	670	247	176	-28,7
<i>Zorrotza</i>	382	156	144	-7,7
<i>Basurtu-Altamira</i>	501	217	181	-16,6

Iturria: Bilboko Udala.



Demografia: Biztanleriaren bilakaera eta egitura	Errenta pertsonala eta familiakoa
Atzeritik etorritako biztanleak	Gizarte-babesa
<b>Biztanleria: Errenta, gizarte-babesa eta eskolatzeko-maila</b>	<b>Eskolatzeko-maila</b>

Errenta pertsonala eta familiakoa
Gizarte-babesa
<b>Eskolatzeko-maila</b>

## Eskolatzeko-maila

### *Ikasten ari ez diren biztanleen ia bostenak unibertsitate ikasketak ditu*

Udalerrian bizi diren eskolatzeko-mailari begira, ikasten ari ez diren bilbotarren ia bostenak unibertsitate ikasketak ditu: % 17,9. Ehuneko hori puntu bat igo da 2006tik hona, eta 3,2 puntu 2001etik. Zifra absolutuetan, urte horretako datua ez zen 41.000ra iristen; 2011n, aldiz, 51.000 pertsonen mugan ibili da.

Sail horretakoei erdi edo goi mailako ikasketak dituztenak gehitu ezker, guztirako zifra 74.767 lagunekoa da (ikasten ari ez diren % 26,3). Beraz, oso atzean geratu dira jada 2001eko (61.821 lagun, % 22,2) eta 2006ko (69.772, % 25,0) erregistroak.

Bigarren mailako (guztirako ikasleen % 20,5) eta lanbide heziketako (% 12,8) ikasketetan ere datu onak lortu dira azken hamarkadan. 2010ean, kasurako, bigarren mailako ikasketak edo hortik gorakoak dituzten biztanleak (ikasten ari ez direnak) % 59,7 izan ziren. Beraz, datu hori igo egin da 2006tik (% 57) eta 2001etik (% 49,3) aurrera.

Beste horien atzetik egon arren, lehen mailako ikasketak dituztenak asko dira, oraindik ere (2010ean, guztirakoaren % 35,6). Nolanahi ere, azken hamar urteotan kopuru horrek behera egin du nabarmen (2001eko datua: % 44,8). Eskolagabeak edo ikasketarik ez duten biztanleak (ikasten ari ez diren artean, betiere) gutxi dira, % 5 eskas. Urteetik urtera, antza, jaisten ari da ehuneko hori.

Bestalde, ikasten ari diren atalean (batez ere, lehen mailakoen gorakoei erreparatuta), ezer baino lehen, guztirako kopurua asko jaitsi dela nabarmendu behar da: 2001. urtean 41.876 ikasle bazegoen, 2010ean 34.199 baino ez ziren (7.677 ikasle gutxiago; zifra erlatiboetan, % 18,3).

Horien barne, gehienak bigarren mailako ikasketak egiten ari dira (guztien % 46,8), unibertsitateko (% 28,3), erdi-goi mailako (% 11,2) edo lanbide heziketako (% 13,7) ikasketetan ari diren aurretik. Lanbide heziketan dihardutenak ere dezente igo dira 2001eko datuekiko (% 10,6), gainerako prestakuntza mailen kaltetan.

### *Lehen mailako ikasketak dituzten biztanleen ehunekoa nabarmen jaitsi da azken hamar urteetan*

### *Ikasten ari ez direnek aurretik egindako ikasketak*

	2001	2006	2010	% 2010/06
<i>Ikasten ari ez direnak, guztira</i>	278.061	279.393	284.210	1,7
<i>Eskolagabeak eta ikasketarik ez dutenak</i>	16.488	14.973	13.524	-9,7
<i>Lehen mailakoak</i>	124.596	105.111	101.042	-3,9
<i>Lanbide Heziketakoak</i>	31.955	35.482	36.490	2,8
<i>Bigarren hezkuntzakoak</i>	43.201	54.055	58.387	8,0
<i>Erdi-goi mailakoak</i>	20.938	22.777	24.011	5,4
<i>Goi mailakoak</i>	40.883	46.995	50.756	8,0

Iturria: Eustat.

Biztanleria, sexuaren arabera  
 Biztanleria, adinaren arabera  
 Biztanleriaren mugimendu naturala  
 Migrazio mugimenduak  
 Biztanle atzerriarrak  
 Batez besteko errenta pertsonala

Familiako batez besteko errenta  
 Diru-sarrerak bermatzeko errenta, oinarrizko  
 gizarte zerbitzuen arabera  
 Ordaindutako gizarte-larrialdietarako  
 laguntzak, oinarrizko gizarte zerbitzuen  
 arabera  
 Ikasten ari ez direnek aurretik egindako  
 ikasketak

## Biztanleria, sexuaren arabera

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Biztanleria	354.492	353.854	353.913	354.168	354.918	353.938	354.180	355.731	354.071	353.256
Emakumezkoak	--	--	--	--	186.885	186.745	186.727	187.257	186.571	186.080
Gizonezkoak	--	--	--	--	168.033	167.193	167.453	168.474	167.500	167.176

Iturria: Udal errolda.

Biztanleria, sexuaren arabera  
 Biztanleria, adinaren arabera  
 Biztanleriaren mugimendu naturala  
 Migrazio mugimenduak  
 Biztanle atzerritarak  
 Batez besteko errenta pertsonala

Familiako batez besteko errenta  
 Diru-sarrerak bermatzeko errenta, oinarrizko  
 gizarte zerbitzuen arabera  
 Ordaindutako gizarte-larrialdietarako  
 laguntzak, oinarrizko gizarte zerbitzuen  
 arabera  
 Ikasten ari ez direnek aurretik egindako  
 ikasketak

## Biztanleria, adinaren arabera

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Biztanleria	354.492	353.854	353.913	354.168	354.918	353.938	354.180	355.731	354.071	353.256
0-14 urte bitartekoak	--	--	--	--	39.808	40.354	41.092	41.824	42.215	42.592
15-29 urte bitartekoak	--	--	--	--	60.488	58.244	56.416	55.158	53.087	51.286
30-44 urte bitartekoak	--	--	--	--	86.886	86.098	85.473	85.268	83.497	82.345
45-64 urte bitartekoak	--	--	--	--	91.999	93.414	95.086	96.697	97.812	98.725
65-84 urte bitartekoak	--	--	--	--	66.991	66.584	66.414	66.565	66.759	66.986
≥ 85 urte	--	--	--	--	8.746	9.244	9.699	10.219	10.701	11.322
guztirakoaren gaineko 0 eta 14 urte bitartekoen %	--	--	--	--	11,2	11,4	11,6	11,8	11,9	12,1
guztirakoaren gaineko 85 urte edo gehiagokoen %	--	--	--	--	2,5	2,6	2,7	2,9	3,0	3,2
Mendekotasun-adierazlea*	--	--	--	--	48,3	48,9	49,5	50,0	51,1	52,0

\* Mendekotasun-adierazlea: (0-14 urte bitarteko + 65 urteko edo gehiagoko) biztanleen % , 15 eta 64 urte bitartekoen gainean.  
 Iturria: Udal errolda.

Biztanleria, sexuaren arabera  
 Biztanleria, adinaren arabera  
 Biztanleriaren mugimendu naturala  
 Migrazio mugimenduak  
 Biztanle atzerriarrak  
 Batez besteko errenta pertsonala

Familiako batez besteko errenta  
 Diru-sarrerak bermatzeko errenta, oinarritzko  
 gizarte zerbitzuen arabera  
 Ordaindutako gizarte-larrialdietarako  
 laguntzak, oinarritzko gizarte zerbitzuen  
 arabera  
 Ikasten ari ez direnek aurretik egindako  
 ikasketak

## Biztanleriaren mugimendu naturala

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Hazkunde begetatiboa	-788	-695	-565	-375	-627	-670
Jaiotzak	2.864	2.926	3.079	3.244	2.979	2.929
Heriotzak	3.652	3.621	3.644	3.619	3.606	3.599
Jaiotza-tasa gordina (bizt. ‰)	8,1	8,3	8,7	9,1	8,4	8,3
Heriotza-tasa gordina (bizt. ‰)	10,3	10,2	10,3	10,2	10,2	10,2

Iturria: Udal errolda.

Biztanleria, sexuaren arabera  
 Biztanleria, adinaren arabera  
 Biztanleriaren mugimendu naturala  
 Migrazio mugimenduak  
 Biztanle atzerritarrak  
 Batez besteko errenta pertsonala

Familiako batez besteko errenta  
 Diru-sarrerak bermatzeko errenta, oinarrizko  
 gizarte zerbitzuen arabera  
 Ordaindutako gizarte-larrialdietarako  
 laguntzak, oinarrizko gizarte zerbitzuen  
 arabera  
 Ikasten ari ez direnek aurretik egindako  
 ikasketak

## Migrazio mugimenduak

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
<b>Immigrazioa</b>	354.492	353.854	353.913	354.168	354.918	353.938	354.180	355.731	354.071	353.256
Udalerrria aldatzea	52.403	52.218	51.794	51.696	51.875	51.624	51.538	51.718	51.687	52.002
Atzerritik itzultzea	33.850	34.059	34.171	34.075	33.780	33.666	33.490	33.658	33.403	32.975
<b>Emigrazioa</b>	45.190	44.574	44.320	43.715	43.598	43.390	43.296	43.030	42.661	42.450
Udalerrria aldatzea	53.517	53.285	52.783	52.277	52.218	51.989	51.730	51.656	50.939	50.616
Atzerriratzea	46.188	46.511	47.297	47.583	47.598	47.476	47.363	47.787	47.486	47.500
<b>Migrazio-saldoa</b>	52.387	52.578	53.285	55.182	57.340	58.064	59.403	61.029	61.501	61.950
Otxarkoaga- Txurdinaga	29.590	29.770	30.010	29.690	29.140	28.871	28.818	28.518	28.240	28.055
Uribari	41.367	40.859	40.253	39.950	39.369	38.858	38.542	38.335	38.154	37.708

Iturria: Udal errolda.

Biztanleria, sexuaren arabera  
 Biztanleria, adinaren arabera  
 Biztanleriaren mugimendu naturala  
 Migrazio mugimenduak  
 Biztanle atzerritarrak  
 Batez besteko errenta pertsonala

Familiako batez besteko errenta  
 Diru-sarrerak bermatzeko errenta, oinarrizko  
 gizarte zerbitzuen arabera  
 Ordaindutako gizarte-larrialdietarako  
 laguntzak, oinarrizko gizarte zerbitzuen  
 arabera  
 Ikasten ari ez direnek aurretik egindako  
 ikasketak

## Biztanle atzerritarrak

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Biztanle atzerritarrak	--	--	--	--	19.825	22.123	25.263	28.372	28.865	29.863
Emakumezkoak	--	--	--	--	--	11.230	12.700	14.037	14.383	14.809
Gizonezkoak	--	--	--	--	--	10.893	12.563	14.335	14.482	15.054
0-15 urte bitartekoak	--	--	--	--	--	3.246	3.723	3.844	3.888	3.994
16-24 urte bitartekoak	--	--	--	--	--	3.533	4.039	4.563	4.425	4.380
25-44 urte bitartekoak	--	--	--	--	--	12.280	13.923	15.881	16.305	16.878
45-64 urte bitartekoak	--	--	--	--	--	2.727	3.192	3.658	3.815	4.138
≥ 65 urte	--	--	--	--	--	337	386	431	432	473
Europa	--	--	--	--	--	3.740	4.396	4.943	4.910	5.090
Afrika	--	--	--	--	--	3.746	4.513	5.702	6.215	6.715
Amerika	--	--	--	--	--	13.363	14.897	15.958	15.734	15.663
Asia	--	--	--	--	--	1.263	1.443	1.756	1.991	2.376
Ozeania	--	--	--	--	--	8	12	11	13	16
Herrigabeak						3	2	2	2	3
Bolivia	--	--	--	--	2.354	3.611	4.666	4.879	4.727	4.654
Kolonbia	--	--	--	--	3.827	3.755	3.683	3.730	3.546	3.333
Maroko	--	--	--	--	1.204	1.221	1.594	2.058	2.177	2.399
Errumania	--	--	--	--	1.201	1.476	1.962	2.248	2.280	2.358
Gainerako herrialdeak	--	--	--	--	11.239	12.060	13.358	15.457	16.135	17.119
atzerritarren %, biztanle guztiekiko	--	--	--	--	5,6	6,3	7,1	8,0	8,2	8,5

Iturria: Udal errolda.

Biztanleria, sexuaren arabera  
 Biztanleria, adinaren arabera  
 Biztanleriaren mugimendu naturala  
 Migrazio mugimenduak  
 Biztanle atzerritarrak  
 Batez besteko errenta pertsonala

Familiako batez besteko errenta  
 Diru-sarrerak bermatzeko errenta, oinarrizko  
 gizarte zerbitzuen arabera  
 Ordaindutako gizarte-larrialdietarako  
 laguntzak, oinarrizko gizarte zerbitzuen  
 arabera  
 Ikasten ari ez direnek aurretik egindako  
 ikasketak

## Batez besteko errenta pertsonala

	2001	2003	2006	2009
<b>Errenta pertsonala (€)</b>	12.881	13.922	18.196	20.081
Emakumezkoak	8.531	9.467	13.195	15.060
Gizonezkoak	17.849	18.988	23.931	25.828
<b>Laneko errenta pertsonala (€)</b>	8.115	8.813	10.749	12.285
Emakumezkoak	5.139	5.679	7.300	8.860
Gizonezkoak	11.514	12.376	14.704	16.205
<b>Errenta pertsonal eskuragarria (€)</b>	10.837	11.798	15.099	16.951
Emakumezkoak	7.344	8.208	11.152	12.939
Gizonezkoak	14.826	15.879	19.624	21.544

Iturria: Eustat.

Biztanleria, sexuaren arabera  
 Biztanleria, adinaren arabera  
 Biztanleriaren mugimendu naturala  
 Migrazio mugimenduak  
 Biztanle atzerritarrak  
 Batez besteko errenta pertsonala

Familiako batez besteko errenta  
 Diru-sarrerak bermatzeko errenta, oinarrizko  
 gizarte zerbitzuen arabera  
 Ordaindutako gizarte-larrialdietarako  
 laguntzak, oinarrizko gizarte zerbitzuen  
 arabera  
 Ikasten ari ez direnek aurretik egindako  
 ikasketak

## Familiako batez besteko errenta

	2001	2003	2006	2009
<b>Familiako errenta (€)</b>	29.730	32.463	39.679	43.119
Emakumezkoak	23.144	25.684	31.782	34.740
Gizonezkoak	33.383	36.315	44.632	48.985
<b>Familiako laneko errenta (€)</b>	18.802	20.634	23.521	26.455
Emakumezkoak	13.724	15.275	17.422	20.151
Gizonezkoak	21.618	23.679	27.345	30.869
<b>Familiako errenta eskuragarria (€)</b>	24.999	27.494	32.908	36.383
Emakumezkoak	19.724	22.049	26.583	29.600
Gizonezkoak	27.924	30.588	36.875	41.132

Iturria: Eustat.

Biztanleria, sexuaren arabera  
 Biztanleria, adinaren arabera  
 Biztanleriaren mugimendu naturala  
 Migrazio mugimenduak  
 Biztanle atzerritarrak  
 Batez besteko errenta pertsonala

Familiako batez besteko errenta  
 Diru-sarrerak bermatzeko errenta, oinarrizko  
 gizarte zerbitzuen arabera  
 Ordaindutako gizarte-larrialdietarako  
 laguntzak, oinarrizko gizarte zerbitzuen  
 arabera  
 Ikasten ari ez direnek aurretik egindako  
 ikasketak

## Diru-sarrerak bermatzeko errenta, oinarrizko gizarte zerbitzuen arabera

	2009	2010	2011
Guztira (kop.)	21.288	22.930	27.915
Deustu-San Inazio	1.928	2.060	2.770
Uribarri-Zurbaran	2.154	2.340	2.695
Otxarkoaga-Txurdinaga	2.683	2.830	3.535
Santutxu-Bolueta	2.157	2.387	3.341
Alde Zaharra	1.857	2.084	2.456
San Frantzisko-Abusu	3.716	4.026	4.285
Irala-San Adrian	2.104	2.272	2.732
Errekalde-Peñaskal	1.678	1.652	2.248
Abando	1.306	1.389	1.622
Zorrotza	1.151	1.176	1.227
Basurtu-Altamira	554	714	1.004

Iturria: Bilboko Udala.

Biztanleria, sexuaren arabera  
 Biztanleria, adinaren arabera  
 Biztanleriaren mugimendu naturala  
 Migrazio mugimenduak  
 Biztanle atzerritarrak  
 Batez besteko errenta pertsonala

Familiako batez besteko errenta  
 Diru-sarrerak bermatzeko errenta, oinarrizko  
 gizarte zerbitzuen arabera  
 Ordaindutako gizarte-larrialdietarako  
 laguntzak, oinarrizko gizarte zerbitzuen  
 arabera  
 Ikasten ari ez direnek aurretik egindako  
 ikasketak

## Ordaindutako gizarte-larrialdietarako laguntzak, oinarrizko gizarte zerbitzuen arabera

	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Ordaindutako laguntzak, guztira (kop.)	5.243	6.484	7.541	7.044	7.421	9.561	3.984	3.528
Deustu-San Inazio	388	555	664	674	702	939	403	351
Uribarri-Zurbaran	492	629	721	625	753	923	355	292
Otxarkoaga-Txurdinaga	607	692	772	810	771	952	538	544
Santutxu-Bolueta	416	641	726	736	790	1.070	552	469
Alde Zaharra	461	580	696	566	665	851	316	268
San Frantzisko-Abusu	914	1.078	1.219	1.073	1.170	1.486	476	452
Irala-San Adrian	498	627	670	709	701	922	332	282
Errekalde-Peñaskal	389	524	654	544	617	862	392	369
Abando	473	519	625	601	534	670	247	176
Zorrotza	275	301	388	354	317	382	156	144
Basurtu-Altamira	330	338	406	352	401	501	217	181

Iturria: Bilboko Udala.

Biztanleria, sexuaren arabera  
 Biztanleria, adinaren arabera  
 Biztanleriaren mugimendu naturala  
 Migrazio mugimenduak  
 Biztanle atzerritarrak  
 Batez besteko errenta pertsonala


Familiako batez besteko errenta  
 Diru-sarrerak bermatzeko errenta, oinarrizko  
 gizarte zerbitzuen arabera  
 Ordaindutako gizarte-larrialdietarako  
 laguntzak, oinarrizko gizarte zerbitzuen  
 arabera  
 Ikasten ari ez direnek aurretik egindako  
 ikasketak

## Ikasten ari ez direnek aurretik egindako ikasketak

	2001	2006	2010
<i>Ikasten ari ez direnak, guztira</i>	278.061	279.393	284.210
<i>Eskolagabeak eta Ikasketarik ez dutenak</i>	16.488	14.973	13.524
<i>Lehen mailakoak</i>	124.596	105.111	101.042
<i>Lanbide Heziketakoak</i>	31.955	35.482	36.490
<i>Bigarren hezkuntzakoak</i>	43.201	54.055	58.387
<i>Erdi-go mailakoak</i>	20.938	22.777	24.011
<i>Goi mailakoak</i>	40.883	46.995	50.756

Iturria: Eustat.

## 2. Kapituluia Ekonomia eta enpresa



- Testuinguru ekonomikoa
- Ekonomia- eta enpresa-jarduerak
- Soldatapeko langileak dituzten enpresak
- Autonomoen araubidearen afiliazioa
- Merkataritza-sozietate berriak



# 2 Ekonomia eta enpresa

kapitulua



Testuinguru ekonomikoa
Ekonomia- eta enpresa-jarduerak
Soldatapeko langileak dituzten enpresak
Autonomoen araubidearen afiliazioa
Merkataritza-sozietate berriak

2011. urtean, Euskal Herriko ekonomian ahultasun zantzu nabarmenak ikusi dira, % 0,6 baino ez baita hazi. Zifra hori krisian sartu aurretiko hazkundearen datuetatik urrun dago, oraindik ere. Barne merkatuan ere hondamendia agerikoa izan da, barne eskariaren azken hiru urteetako beheranzko joerari utsita. Datu positiborik ematekotan, kanpoko saldoa aipatu behar, esportazioak indarberritu egin dira eta.

Mundu mailan ere, aurreko urtearekin alderatuta, ekonomia hazten ari da, baina gero eta motelago; BPGda % 3,9 igo da 2011n. Dezelerazioa hala herrialde aurreratuek nola garapen bidean daudenek eraginda etorri da; lehenen kasuan, euren hazkunde-tasa erdira jaitsi delako, eta bigarrenei dagokienez, aurreko urtean baino puntu eta erdi gutxiago hazi direlako.

Europako ekonomietan dezelerazioa samurragoa izan dela dirudi, zenbait herrialdek aurrera sendo jarraitzen duelako: kasurako, Frantziak, eta batik bat, Alemaniak. Horien indarrari esker, Europar eremuko beste herrialde batzuen ahuleziei aurre egitea posible da oraindik; tartean, Espainiarenak, eta, bide beretik, euskal ekonomiarenak. Izan ere, aurreko urtean baino gehiago haztea lortu bazuten ere, bai bata, bai bestea, barne eskaria are gehiago makaltzera eramango duen zurrumbiloan sartuta baitaude.

Baldintza ekonomiko kaskarrak nagusi diren garaiotan, Bilboko enpresa-egitura doitzen ari da. Hiribilduko enpresei buruzko datuen arabera, 2011n 36.825 jarduera ekonomiko abian zegoen; batez ere, zerbitzuen sektorean: guztirakoaren % 87.

Urteko bilakaeran, atzeraldia begi bistakoa da: jarduera guztietan, oro har, % 4koa; eta zerbitzuen sektorean bereziki, % 6koa (zerbitzuetan dihardutenengan jo du gogorren atzeraldiak). Industrian eta eraikuntzan % 2ko eta % 1,3ko jaitsierak izan dira, hurrenez hurren; eta zerbitzuen sektorearen barne, merkataritzak, hiriaren enpresa-sarean nagusi den jarduerak, % 1,4 egin du behera.

Aurreko urtearekin alderatuta, Gizarte segurantzan izena emanda dauden autonomoen kopuruak atzera egin du % 1,9. Berdin gertatu da soldatapeko langileak dituzten enpresekin (-% 0,2) eta merkataritza-sozietateekin (-% 0,4), nahiz eta gutxiago jaitsi diren.

# 2 Ekonomia eta enpresa

kapitulua



Testuinguru ekonomikoa	Nazioarteko ekonomia
Ekonomia- eta enpresa-jarduerak	Espainiako ekonomia
Soldatapeko langileak dituzten enpresak	Euskal ekonomia
Autonomoen arabidearen afiliazioa	
Merkataritza-sozietate berriak	

## Testuinguru ekonomikoa

### Nazioarteko ekonomia

## Txina eta India dira gehien hazi diren munduko ekonomiak

Munduko ekonomia % 3,9 hazi da 2011. urtean. Nahiz eta 2010eko datuarekin erkatuta dezelerazioa gailendu dela agerian uzten duen –urte horretan mundu mailako ekoizpenak % 3,5eko hazkundera ekarri zuen–, datu hori azken hamabost urteetako munduko hazkunderaren zifren batez bestekoaren parean dago.

Munduko ekonomiari dagokionez, gorabidean eta garapen bidean dauden herrialdeetan gertatu da hazkunde ekonomikoa, batik bat: % 6,2 igo da horien ekoizpen-maila. Guztira, 150 dira multzo horretan sartzen diren herrialdeak, eta euren ekonomiek munduko aberastasun guztiaren % 49 sortzen dute.

Horien guztien artean derrigor aipatu beharreko bat, Txina; hala munduko ekoizpenean duen ekarpen berebizikoarengatik (guztirakoaren % 15), nola hazkunde-tasa altuarengatik: 2011n, % 9,2 igo da, azken hamabost urteetako batez bestekoa (% 10) eta aurreko urtekoa (2010ean, % 10,4) baino gutxiago.

Gorabidean eta garapen bidean dauden gainerako ekonomia handiek, kasurako, Indiak, Errusiak eta Brasilek (munduko ekoizpenaren % 6, % 3 eta % 3 euri dagokie, hurrenkera horretan), Txinak baino hazkunde-tasa txikiagoak izan dituzte 2011n.

Indiak % 7,1 egin du gora urte horretan; Errusiak, % 4,3, eta Brasilek % 2,7. Hortaz, motelaldi ekonomikoak Indian eta Brasilen jo du gogorren; batez ere, azken honetan, 2010ean % 7,5 hazi zela kontuan hartzen badugu.

Gorabidean eta garapen bidean dauden herrialdeen eremu ekonomikoen hazkundeak erritmo onean egin du gora: Ekialde Ertainean eta Ipar Afrikan, esaterako, % 3,5 igo da, eta Asiako ekonomia dinamikoetan % 7,8ra ere iritsi dira. Munduko gainerako eremuetan % 4-5 inguruko hazkundeak izan dute (Erdialdeko eta Ekialdeko Europa, Estatu Burujabeen Erkidegoa, Latinoamerika eta Karibe, eta Saharaz hegoaldeko herrialde afrikarrak).

## Ekonomia aurreratuetan erdira murriztu da hazkunde-erritmoa

### Munduko herrialdeen BPGd

	2009	2010	2011
<b>BPGd</b>	<b>-0,6</b>	<b>5,3</b>	<b>3,9</b>
<b>Ekonomia aurreratuak</b>	<b>-3,6</b>	<b>3,2</b>	<b>1,6</b>
<i>Estatu Batuak</i>	-3,5	3,0	1,7
<i>Euroaren eremuko herrialdeak</i>	-4,3	1,9	1,4
<i>Alemania</i>	-5,1	3,6	3,1
<i>Frantzia</i>	-2,6	1,4	1,7
<i>Italia</i>	-5,5	1,8	0,4
<b>Gorabidean eta garapen bidean dauden ekonomiak</b>	<b>2,8</b>	<b>7,5</b>	<b>6,2</b>
<i>Txina</i>	9,2	10,4	9,2
<i>India</i>	6,6	10,8	7,1
<i>Errusia</i>	-7,8	4,3	4,3
<i>Brasil</i>	-0,3	7,5	2,7

Portzentajezko aldakuntza tasa.

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza.

Ekonomia aurreratuena multzoan 34 herrialde daude (munduko ekonomiaren % 51 osatzen dutenak), eta horietan guztietan hazkunde-tasa erdira jaitsi da 2011n, % 1,6ra arte.

Lehen sektorea	--	--	--	142	125	119	169	277	476	580
Industria	--	--	--	2.103	1.669	1.525	1.901	2.470	2.559	2.646
Eraikuntza	--	--	--	1.664	1.367	1.458	2.553	3.173	3.300	3.562
Zerbitzuak	--	--	--	10.373	9.634	9.641	12.137	14.931	16.314	17.309
Aurretik ere lanik gabea	--	--	--	1.406	1.260	1.089	1.396	1.834	2.845	3.263

Abenduko datuak.

Iturria: SEPE.

## 4. kapitulua *Merkataritza*



Merkataritza jarduerak eta enpresak  
Merkataritza jardueraren bilakaera  
Soldatapeko enplegua  
Etxeetan egindako kontsumoa  
Sektorearen salmentak





Merkataritza jarduerak eta enpresak

Merkataritza jardueraren bilakaera

Soldatapeko enplegua

Etxeetan egindako kontsumoa

Sektorearen salmentak

Bilboko udalerrian, ekonomia jardueretarako hiru lizentziatutako bat merkataritza sektorekoa da. Horien artean, txikizkariak soilik hartuta, dagoeneko 7.000 dira; hau da, hirian ezarritako jarduera guztien ia bostena. Bestalde, enplegatu gehien dituen sektorea ere bada merkatariena.

Hain justu ere, tokiko ekonomia-sarean hainbesteko garrantzia duenez, krisiak eta gainbehera ekonomikoak eragin handia izan dute sektore honetan. 2011. urtean, beraz, 120 jarduera komertzial gutxiago egon dira sektorean eta lotutako enpleguen kopurua % 2,5 jaitsi da: hau da, 584 lanpostu galdu dira.

Negozio askok zailtasun handiak dituzte bizirik irauteko, arrazoi anitzengatik: lehiakortasun eza zenbait alorretan, belaunaldi berriek negozioaz ez arduratzea, alokairu garestiak –hainbat kasutan–, eta, batez ere, familien kontsumo eskasa.

Horien bitartez, ekonomiaren gainbehera orokorrak, enplegurako aurreikuspen beltzek eta familien aberastasun galerak ere (finantza arlokoa eta finantzez bestelakoa) zuzeneko eragina izan dute merkataritzaren sektorean: salmenta nominalak % 0,8 besterik ez dira handitu, aurreko urteko % 4,2ko datutik oso urrun. Txikizkarien kasuan ere % 0,9 jaitsi da urteko salmenten zenbatekoa, aurreko urtearekin alderatuta.

Jarraian, 2011. urteko merkataritza jardueraren nondik norakoak aztertuko ditugu.



Merkataritza jarduerak eta enpresak

Merkataritza jardueraren bilakaera

Soldatapeko enplegua

Etxeetan egindako kontsumoa

Sektorearen salmentak

1 • 2

## Merkataritza jarduerak eta enpresak

Merkataritzaren sektoreko lizentzia aktiboen kopuruak Hiribilduan duen indarraren berri ematen digu: Bilbon enpresa jarduerak garatzeko emanda dauden hiru lizentziatik bat merkataritza sektorekoa da (% 32,1); guztira, 9.095 jarduera komertzial. Horien guztien % 76,8 txikizkarien azpisektoreari dagokio (guztira, 6.986 lizentzia), eta gainerako % 23,2, handizkarienari.

Arestian esan bezala, 2011n 120 jarduera komertzial gutxiago bideratu dira merkataritzaren sektorean (ehunekotan, % 1,3 gutxiago). Murrizketa hori antzerakoa izan da txikizkarien (72 lizentzia gutxiago, -% 1,0) zein handizkarien artean (48 gutxiago, -% 2,2).

## Besteen aldean, nabarmena da elikagaiak, edariak eta tabakoa edota jantzi eta oinetakoak saltzen dituzten establezimenduen kopurua

Txikizkarien artean hiru establezimendu mota nagusi daude: elikagai, edari eta tabakoari lotutakoak (2.039), jantzi eta oinetako saltzaileenak (1.447) eta etxetresna eta eraikuntzakoak (1.095). Elikagaiak, edariak eta tabakoa saltzen duten denda kopurua handitu da azken urtean (7 jarduera gehiago); ez, ordea, jantzi eta oinetakoena eta etxeko tresnak saltzen dituztenena (15 eta 32 jarduera gutxiago, hurrenez hurren).

Saltegi handi eta bazarrak ere asko dira Hiribilduan: 2011n, 201 (2010ean eta 2009an baino 8 eta 23 gehiago, hurrenkera horretan).

Azkenik, gainerako txikizkari espezializatuen merkataritza-alorrekin konparatuta, aipatzekoa da farmazia, edertasun eta drogeria produktuen saltegien kopurua (469, 2010ean baino 4 gutxiago). Kontuan hartu behar da, halaber, atzera egin dutela nabarmen altzari eta bulegoetarako gaien (218, 13 gutxiago), liburu eta egunkarien (383, -19) edo bitxi saltzaileen dendek (181, -6), besteak beste.

## Jarduera komertzialak

	2009	2010	2011	% 2011/10
<b>Jarduera komertzialak</b>	9.099	9.215	9.095	-1,3
<b>Txikizkariak</b>	<b>6.979</b>	<b>7.058</b>	<b>6.986</b>	<b>-1,0</b>
<i>Elikagaiak, edariak, tabakoa</i>	1.998	2.032	2.039	0,3
<i>Jantzi eta oinetakoak</i>	1.426	1.462	1.447	-1,0
<i>Farmazia, edertasun eta drogeria prod.</i>	445	465	469	0,9
<i>Etxetresnak eta eraikuntza</i>	1.139	1.127	1.095	-2,8
<i>Saltegi handiak, bazarrak</i>	178	193	201	4,1
<i>Altzariak, bulegoetarako gaiak</i>	238	231	218	-5,6
<i>Liburuak, egunkariak</i>	402	402	383	-4,7
<i>Bitxiak</i>	185	187	181	-3,2
<i>Jostailuak, kirol gaiak</i>	143	140	136	-2,9
<i>Medikuntzako tresnak, ortopedia</i>	130	128	137	7,0
<i>Loradendak eta antzekoak</i>	95	95	87	-8,4
<i>Establezimenduetatik at egindako salmentak</i>	230	218	225	3,2
<i>Gainerakoak</i>	370	378	368	-2,6
<b>Handizkariak</b>	<b>2.120</b>	<b>2.157</b>	<b>2.109</b>	<b>-2,2</b>
<i>Nekazaritzako lehengaiak</i>	324	336	324	-3,6
<i>Zuntzak eta ehungintzako gaiak</i>	136	139	142	2,2
<i>Farmazia prod. eta etxerako gaiak</i>	106	118	106	-10,2
<i>Luzera kontsumitu daitezkeen prod.</i>	373	376	359	-4,5
<i>Industria arteko merkataritza</i>	564	559	529	-5,4
<i>Beste handizkari batzuk</i>	249	254	261	2,8
<i>Produktuen berreskuratzea</i>	73	75	78	4,0
<i>Bitartekari komertzialak</i>	295	300	310	3,3

Lizentzia kopurua. Azken hiruhilekoko urteko datuak.  
Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

(1) Ezarian-ezarian aldatu dira establezimendu hauek: "auzoko" janari dendak desagertu ahala, gourmet produktuak eskaintzen dituzten saltokiak agertu dira. Bestalde, talde horren bame ofizialki irekitzen diren tabako dendak ere badaude.

(2) Etxetresnak, ontziteria, burdinkiak, etab.



Merkataritza jarduerak eta enpresak

Merkataritza jardueraren bilakaera

Soldatapeko enplegua

Etxeetan egindako kontsumoa

Sektorearen salmentak

1 • 2

## El comercio interindustrial aglutina el mayor número de licencias mayoristas

Handizkarietara dagokionez, industria arteko merkataritzak lizentzia gehien (529) biltzen ditu, eta horren atzetik, luzera kontsumitu daitezkeen produktuen (359) eta nekazaritzako lehengaien merkataritzaren sailek (324). Handizkarien hiru merkataritza jardura hauek bilakaera kaskarra izan dute 2011n: 30, 17 eta 12 lizentzia gutxiago, hurrenez hurren. Farmazia produktuen eta etxerako gaien banatzaile handizkariak ere gutxitu dira urte horretan, gainerako handizkarien merkataritza jarduerak ez bezala.

Merkataritzaren sektoreari lotutako enpresa jardueren heren bat soldatapeko langileak dituzten enpresak dira.

Horrela, gutxienez soldatapeko langile bat duten enpresak –hau da, Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean izena emanda dagoen langile bat gutxienez dutenak– 3.059 dira. 2011. urtean sektorearen jarduerak izan duen ahultasun bera agertu du enpresen kopuruak.

Horri jarraiki, 55 enpresa galdu dira: -% 1,8. Beherakada hori, gainera, aurreko urtekoa baino nabarmenagoa izan da (orduan, 22 enpresa galdu ziren, -% 0,7). Hortaz, bai jardura ekonomikoa, bai lan-merkatua kaskartuz doazen heinean, herritarrek gero eta itxaropen gutxiago dute egoerak onera egingo duela. Konfiantza maila hain kaltetua dagoen testuinguru honetan, Hiribilduaren merkataritza sektoreko enpresa-sarea txikiagotzen ari da.

Enpresa-sarearen ahultze hori berdin gertatu da txikizkarien zein handizkarien artean. 2011. urte amaieran, zehazki esateko, txikizkarietara aurreko urtean baino 2.016,36 enpresa gutxiago zituzten (-% 1,8). 2010ean, berriz, 14 enpresa baino ez ziren galdu urtetik urtera.

Bestalde, soldatapeko langile bat gutxienez daukaten handizkarien enpresak 813 izan dira 2011. urte bukaeran (19 enpresa gutxiago, -% 2,3).

Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan lan egiten duten enpresak 230 izan dira. 2010eko zenbatekoa egonkor mantendu delako da aipatzekoa azpisektore hori, urte horretan 8 enpresa galdu zirenetik ez baita bestelako gorabeherarik egon.

Banaketa komertzialaren sektoreko gainerako jarduerak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean zein autonomoen araubidean izena emanda dauden pertsonekin garatzen dira.

## Soldatapeko langileak dituzten enpresak

	2009	2010	2011	% 2011/10
<b>Soldatapeko langileak dituzten enpresak</b>	3.166	3.114	3.059	-1,8
<i>Txikizkariak</i>	2.066	2.052	2.016	-1,8
<i>Handizkariak</i>	862	832	813	-2,3
<i>Ibilgailuen salmenta eta konponketa</i>	238	230	230	0,0

Abenduko urte osoko datuak.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

2011. urte bukaeran, merkataritzaren sektorean ziharduten autonomoak 6.443 ziren Hiribilduan. Horiengan ere izan du eraginik sektorearen egoera traketsak, urtean zehar 41 gutxiago egon dira eta (-% 0,6). Aurreko urtean antzeko beherakada gertatu zen, 2010etik 2011ra 56 langile autonomo galdu baitziren sektorean.

Joera, beraz, negatiboa da, bai txikizkarien artean, bai handizkarien artean. Zehazki esanda, 33 langile autonomo txikizkari gutxiago (-% 0,8) ibili dira banaketa jardueretan Hiribilduan. Autonomo handizkarien artean, berriz, 11 pertsona gutxiago zenbatu dira (-% 0,7).

Testuinguru ekonomiko zail honetan, motordun ibilgailuen salmenta eta konponketak gora egin du, gutxi izan bada ere; hots, aurreko urtearekin alderatuta, pertsona gehiagok egin du lan jardura horretan.

## Autonomoen Araubide Berezian izena emanda dauden langileak. Merkataritza

	2009	2010	2011	% 2011/10
<b>Autonomoen Araub. Berez. afiliat.</b>	6.540	6.484	6.443	-0,6
<i>Txikizkariak</i>	4.293	4.307	4.274	-0,8
<i>Handizkariak</i>	1.745	1.691	1.680	-0,7
<i>Ibilgailuen salmenta eta konponketa</i>	502	486	489	0,6

Abenduko urte osoko datuak.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.



Merkataritza jarduerak eta enpresak

Merkataritza jardueraren bilakaera

Soldatapeko enplegua

Etxeetan egindako kontsumoa

Sektorearen salmentak

## Merkataritza jardueraren bilakaera

*2011n galdutako txikizkarien lizentzien kopuru garbia 72koa izan da. Handizkarien lizentzien datua ez da askoz hobea izan (- 48)*

Merkataritzaren sektorean aldaketa ugari izan da azkenaldian, hainbat faktorek bultzatuta: batetik, egungo egoera ekonomikoa, ez baitu negozio berriak irekitzen batere laguntzen, eta askok itxi behar izan baitute. Bestetik, sektorearen beraren ezaugarriak, hala nola establezimenduen jabeek erretiroa hartzea eta negozioa inoren esku ezin uztea. Gainera, sektoreko alor guztiek berezko aldaketak bizi dituzte, bakoitzak bere neurrian, eta horien arabera ere joerak aldatuz joaten dira.

Txikizkarien artean 907 pertsonaren alta eta beste 979ren baja erregistratu da: 2011n galdutako lizentzia kopuru garbia 72koa izan da, beraz. Handizkariari dagokionez, altak 219 izan dira, eta bajak 267. Ondorioz, saldoa negatiboa da, 48 lizentzia gutxiagokoa. Informazio hori guztia jardueraz jarduera aztertuz gero, baimen kopurua oro har jaitsi dela ageri da, salbuespenak salbuespen (Elikagai, edari eta tabako saltzaile txikizkariak, Farmazia, edertasun eta drogeria produktuen txikizkariak, Saltegi handi eta bazarrak, Ortopedia eta medikuntza tresnen saltzaileak, etab.).

### Merkataritza jardueretan egindako altak eta saldo garbia

	2009	2010	% 2011/10	Saldo neto 2011
<i>Txikizkarien jardueren altak</i>	864	907	5,0	-72
<i>Elikagaiak, edariak, tabakoa</i>	299	325	8,7	7
<i>Jantzi eta oinetakoak</i>	162	171	5,6	-15
<i>Farmazia, edertasun eta drogeria prod.</i>	51	43	-15,7	4
<i>Etxetresnak eta eraikuntza</i>	105	113	7,6	-32
<i>Saltegi handiak, bazarrak</i>	47	38	-19,1	8
<i>Altzariak, bulegoetarako gaiak</i>	17	10	-41,2	-13
<i>Liburuak, egunkariak...</i>	41	39	-4,9	-19
<i>Bitxiak</i>	21	24	14,3	-6
<i>Jostailuak, kirol gaiak</i>	12	20	66,7	-4
<i>Medikuntzako tresnak, ortopedia</i>	8	16	100,0	9
<i>Loradendak eta antzekoak</i>	13	9	-30,8	-8
<i>Establezimenduetatik at egindako salmentak</i>	46	47	2,2	7
<i>Gainerakoak</i>	42	52	23,8	-10
<b><i>Handizkarien jardueren altak (kop.)</i></b>	<b>173</b>	<b>219</b>	<b>26,6</b>	<b>-48</b>
<i>Handizkako merkataritza</i>	141	173	22,7	-61
<i>Nekazaritzako lehengaiak</i>	39	34	-12,8	-12
<i>Zuntzak eta ehungintzako gaiak</i>	7	18	157,1	3
<i>Farmazia prod. eta etxerako gaiak</i>	13	12	-7,7	-12
<i>Luzera kontsumitu daitezkeen prod.</i>	24	30	25,0	-17
<i>Industria arteko merkataritza</i>	28	43	53,6	-30
<i>Beste handizkari batzuk</i>	30	36	20,0	7
<i>Produktuen berreskuratzea</i>	8	14	75,0	3
<i>Bitartekari komertzialak</i>	24	32	33,3	10

Lizentzia kopurua. Azken hiruhilekoko urteko datuak.

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia, Ekonomia jardueren gaineko zerga.



Merkataritza jarduerak eta enpresak

Merkataritza jardueraren bilakaera

Soldatapeko enplegua

Etxeetan egindako kontsumoa

Sektorearen salmentak

## Soldatapeko enplegua

Merkataritzaren sektorea da langile gehien enplegatzen dituen sektorea Bilboko Hiribilduan. 2011. urte amaieran, Hiribilduko merkataritza enpresetan lan egiten duten 22.372 pertsona zegoen izena emanda Gizarte Segurantzari. Guztira, Bilboko enplegatu guztien % 13 dira, azken urteetan lortutako datu bera, gutxi gorabehera.

2011n sektorean bizi izandako gorabeheren eraginez, baina, bertan enplegatuta daudenen egoera ere zeharo okertu da. 2011n 584 soldatapeko langile gutxiago zenbatu dira (-% 2,5). Datu esanguratsua da hori; batez ere, kontuan hartzen badugu aurreko urtean 112 langile galdu zirela.

Sektoreko enpleguaren % 66 txikizkariak eskaintzen dute (14.859 lagun, guztira), eta % 26, handizkariak enpresek (5.894). Gainerako % 8 motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan dihardutenei dagokie (1.619). Batzuek zein besteek lanpostuak galdu dituzte 2011n: txikizkariak, 390 langile; handizkariak, 185; eta motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan lan egiten dutenak 9 pertsona gutxiago izan dira.

Hortaz, esan daiteke krisiak merkataritzaren sektoreari ekarri dion kaltea azpi-sektore guztietara hedatu dela, eta eragin hori antzekoa izan dela txikizkariak eta handizkariak artean, batzuen eta besteen enpleguen galera adierazten duten ehunekoei erreparatuta.

Lan-harremanei dagokienez, agerikoa da enpleguaren beherakada ez dela sail guztietan neurri berean nozitu. Soldatapekoen lanpostuen kopurua (guztirakoaren % 71) % 3,3 murriztu da (543 pertsona gutxiago); eta autonomoak, lehen esan bezala, % 0,6 gutxiago izan dira (-41).

Beraz, argi dago 2011n lanpostuen galera handiena soldatapekoen artean gertatu dela: % 93, alegia, nahiz eta aurreko urtean sail horretako lanpostu kopurua bere horretan mantendu zen. Datu horretatik atera daitekeen ondorioa zera da, autonomoek atzerapen ekonomikoari egokitzeko gaitasun handiagoa izan dutela.

### Enplegatuak

	2009	2010	2011	% 2011/10
<b>Enplegatuak</b>	<b>23.068</b>	<b>22.956</b>	<b>22.372</b>	<b>-2,5</b>
<i>Txikizkariak</i>	<i>15.011</i>	<i>15.249</i>	<i>14.859</i>	<i>-2,6</i>
<i>Handizkariak</i>	<i>6.359</i>	<i>6.079</i>	<i>5.894</i>	<i>-3,0</i>
<i>Ibilgailuen salmenta eta konponketa</i>	<i>1.698</i>	<i>1.628</i>	<i>1.619</i>	<i>-0,6</i>
<b>Soldatapeko langileak</b>	<b>16.527</b>	<b>16.472</b>	<b>15.929</b>	<b>-3,3</b>
<b>Langile autonomoak</b>	<b>6.540</b>	<b>6.484</b>	<b>6.443</b>	<b>-0,6</b>

Abenduko urte osoko datuak.

Gizarte Segurantzari izena emanda dauden pertsonak.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzari Ministerioa.



Merkataritza jarduerak eta enpresak
Merkataritza jardueraren bilakaera
Soldatapeko enplegua
<b>Etxeetan egindako kontsumoa</b>
Sektorearen salmentak

## Etxeetan egindako kontsumoa

Esandakoez gain, beste faktore batzuek ere izan dute zerikusirik merkataritzaren sektorearen bilakaeran; esaterako, familien kontsumoaren geldotasuna, baldintza ekonomikoen okertzearen ondorioz etorri dena, itxaropen ekonomikoen eta enpleguaren gainbeherarekin eta familien aberastasunaren –finantzarioa eta ez-finantzarioa– gaitzearekin batera.

Datu ofizialen arabera, Autonomia Erkidegoan % 0,6 besterik ez da igo familien kontsumoa 2011. urtean. Gainera, adierazle horrek nahiko gorabehera izan du urtean zehar, eta lehen sei hilekoan tasa positiboak izan baditu ere, urtearen bigarren zatian tasa negatiboetaraino jaitsi da.

Beste adierazle batek, kontsumitzaileen konfiantza maila neurtzen duenak, ez du egoera samurragorik irudikatzeko biderik ematen: kontsumitzaileek antzematen dituzten aukera ekonomikoak eskasak dira oso, bai orokorrean, bai maila pertsonalean. Esan beharra dago, adierazle horrek orain arte ere erakutsi duela balio baxu franko (lehen ere etorkizun ekonomikoarekiko ezkortasuna nagusi zen seinale). Hala ere, 2011. urtean % 3,6 egin du atzera adierazle horrek, eta nabarmen okertu dira tasa negatiboak, hiruhilekoak igaro ahala.

Familien eskaera ahulak zuzeneko eragina izan du, beraz, merkataritzaren sektorean. Horregatik, salmenta nominalak Bizkaian % 0,8 besterik ez dira igo. Aurreko urtean % 4,2 igo zirela kontuan hartuta, onartu behar da 2011. urteko dezelerazioa nabarmena izan dela. Eta 2010eko datuarekin ez ezik, aurreko urteetakoekin ere alderatuta –egungo krisi ekonomikoa hasi orduko garaietakoekin–, salmenten adierazleak askoz atzerago geratu dira 2011n, jarraian ikusiko dugunez.

Bizkaiko familien kontsumoaren zati handi bat establezimendu komertzialetara doa; gutxienez, % 36,3. Horrela, bada, gastu potoloena elikagai eta edari alkoholgabeetan egiten da: % 17,4, alegia; % 8,7, jantzi eta oinetakoetan; % 7,9, etxeko ontziterian, eta % 2,4, edari alkoholodunetan eta tabakoan. Gastu horiei mediku zerbitzuetan, kultural eta establezimendu komertzialetan egiten diren beste batzuk gehitu behar zaizkie.

2011n, kontsumitzaileek aurreko urteetan baino diru gehiago gastatu dute etxebizitzan, baita garraio eta komunikazioetan ere (azken atal horretan gastua ez da aurrenekoan bezainbeste igo). Alderantziz, bestelako kontzeptuetan gutxiago gastatu dute; hala nola hotel, kafetegi eta jatetxeetan, eta batez ere, aisialdi eta kultura jardueretan.

## Merkataritza sektoreko salmentak % 0,8 igo dira 2010eko datuarekiko; dezelerazioa agerikoa izan da, beraz.

### Kontsumo adierazleak

	2009	2010	2011
Etxeetan egindako kontsumoa (bolumena)	-3,9	0,9	0,6
Kontsumitzailearen konfiantza (adierazlea)	-2,6	10,7	-3,6
Merkataritzaren salmentak (prezio korronteak)	-14,9	4,2	0,8
Merkataritzaren prezioak (adierazlea)	3,1	1,8	0,4

Urtetik urterako aldakuntza tasak. Bizkaiko datuak, etxeetan egindako kontsumoa izan ezik (Autonomia Erkidegoko datua). Iturria: Eustat, EIN eta Euskadiko eta Nafarroako Aurrezki Kutxen Federazioa.

### Etxeetan egindako kontsumo gastuaren xehetasunak

	2011
Orokorra	100,0
Elikagaiak eta edari alkoholgabeak	17,4
Edari alkoholodunak eta tabakoa	2,4
Jantzi eta oinetakoak	8,7
Etxebizitza	10,3
Etxeko hornidura	7,9
Medikuntza	2,7
Garraioa	13,5
Komunikazioak	3,9
Aisialdia eta kultura	8,4
Irakaskuntza	2,0
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	13,3
Beste ondasun eta zerbitzu batzuk	9,5

Bizkaiko datuak. KPIren haztapenak, %-tan. Iturria: EIN.



Merkataritza jarduerak eta enpresak
Merkataritza jardueraren bilakaera
Soldatapeko enplegua
Etxeetan egindako kontsumoa
<b>Sektorearen salmentak</b>

## Sektorearen salmentak

### Bilbon sektore horretan dauden hiru lanpostutik bi txikizkarietara dagozkie

Jakina denez, merkataritzaren sektorean txikizkarien eta handizkarien jarduerak daude. Txikizkariak salgaiak euren kontura eta euren izenean erosi eta azken kontsumitzaileari berriro saltzen dizkioten establezimendu komertzial guztiak dira. Handizkariak, berriz, beste enpresa komertzial batzuei edo profesionaleri berriz saltzeko erosten dituzte salgaiak. Sektorearen barne sartzan dira, baita ere, motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa establezimenduak.

Bilboko Hiribilduan jarduera batzuek eta besteek zer-nolako garrantzia duten jakiteko, enplegatuen ehunekoei erreparatu besterik ez dago: txikizkariak sektore guztian enplegatutako % 66,4ri ematen diote lana; handizkariak, aldiz, % 26,3 enplegatzen dute. Eta, azkenik, % 7,2 motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa enpresetan dihardute.

Bilboko eskaintza komertziala, metropolian eta lurralde historiko osoan zabaltzeaz gain –Bilboko eskaintza espezializatuagoa delako eta lurraldearen erdigune komertziala delako–, Hiribildua bisitatzen dutenen eskura dago, baita ere. Normala da, beraz, Bizkaian sektore honetan lan egiten dutenen erdia ia (% 45) Bilboko establezimendu komertzialetan aritzea. Datu horrek aise gainditzen du, gainera, hiriari dagokion biztanleen kuota erlatiboa (% 31).

### Txikizkarien salmentak % 0,1 jaitsi dira, elikaduraz kanpoko produktuen beherakadaren eraginez

2011ko bilakaera koiunturalari dagokionez, txikizkarien eta handizkarien salmentak % 0,8 igo dira Bizkaian euro korranteetan. Hazkunde-tasa hori dezelerazioaren erakusgarri da, aurreko urtean % 4,1 igo baitziren salmentak. Txikizkarien aldetik, datu negatiboa jaso da: -% 0,9; handizkariak, berriz, % 2,1 gehiago saldu dute.

Txikizkarien salmentak elikaduraz kanpoko produktuak saltzen dituztenen artean murriztu dira, gehienbat; elikagaiak saltzen dituztenek, aldiz, negozio-zifra bere horretan mantentzea lortu dute. Azpisektore horretan, nabarmentzekoa da, baita ere, saltegi handietan (salmentarako 2.500 metro koadroko edo hortik gorako azalera daukaten establezimenduak) salmentak gutxitu direla. Azken horiek % 3,1eko beherakada izan dute salmentetan; batik batik, elikaduraz kanpoko salgaietan.

Handizkariak, ordea, % 2,1 gehiago saldu dute 2011n, goian aipatu bezala. Edonola ere, aldea dago jarduera batzuen eta besteen bilakaeraren artean, azpisektore berean egon arren: kasurako, produktu erdilanduak oso ongi saldu dira (2010ean baino % 5,8 gehiago). Hainbeste igo ez badira ere, salmenta onak izan dituzte nekazaritzarako produktu eta elikagaiak eta makineria eta ekipamendu-ondasunak hornitzen dituzten handizkariak. Elikaduraz kanpoko produktuen handizkariak, berriz, gutxiago saldu dute, oro har.

### Merkataritza sektorearen salmentak

	2009	2010	2011	% 2011/10
<i>Salmenta adierazlea</i>	100,0	104,1	104,9	0,8
<i>Txikizkariak</i>	..	99,9	99,0	-0,9
<i>Elikagaiak</i>	..	100,0	100,0	0,0
<i>Gainerako produktuak</i>	..	99,8	97,5	-2,3
<i>Saltegi handiak</i>	..	100,1	97,0	-3,1
<i>Elikagaiak</i>	..	100,1	99,8	-0,3
<i>Gainerako produktuak</i>	..	100,1	95,8	-4,3
<i>Handizkariak</i>	99,2	105,4	107,6	2,1
<i>Nekazaritzako prod. eta elikagaiak</i>	116,0	111,4	114,5	2,8
<i>Elikaduraz kanpoko kontsumoa</i>	103,2	104,4	99,1	-5,1
<i>Erdilanduak</i>	83,2	101,1	107,0	5,8
<i>Makineria eta ekipamendua</i>	106,9	106,4	108,2	1,7

Bizkaiko adierazleak (oinarrizko urteak: 2005 eta 2010=100). Prezio korranteetan emandako datuak, egutegiaren berezko gorabeherak zuzenduta.  
Iturria: Eustat.

## Jarduera komertzialak txikizkariak

	2009	2010	2011
<b>Komertzialak txikizkariak</b>	<b>6.979</b>	<b>7.058</b>	<b>6.986</b>
<i>Elikagaiak, edariak, tabakoa</i>	1.998	2.032	2.039
<i>Jantzi eta oinetakoak</i>	1.426	1.462	1.447
<i>Farmazia, edertasun eta drogeria prod.</i>	445	465	469
<i>Etxetresnak eta eraikuntza</i>	1.139	1.127	1.095
<i>Saltegi handiak, bazarrak</i>	178	193	201
<i>Altzariak, bulegoetarako gaiak</i>	238	231	218
<i>Liburuak, egunkariak</i>	402	402	383
<i>Bitxiak</i>	185	187	181
<i>Jostailuak, kirol gaiak</i>	143	140	136
<i>Medikuntzako tresnak, ortopedia</i>	130	128	137
<i>Loradendak eta antzekoak</i>	95	95	87
<i>Establezimenduetatik at egindako salmentak</i>	230	218	225
<i>Gainerakoak</i>	370	378	368

Lizentzia kopurua. Azken hiruhilekoko urteko datuak.

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

Jarduera komertzialak txikizkariak  
 Jarduera komertzialak handizkariak  
 Soldatapeko langileak dituzten enpresak  
 Autonomoen Araubide Berezian izena emanda dauden langileak. Merkataritza  
 Enpleguak

Merkataritza jardueretan egindako altak eta saldo garbia

## Jarduera komertzialak handizkariak

	2009	2010	2011
<b>Komertzialak handizkariak</b>	<b>2.120</b>	<b>2.157</b>	<b>2.109</b>
<i>Nekazaritzako lehengaiak</i>	324	336	324
<i>Zuntzak eta ehungintzako gaiak</i>	136	139	142
<i>Farmazia prod. eta etxerako gaiak</i>	106	118	106
<i>Luzera kontsumitu daitezkeen prod.</i>	373	376	359
<i>Industria arteko merkataritza</i>	564	559	529
<i>Beste handizkari batzuk</i>	249	254	261
<i>Produktuen berreskuratzea</i>	73	75	78
<i>Bitartekari komertzialak</i>	295	300	310

Lizentzia kopurua. Azken hiruhilekoko urteko datuak.  
 Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

## Empresas con personal asalariado

	2009	2010	2011
Soldatapeko langileak dituzten enpresak	3.166	3.114	3.059
Txikizkariak	2.066	2.052	2.016
Handizkariak	862	832	813
Ibilgailuen salmenta eta konponketa	238	230	230

Abenduko urte osoko datuak.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

## Autonomoen Araubide Berezian izena emanda dauden langileak. Merkataritza

	2009	2010	2011
<i>Autonomoen Araub. Berez. afiliat.</i>	6.540	6.484	6.443
<i>Txikizkariak</i>	4.293	4.307	4.274
<i>Handizkariak</i>	1.745	1.691	1.680
<i>Ibilgailuen salmenta eta konponketa</i>	502	486	489

Abenduko urte osoko datuak.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa.

Jarduera komertzialak txikizkariak  
 Jarduera komertzialak handizkariak  
 Soldatapeko langileak dituzten enpresak  
 Autonomoen Araubide Berezian izena emanda dauden langileak. Merkataritza  
 Enpleguak

Merkataritza jardueretan egindako altak eta saldo garbia

## Enpleguak

	2009	2010	2011
<b>Enpleguak</b>	<b>23.068</b>	<b>22.956</b>	<b>22.372</b>
<i>Txikizkariak</i>	15.011	15.249	14.859
<i>Handizkariak</i>	6.359	6.079	5.894
<i>Ibilgailuen salmenta eta konponketa</i>	1.698	1.628	1.619
<b>Soldatapeko langileak</b>	<b>16.528</b>	<b>16.472</b>	<b>15.929</b>
<b>Langile autonomoak</b>	<b>6.540</b>	<b>6.484</b>	<b>6.443</b>

Abenduko urte osoko datuak.

Gizarte Segurantzaren izena emanda dauden pertsonak.


Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

## Merkataritza jardueretan egindako altak eta saldo garbia

	2010	2011	% 2011/10
<i>Txikizkarien jardueren altak</i>	864	907	5,0
<i>Elikagaiak, edariak, tabakoa</i>	299	325	8,7
<i>Jantzi eta oinetakoak</i>	162	171	5,6
<i>Farmazia, edertasun eta drogeria prod.</i>	51	43	-15,7
<i>Etxetresnak eta eraikuntza</i>	105	113	7,6
<i>Saltegi handiak, bazarrak</i>	47	38	-19,1
<i>Altzariak, bulegoetarako gaiak</i>	17	10	-41,2
<i>Liburuak, egunkariak...</i>	41	39	-4,9
<i>Bitxiak</i>	21	24	14,3
<i>Jostailuak, kirol gaiak</i>	12	20	66,7
<i>Medikuntzako tresnak, ortopedia</i>	8	16	100,0
<i>Loradendak eta antzekoak</i>	13	9	-30,8
<i>Establezimenduetatik at egindako salmentak</i>	46	47	2,2
<i>Gainerakoak</i>	42	52	23,8
<i>Handizkarien jardueren altak (kop.)</i>	173	219	26,6
<i>Handizkako merkataritza</i>	141	173	22,7
<i>Nekazaritzako lehengaiak</i>	39	34	-12,8
<i>Zuntzak eta ehungintzako gaiak</i>	7	18	157,1
<i>Farmazia prod. eta etxerako gaiak</i>	13	12	-7,7
<i>Luzera kontsumitu daitezkeen prod.</i>	24	30	25,0
<i>Industria arteko merkataritza</i>	28	43	53,6
<i>Beste handizkari batzuk</i>	30	36	20,0
<i>Produktuen berreskuratzea</i>	8	14	75,0
<i>Bitartekari komertzialak</i>	24	32	33,3

Lizentzia kopurua. Azken hiruhilekoko urteko datuak.  
 Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia, Ekonomia jardueren gaineko zerga.

## 5. kapitulua *Turismoa*



Turismo jarduera  
Biltzar eta bileren turismoa





## Turismo jarduera

Biltzar eta bileren turismoa

## Bilboko turismo jarduera

Etorritako bidaiarien kopurua eta ostatu-gauak

Itsas bidaldietako turismoa

## Turismo jarduera

## Bilboko turismo jarduera

Bilbok indar handia du turismoa erakartzeko; urtetik urterako datuek hala erakusten dute. Kalitatezko eskaintza du, oso profesionala, bai eta Hiribilduari berezko nortasuna eranstean dioten azpiegiturak ere; denak ere, biltzar eta bilereana bezalako merkatu lehiakorretan behar-beharrezkoak diren ezaugarriak.

Turismoaren alorreko ostatu zerbitzuetako azpiegiturei dagokienez, 2011ko amaieran 61 ziren horretan ziharduten enpresak, eta 1.235 lanpostu zuzen sortzen zituzten. Zifra horiek, mantendu ez ezik, hobetu ere egin dira, egungo egoera ekonomikoak lagundu ez arren. Jarduera ekonomikoa garatzeko lizentziei begira, hona hemen baimenen banaketa, 2011. urte bukaeran: hotel eta motelak, 34; ostatu eta ostatu-etxeak, 44; ostatu zerbitzuak ematen dituztenak, 12. Hurrengo taulan ageri denez, eskaintza ia ez da aldatu azken hiru urteotan.

Eustaten Ostatu establezimenduen gaineko estatistikaren arabera, Bilbon 57 establezimendu egon dira 2011n: 3 izar edo gehiagoko 22 hotel, eta izar bakarra edo 2 izar dituzten 35 hotel eta ostatu. Guztira, 3.808 gela eskaintzen dituzte, 7.118 pertsonentzako lekua. Horien % 80 kategoria handieneko segmentukoak dira (gutxienez, 3 izarrekoak). Hiribilduko ostatuen batez besteko neurria 125 lekukoa da; 3, 4 edota 5 izarretako hoteletan, 260koa, eta izar 1 edo 2ko hotel eta ostatu-etxeen kasuan, 40 lekukoa.

Koadroak Hiribilduko hotel eskaintza handitu dela erakusten du: 2 establezimendu gehiago dago 2010eko datuarekiko. Eskuragarri dauden gela eta plazei dagokienez, 3 izar edo gehiagokoen artean baino ez du gora egin eskaintakoen kopuruak.

*Bilboko hotelen eskaintza 57 establezimenduk osatzen dute, 2010ean baino 2k gehiagok*

## Ostatu jarduerak (baimenak)

	2009	2010	2011	% 2011/10
<i>Ostatu zerb. baimenak, guztira</i>	94	97	98	0,0
<i>Hotel eta motelak</i>	33	33	34	3,0
<i>Ostatu eta ostatu-etxeak</i>	44	45	44	-2,2
<i>Jatetxe-ostatuak</i>	12	14	12	-14,3
<i>Gainerakoak</i>	5	5	8	33,3

Laugarren hiruhilekoko datuak.

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia (Ekonomia jardueren gaineko zerga).

## Hotelen eskaintza

	2009	2010	2011	% 2011/10
<i>Guztirako establezimenduak</i>	53	55	57	3,6
<i>3, 4 edo 5 izarreko hotelak</i>	20	21	22	4,8
<i>Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatu-etxeak</i>	33	34	35	2,9
<i>Plazak, guztira</i>	6.703	7.074	7.118	0,6
<i>3, 4 edo 5 izarreko hotelak</i>	5.305	5.658	5.718	1,1
<i>Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatu-etxeak</i>	1.397	1.416	1.400	-1,1
<i>Gelak, guztira</i>	3.570	3.780	3.808	0,7
<i>3, 4 edo 5 izarreko hotelak</i>	2.805	3.005	3.046	1,3
<i>Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatu-etxeak</i>	765	775	763	-1,5

Iturria: Eustat.



Turismo jarduera

Biltzar eta bileren turismoa

Bilboko turismo jarduera

Etorritako bidaiarien kopurua eta ostatu-gauak

Itsas bidaldietako turismoa


## Etorritako bidaiarien kopurua eta egindako gauak

### Etorritako bidaiariak

2011ko balantzea ona izan da, oro har, Bilboko hotelen jarduerari dagokionez. Zehazki, 726.000 bidaiari hartu dituzte, eta horiek, guztira, 1.386.219 gau egin dituzte; hau da, % 6,1 eta % 8,2 gehiago, hurrenez hurren, 2010. urtearekin alderatuta.

Bidaiarien kopurua inoizko handiena izan da<sup>1</sup>, 2009tik hona sektoreak bizi izan duen suspertzearen ildotik. Joera horrek berretsi egiten du, beraz, Bizkaiko hiriburua hazteko aukera handiak dituen xede turistikoa dela.

Etorritako bidaiari kopuruen bilakaera



Iturria: Eustat.

## Hotelen jardueran inoizko daturik handienak lortu dira, bidaiarien zein ostatu-gauen kopuruetan

### Jatorria

Bilboko hoteletan ostatu hartu duten bidaiarien ia bi heren estatutik etorritakoak izan dira (% 64,8): guztira, 470.266. Azken urte honetan, gainera, nabarmenagoa izan da estatuko bidaiarien kopurua guztirako datuarekiko: % 6,7 gehiago, 2010ekoarekin erkatuta. Multzo horretan, aurtan ere, gehienak Madrilgo Erkidegokoak izan dira: ia estatu osoko laurdena (% 23,1). Eta ondoren, Kataluniakoak (% 17,7), Andaluziakoak (% 6), Gaztela eta Leongoak (% 5,3) eta Valenziakoak (% 4,8).

Nolanahi ere, atzeritik etorritakoak ez dira atzean geratu, eta azken urtean gora egin du horien kopuruak: % 5,1. Guztira, 255.734 turista atzeritar etorri da 2011n (zifra absolutuetan, 2010ean baino 12.393 gehiago). Jatorriaren arabera, gehienak Frantziatik etorri dira (guztien % 17,7), eta askoz gutxiago, Alemaniatik (% 9,5), Italiatik (% 9,5) edo Erresuma Batutik (% 9,4).

## Estatuko beste eskualde batzuetatik etorritakoak turista guztien bi heren dira, ia-ia

(1) 2011ko datua 2001eko bidaiarien (382.257) kopuruaren halako bi izan da, ia-ia.

### Etorritako bidaiariak, jatorriaren arabera

	2009	2010	2011	% 2011/10
Etorritako bidaiariak	615.545	684.274	726.000	6,1
Estatukoak	408.021	440.933	470.266	6,7
Atzerrikoak	207.524	243.341	255.734	5,1

Iturria: Eustat.

### Bidaiari atzeritarren merkatu nagusiak (2011)

Estatukoak		Atzerrikoak	
Madril	23,1%	Frantzia	17,7%
EAE	19,8%	Alemania	9,5%
Katalunia	17,7%	Italia	9,5%
Andaluzia	6,0%	Erresuma Batua	9,4%
Gaztela eta Leon	5,3%	Iberoamerika	9,2%
Valentzia	4,8%	AEB-Kanada	7,5%

Iturria: Eustat.



## Turismo jarduera

Biltzar eta bileren turismoa

Bilboko turismo jarduera

Etorritako bidaiarien kopurua eta ostatu-gauak


Itsas bidaldietako turismoa

## Ostatu-gauak

Halaber, 2011n Bilbora etorri diren bisitariak egin dituzten ostatu-gauei begira, inoizko daturik onenak izan dituzte Hiribilduko hotel eta ostatu-etan: guztira 1.386.219 izan dira, 2010ean baino 104.698 gehiago (% 8,2 igo da datua). Beraz, bidaiarien datuetan ikusitakoaren ildotik, estatu barneko bidaiariak izan dira gau gehien gure artean egin dituztenak: 2011n, 872.325. Atzerri-tarrak 513.894 gau egin dituzte; beraz, % 62,9 eta % 37,1, hurrenez hurren.

Ikus daitekeenez, ostatu-gauen datuek etorritako bidaiarien kopuruak baino bilakaera hobea izan dute. Horrek esan nahi du bidaiarien egonaldiak gero eta luzeagoak direla (2011, 1,91 egun). 2 eguneko egonaldietako muga gaintzea oraindik ez da lortu, ordea. Plaza kopuruaren araberako okupazio maila, berriz, 2010eko % 49,6tik 2011ko % 53,4ra pasatu da.

## Bidaiarien ostatu-gauen kopuruaren bilakaera



Iturria: Eustat.

## Ostatu-gau guztien % 81,3 izar edo gehiagoko hoteletan egin dira

Azkenik, establezimenduen kategoriarri erreparaturata, zera ageri da: 2011n gaua egin duten bisitarien % 81ek 3, 4 edo 5 izarreko hotelak aukeratu dituela horretarako. Berez ehuneko esanguratsua izateaz gain, azken urtean igo egin da, 3 izar edo gutxiagokoetan egindako ostatu-gauen kopuruarekin alderatuta (urtetik urtera, % 9,0 hazi da lehenean kopurua, eta % 4,6 besterik ez, bigarrenena).

## Batez besteko egonaldiak eta plazaren araberako okupazio maila

	2009	2010	2011	% 2011/10
Batez besteko egonaldia	1,83	1,87	1,91	0,04 pp
Okupazio maila (%)	46,0	49,6	53,4	3,8 pp

Iturria: Eustat.

Bilboko hoteletan emaitza ezin hobekak lortu dituzte 2011. urtean, esan bezala. Hain zuzen ere, Euskal Herriko beste hiriburuarekin alderatuta, Bilbok bisitarien erdia (% 50) hartzen eta guztirako ostatu-gauen erdia (% 49) bereganatzen jarraitzen du (2010ean, % 49 eta % 48, hurrenez hurren). Vitoria-Gasteizen ere emaitza onak lortu dira, bisitarien kopuruetan zein ostatu-gauenetan berdin igo direlako urtetik urterako datuak: % 7,9 eta % 9,9, hurrenez hurren. Donostia-San Sebastiánen, berriz, bidaiarien kopuruak atzera egin du % 1,0, nahiz eta ostatu-gauena pittin bat igo den (% 0,8).

## Ostatu-gauak, bidaiarien jatorriaren arabera

	2009	2010	2011	% 2011/10
Ostatu-gauak	1.125.047	1.281.521	1.386.219	8,2
Estatukoak	706.040	803.418	872.325	8,6
Atzerrikoak	419.007	478.103	513.894	7,5
3, 4 edo 5 izarreko hotelak	908.702	1.029.462	1.122.578	9,0
Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatu-etxeak	216.345	252.059	263.641	4,6

Iturria: Eustat.

## Bidaiari eta ostatu-gau kopuruak hiriburu- eta ostatu-etan

	2009	2010	2011	% 2011/10
Bidaiariak euskal hiriburu- eta ostatu-etan	1.225.741	1.393.020	1.448.940	4,0
Vitoria-Gasteiz	191.724	237.658	256.455	7,9
Donostia-San Sebastián	418.472	471.088	466.485	-1,0
Bilbo	615.545	684.274	726.000	6,1
Ostatu-gauak euskal hiriburu- eta ostatu-etan	2.296.241	2.644.556	2.801.323	5,9
Vitoria-Gasteiz	350.244	452.818	497.842	9,9
Donostia-San Sebastián	820.950	910.217	917.262	0,8
Bilbo	1.125.047	1.281.521	1.386.219	8,2

Iturria: Eustat.



## Itsas bidaldietako turismoa

### *Itsas bidaldietako jarduerak aurrera bidean jarraitzen du*

Aurreko urteetako joeraren ildo beretik, itsas bidaldietako turismoak nabarmen egin du aurrera: 2010ean 33 itsas bidaldi antolatu baziren, 2011n 53 izan dira; inoizko daturik handiena (% 60,6ko igoera). Itsas bidaldiak kontratatu dituztenen kopurua ere % 78,2 igo da; guztira, 77.345 bidaiari (2010ean, 43.394).

Bestalde, esan beharra dago Bilboko Portua segidako bi urtez izan dela itsas bidaldien irteerako eta/edo helmugako portua, eta horrek bikoiztu egin du Getxoko terminalean ontziratu edo lehorreratu diren bidaiarien kopurua (% 108). Mota honetako trafikoa gorantz doala ikusita, Bilboko Portu Agintaritza itsas bidaldietarako terminal berria eraikitzeko lanak prestatzen ari da. Eginda dagoenean, Bilboko Portuak hirugarren amarraleku bat izango du halako ontzietarako Getxon dituen instalazioetan.

#### *Itsas bidaldietako jarduera*

	2009	2010	2011	% 2011/10
<i>Itsas bidaldiak</i>	30	33	53	60,6
<i>Bidaiariak</i>	28.899	43.394	77.345	78,2

Iturria: Bilboko Portua.



## Biltzar eta bileren turismoa

### Negozioetako turismoak bilakaera ezin hobea izan du azken urteetan

Biltzar eta bileren turismoaren sektorea estrategikoa da, eragin ekonomiko handiko bisitariak erakartzen dituelako, batetik, eta hiria bera negozioei lotutako turismo-helmuga gisa saltzen delako, bestetik.

Bilbao Convention Bureau-ko datuen arabera, 2011n 1.067 bilera egin dira Bilbon, biltzarrak, batzarrak eta jardunaldiak barne. Kopuru hori 2010eko datutik behera geratu dela onartu behar dugu (- % 2,3), baina ezin dugu txartzat jo, mota honetako jarduerak gaur egungo egoera ekonomikoan izan duten atzerakada aintzat hartuta. Are gehiago, 2011ko datuak 2007, 2008 eta 2009. urteetan erregistratutakoak gainditu dituela kontuan hartzen badugu.

Ekitaldi motari begira, jardunaldiak 2011n egindako guztien % 77,7 dira. 2010eko datuarekiko % 6,9 jaitsi dira (61 jardunaldi gutxiago egin dira). Biltzarrek (2011, 116) eta batzarrek (122), berriz, onera egin dute: % 17,2 eta % 18,4 gora, hurrenez hurren.

Bilbon biltzar, batzar eta jardunaldiak antolatzen dituzten sektoreak hauek dira: osasun- eta medikuntza-arloko jardueri lotutakoak (guztirakoen % 25,9 2011n), ekimen ekonomiko eta merkataritzakoak (% 19,10) eta teknologia eta/edo industriarekin (% 18,9) zerikusia dutenak. Aipatutako horiek jarduera guztien bi heren hartzen dituzte. Gainerakoak, gizarte- eta kultura-arloko ekimenak (% 14,8) edo herri administrazioek (% 7,0) eta unibertsitateak (% 5,5) bultzatutakoak dira, nagusiki.


Bestalde, Bilbon guztira egin diren bileretan 171.967 ordezkari eta parte-hartzaile bildu dira. Hortaz, 2010ean baino 6.009 pertsona gutxiago (- % 3,4) batu dituzte 2011ko ekimeneak, baina 2009an baino 15.000 bat lagun gehiago ere badira. Bileretako batez besteko iraupena 1,67 egunekoa izan da; alde horretatik ez da aldaketarik egon azken urteetan.

#### Biltzarrak eta bilerak

	2009	2010	2011	% 2011/10
<b>Bilerak</b>	1.021	1.092	1.067	-2,3
Biltzarrak	116	99	116	17,2
Bilerak	104	103	122	18,4
<b>Jardunaldiak</b>	801	890	829	-6,9
<b>Bertaratutakoak</b>	156.981	177.976	171.967	-3,4
<b>Batez besteko iraupena (egunak)</b>	1,69	1,68	1,67	-0,6

Iturria: Bilbao Convention Bureau.

#### Bilera eta ordezkari kopuruen bilakaera




Iturria: Bilbao Convention Bureau.



Orobat nabarmendu behar da sasoiak sasoiara antolatutako ekimenen kopuruetan ikusten den alde handia. Bileretako turismoan ohikoak dira halako gorabeherak: hilez hileko datuetan argi ikusten da hori. Beheko grafikoan ageri denez, Bilbon 2011n egin diren bileren erdia eskas (% 49) maiatzean, ekainean, urrian eta azaroan egin dira. Uztailean eta abuztuan, aldiz, % 4,5 besterik ez.

Nolanahi ere, gorabehera handi horiek Bilbok hartzen duen turismo orokorrarekin konpentsatzen dira –urte osoan zehar gero eta homogeneoagoa dena, bide batez esanda–. Horrela, bilera gutxiago dagoen hilabeteetan, opor- edo aisialdi-helburuekin datozenak gehiago izan ohi dira, sasoi sasoiako datuen grafikoak erakusten duen legez.

### Bileretako turismoaren eta turismo orokorraren datuak Bilbon, sasoi sasoi



Iturria: Bilbao Convention Bureau. Eustat.

Orain arte emandako datu guztiek ez dute zalantzarako tarterik uzten: 2011ko turismo jardueraren balantzea bikaina izan da Bilbon. Besteak beste, udal erakundeen sustapen lanaren emaitza da hori, euren helburu behinekoena Bilboko Hiribildua turismo eskaintzaren erreferente bihurtzea baita, estatuan zein nazioartean.

Horregatik, turismo jardueraren balio estrategikoaren eta eragin ekonomikoaren garrantziaz ohartuta, Bilbok ordezkari izan du 2011n nazioartean egin diren lehen mailako azoka eta ekimen turistiko hauetan: Imex América Azoka, Luxury Travel Market Nazioarteko Azoka, Parisko Meedex Azoka eta Fitur.

## Ordezkaritza sektoreko azoka eta ekimen garrantzitsuenetan

**Ostatu jarduerak (baimenak)**

	2009	2010	2011
<i>Ostatu zerb. baimenak, guztira</i>	94	97	98
<i>Hotel eta motelak</i>	33	33	34
<i>Ostatu eta ostatu-etxeak</i>	44	45	44
<i>Jatetxe-ostatuak</i>	12	14	12
<i>Gainerakoak</i>	5	5	8

Laugarren hiruhilekoko datuak.

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia (Ekonomia jardueren gaineko zerga).

**Hotelen eskaintza**

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
<i>Guztirako establezimenduak</i>	41	43	44	47	50	51	53	53	55	57
<i>3, 4 edo 5 izarreko hotelak</i>	15	18	19	21	21	21	21	20	21	22
<i>Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatu-etxeak</i>	26	25	25	26	29	30	32	33	34	35
<i>Plazak, guztira</i>	4.555	4.929	5.390	5.585	6.151	6.200	6.404	6.703	7.074	7.118
<i>3, 4 edo 5 izarreko hotelak</i>	3.732	4.086	4.563	4.764	5.161	5.182	5.215	5.305	5.658	5.718
<i>Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatu-etxeak</i>	823	843	826	821	990	1.019	1.188	1.397	1.416	1.400
<i>Gelak, guztira</i>	2.562	2.764	3.022	3.096	3.357	3.369	3.474	3.570	3.780	3.808
<i>3, 4 edo 5 izarreko hotelak</i>	2.101	2.293	2.559	2.636	2.803	2.806	2.814	2.805	3.005	3.046
<i>Izar 1 edo 2ko hotel eta ostatu-etxeak</i>	461	471	462	460	554	563	659	765	775	763

Iturria: Eustat.

**Etorritako bidaiariak, jatorriaren arabera**

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
<b>Etorritako bidaiariak</b>	414.349	431.113	518.294	550.264	605.512	623.229	604.336	615.545	684.274	726.000
Estatukoak	279.958	296.066	343.022	372.167	407.219	393.462	383.440	408.021	440.933	470.266
Atzerrikoak	134.391	135.047	175.272	178.097	198.293	229.767	220.896	207.524	243.341	255.734
<b>Bidaiarien ostatu-gau kop.</b>	795.192	804.215	964.673	1.021.494	1.124.649	1.148.891	1.115.721	1.125.047	1.281.521	1.386.219
Estatukoak	508.713	518.663	611.493	654.905	729.238	688.597	678.780	706.040	803.418	872.325
Atzerrikoak	286.479	285.552	353.180	366.589	395.411	460.294	436.941	419.007	478.103	513.894
<b>Batez besteko egonaldia</b>	1,92	1,87	1,86	1,86	1,86	1,84	1,85	1,83	1,87	1,91

Iturria: Eustat.

**Biltzarrak eta bilerak**

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
<i>Bilerak</i>	461	657	735	807	978	1.007	981	1.021	1.092	1.067
<i>Biltzarrak</i>	--	--	--	--	--	94	93	116	99	116
<i>Bilerak</i>	--	--	--	--	--	145	153	104	103	122
<i>Jardunaldiak</i>	--	--	--	--	--	768	735	801	890	829
<i>Bertaratutakoak</i>	92.280	116.000	136.144	178.254	184.581	185.035	192.110	156.981	177.976	171.967
<i>Batez besteko iraupena (egunak)</i>	2,10	2,00	1,82	2,42	1,77	1,86	1,68	1,69	1,68	1,67

Iturria: Bilbao Convention Bureau.

Ostatu jarduerak (baimenak)

Hotelen eskaintza

Etorritako bidaiariak, jatorriaren arabera

Biltzarrak eta bilerak



Itsas bidaldietako jarduera

## Itsas bidaldietako jarduera


	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Itsas bidaldiak	21	21	21	38	30	33	53
Bidaiariak	13.379	16.645	22.972	37.126	28.899	43.394	77.345

Iturria: Bilboko Portua.

## 6. kapitulua *Berrikuntza*



Bilbo: "Zientziaren eta berrikuntzaren hiria  
Informazioaren gizartea Bilbon  
Ikerketa, garapena eta berrikuntza  
Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta  
enpresen jarduerak  
Unibertsitatea, ikerketa iturri





Informazioaren gizartea Bilbon

Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen jarduerak

Unibertsitatea, ikerketa iturri

## Bilbo: "Zientziaren eta berrikuntzaren hiria"

## Bilboko Udalak Agenda Digitala garatzen jarraitzen du

2011n, Bilboko hiria "Zientziaren eta berrikuntzaren hiri" izendatu dute. Zientzia, teknologia eta gizarte arloetan azpiegitura berritzaileak sustatzera zuzendutako inbertsioetan aparteko ahaleginak egiten dituzten hiriei ematen zaie izendapen hori; tokiko alorretik hasi eta produkzio ereduak aldatzeko asmoarekin dihardutenei, hain zuzen ere. Hiru urteko izendapena da, eta hiriak zientziaren eta berrikuntzaren alorretan egiten duen lanaren arabera berritzen da.

Hiriak hartzen duen konpromiso hori zenbaterainokoa den neurtzeko, kontuan hartzen dira Administrazioaren eta beste eragile batzuen eskutik hiribilduan abian jarritako ekimenak, teknologia berrien alde.

Bereziki aipagarria da Bilboko Udalaren Agenda Digitala garatzeko egitasmoa: Informazioaren Gizarteak hiribilduari ekar diezazkiokeen aukera guztiei etekina ateratzeko tokiko estrategia, alegia, herritarren eta enpresen zerbitzura zein Bilboko administrazioaren beraren zerbitzura dagoena.

Besteak beste, 2011ko agendan, Administrazio Elektronikoa arautzen duen Udal Ordenantza behin betiko onartu da. Horren helburua, hauxe: Bilboko udalak eskaintzen dituen jarduera eta zerbitzuak modernoagoak eta gardenagoak izan daitezen lortzea.

Aurten, Udal Ordenantza berria garatzen hasteko, Bilboko Udalak zenbait ekimen jarri ditu martxan: fakturazio elektronikoko sistema ezarri du eta herritarrentzako eta enpresentzako zerbitzuen web ataria sortu eta abiarazi du. Atari horretan, gainera, atal berritzaileak jarri ditu eskura; kasurako, Erregistro Elektronikoa.

Zeharkako ikuspegiarekin burututako bi ekintza nabarmen horiez gain, asko dira 2011. urtean Bilbon gauzatu diren proiektu eta berrikuntza teknologikoak: Bilbon TAO txartelak on line kudeatzeko sistema zentralizatu berria; Freilot egitasmoaren bigarren fasea (Hiribilduko kaleetan salgaien zamalanak eraginkorrago egiteko plataforma teknologikoa), eta hariarik gabeko teknologia (Wi-Fi) bidez Internetarako doako sarbide irekia eskaintzen duen puntu-sarea handitzea.

Teknologia eskuragarriago egiteko eta eten digitala murrizteko xedearekin, Bilboko Udalak bere atariko eduki guztiak ahoz ematen dituen tresna bat aurkeztu du.

## Bilboko doako wifi sarea handitzeko lanek aurrera jarraitzen dute



Informazioaren gizartea Bilbon

Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen jarduerak

Unibertsitatea, ikerketa iturri


Azkenik, Informazioaren Gizartearen eta teknologia berrien esparruan Bilbon egin diren ekitaldi garrantzitsuen artean, Hiri Digitalen Iberoamerikako XII. Topaketa nabarmendu behar da. Ekitaldi horretan, "Hiri digitala, berrikuntzarako eta ezagutzarako esparrua" goiburupean, 2.000 aditu inguru batu ziren, hiru eguneko epean, eta Hiri Digitalen Iberoamerikako sariak ere banatu ziren.

Horrez gain, "Nonick 2011" izeneko nazioarteko biltzarrak ere Interneteko joeren inguruan mintzatzeko aukera ekarri zuen Bilbora. Ekitaldi horretan 400 aditu baino gehiago bildu ziren eta sakelako telefonoetan sortutako aurrerapen teknologiko berrienak zabaldu ziren.

Bestalde, ikerketa, garapen eta berrikuntzari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoa "IUS 2011" delako sailkapenaren 15. tokian dagoela jakin izan dugu. Sailkapen horretan Europako Berrikuntzaren Adierazleen zerrenda osatzen da, Europako Batasuneko herrialdeetako ekonomiek berrikuntzaren aldeko jarduerak bideratzeko zer-nolako gaitasuna duten eta jarduerok zenbateraino garatzen dituzten kontuan hartuta.

Sailkapen hori oinarri hartuta Eustatek egindako zerrendari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoak 0,46ko balioa izan du 2011n: berrikuntza maila altuena eta ertaina duten herrialdeen multzoen artean dago, beraz. Gainera, EAEk Europako batez besteko datua gainditu du, ondoko hiru sailletan: giza baliaideak, ikerketa sistemak eta enpresa-berrikuntza.

### IUS 2011 Europako Berrikuntzaren Sailkapena. EAE eta EB-27



Iturria: Eustat.



## Informazioaren gizartea Bilbon

### Enpresak eta Informazioaren Gizartea

## Bilboko lau enpresatik hiruk Interneterako sarbidea dute, eta puntako ekipamendu teknologikoak gero eta zabaldugo daude euren artean

Informazioaren Gizartearen eta teknologia berrien inguruko datuek erakusten dutenez, gehiago aurreratu da enpresetan, familietan –eta, oro har, biztanlerian– baino. Euskal enpresak, eta are nabarmenago Bizkaiko eta Bilbokoak, Informazioaren Gizartearen parte dira dagoeneko, berez horri lotutako jardueretan ari direlako eta eskaintzen dituen baliabideak erabiltzen dituztelako. Datu horiek guztiak herrialde aurreratuaren maila berean jartzen dituzte bertoko enpresak; beraz, Europako batez bestekoaren gainetik.

Interneterako sarbidea jadanik Bilboko enpresa guztien % 75ek daukate: ehuneko puntu bat igo da adierazle hori 2010eko datuarekin alderatuta. Gainera, enpresa handien artean (hamar langile edo gehiagokoak) % 96 dira sarera konektatuta daudenak.


Internetera konektatzeko, enpresek banda zabala erabiltzen dute gehienbat. Inkestaren arabera, 2011n, Interneteko sarbidedun Bilboko enpresen % 87k ADSL konexioa izan dute (hamar langileko edo gehiagoko enpresen artean, % 82k). Nolanahiko datuak ez badira ere, aurreko urteekin alderatuta, atzera egin du konexio mota hori daukatenen kopuruak, bestelako sarbide-teknologiaren alde: eskuko telefonoen bidezkoak (lehen, GSM edo GPRS; egun, 3G) zein kable edo zuntz optiko bidezko konexioak<sup>1</sup>.

Bestelako hornidura teknologikoak noraino ezarrita dauden ikusita, gero eta gehiago erabiltzen direla esan behar da: sare informatiko finkoak, wireless aplikazioak (haririk gabekoak), funtsen transferentzia elektronikoko sistema informatikoak, intranet eta extranet sareak... Horren erakusgarri, datu hauek: inkesta egin duten Bilboko enpresen % 57k adierazi du sare informatikoa ezarrita duela (hamar langile edo gehiagokoaren % 92k); horien erdia (guztirakoaren % 30), gainera, haririk gabeko edo wireless sareak dira.

Enpresa horien guztien % 21ek Intranet propioa du (hamar langile edo gehiagokoaren % 63k); eta % 14k, extranet bat du eskuragarri enpresako instalazioetatik kanpo. Azken datu hori % 37ra heltzen da hamar langile edo gehiago dituzten enpresetan.

(1) 2011n, Bilboko enpresen % 33k konexio mugikorrek baliatu zituzte Internetera konektatzeko (enpresa handien multzoan, % 52k). % 31k kable edo zuntz optiko bidezko konexioetara jotzen du (hamar langile edo gehiago dituztenen % 46k).

### Interneterako sarbidea duten enpresak



Iturria: Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Enpresak. Eustat.



Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen jarduerak

Unibertsitatea, ikerketa iturri

## Internetera konektatuta dauden enpresen % 14k merkataritza elektronikoa erabiltzen dute (erosketetarako, batez ere)

Internet zertarako erabiltzen duten galdetuta, ia enpresa guztiek (% 97) informazioa bilatzeko egiten dutela erantzun dute. Adierazitako bigarren xedea banku-zerbitzuak erabiltzea eta horiei buruzko informazioa bilatzea izan da (% 75), eta horren atzetik, administrazio publikoarekin egin beharreko izapideak (% 65). Horiez gain, badira gero eta arruntago bilakatzen ari diren beste xede batzuk, hala nola on line prestakuntza (% 55) eta produktu digitalak eskuratzea (% 46).

Merkataritza elektronikoa, ordea (hau da, on line kanalen bitarteko erosketak eta salmentak), ez dute maiz erabili Hiribilduko enpresek: 2011n, Internetera konektatuta dauden enpresen % 14k besterik ez. Zertarako erabili duten kontuan hartuta, enpresen % 13,5ek Internet bidez erosteko egin du; eta % 4k baino ez, on line saltzeko. Ehunekoak handiagoak dira 10 langile edo gehiago dituzten enpresetan. Horien artean, erosketak elektronikoa egin dituzten establezimenduak % 21 dira, eta salmentak egin dituztenak, % 8.

Batzuen eta besteen datuak oso altuak ez diren arren, sarearen bitartez sortutako negozioaren bolumena gero eta handiagoa da, oro har. Ildo beretik, beste sistema elektronikoa batzuk ere gero eta ohikoagoak bihurtu dira –horien pisu erlatiboa gorantz doa–. Datu zehatzetara jota, 2011. urtean, Bilboko enpresek erosketak guztien % 30 egin dute kanal telematikoen bidez (2010ean, % 22), eta salmentei begira, eragiketa guztien % 46 (2010ean, % 34).

Hortaz, sarea eta beste baliabide elektronikoa sarriago erabili dituzten hein berean, azken urteetan, Bilboko enpresek presentzia nabarmenagoa izan dute Interneten. Internetek eskaintzen dituen aukerez oharturik, bertoko enpresek on line ere ikusgai egotearen alde egin dute. 2011n, Bilboko enpresen % 42k webgune propioa izan du (2010ean, % 38k). Hamar langile edo gehiago dituztenen artean, % 83k adierazi dute hori<sup>2</sup>.

### Bilboko enpresek dituzten beste hornidura teknologiko batzuk (%)

	2009	2010	2011
<i>Interneteko sarbidedun enpresak</i>	72,2	74,8	75,1
<i>10 langile baino gutxiagokoak</i>	70,6	73,5	73,6
<i>10 langile baino gehiagokoak</i>	94,4	94,5	95,9
<i>Webgunea duten enpresak</i>	37,7	37,9	41,5
<i>10 langile baino gutxiagokoak</i>	34,9	35,1	38,5
<i>10 langile baino gehiagokoak</i>	76,1	79,4	82,5
<i>Merkataritza elektronikoa egiten duten enpresak</i>	15,9	15,8	14,4
<i>10 langile baino gutxiagokoak</i>	15,7	15,4	13,7
<i>10 langile baino gehiagokoak</i>	18,8	22,1	23,8
<i>Erosketak elektronikoa/erosketak guztiak</i>	20,0	19,8	13,5
<i>Salmenta elektronikoa / salmenta guztiak</i>	5,1	5,0	4,4

Iturria: Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Enpresak. Eustat.

## Internetera konektatuta dauden enpresen % 42k webgunea du

(2) Nahiz eta enpresen zerbitzuak eta web orriak sofistikatu joan diren, baliatutako teknologiaren aldetik (programazio-lengoaia berriak, sare sozialak, etab.), ez dago alde handirik aurreko egoerarekin konparatuta: gutxi gorabehera, eskaintako zerbitzua antzekoa izan da. 2011n web orria izan dutenen % 99k enpresaren argibide orokorren berri emateko erabili dute, eta % 76k eskaintako zerbitzu eta/edo produktuen gaineko informazio zehatza eman dute.



Bilbo: "Zientziaren eta berrikuntzaren hiria"

Informazioaren gizartea Bilbon

Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen jarduerak

Unibertsitatea, ikerketa iturri

Enpresak eta Informazioaren Gizartea

Familiak eta Informazioaren Gizartea

## Familiak eta Informazioaren Gizartea

### *Bizkaiko hamar etxetatik seitan Interneterako sarbidea dago*

Azken urteetan, Bilbok, Bizkaiak eta Euskadi osoak bezalaxe, nabarmen egin du aurrera Informazioaren Gizartearen aukera berriak garatzeko bidean, horiek ekarritako onura guztiez baliatu ahal izateko.

Nolanahi ere, ekonomia aurreratuekin alderatuta, etxeetako ekipamenduari dagokionez, bilbotarrak atzean geratu dira. Hala erakusten dute, kasurako, gailu eta teknologia jakin batzuk eta Sarea bera zenbateraino erabiltzen diren edo teknologia horien balio erantsiaz zenbateraino baliatzen diren azaltzen duten datuek.

Ekipamenduak ekipamendu, Bilboko etxe asko –gero eta gehiago– gailu teknologikoz ongi hornituta daude. Beste gizarte aurreratu batzuetan gertatzen ari denaren ildo beretik, erabili ohi ditugun tresnak etengabe ordezkutzen ari gara berriekin, teknologiak aurrera egin ahala.

2011n, Bizkaiko datuen arabera, etxe guztien % 62n ordenagailua dute. Ez dira ehuneko horretara iritsi, berriz, Interneterako sarbidea dutenak (% 57). Aurreko urtearekin alderatuta, datu hori ehuneko 3 puntu igo da; eta duela bost urteko datuekin konparatuta, ehuneko 16 puntu baino gehiago. 2003an Internetera konektatutako etheen bi halako izan dira 2011n sarbidea zeukatela adierazi dutenak.

Erabilerari dagokionez, hona hemen datu jakingarri bat: 2011. urte bukaeran, Interneten erabiltzen zutenen % 55ek 15 urte edo gehiago zuen (inkestan erabiltzaitzat jo dira azken hiru hilabeteetan Interneten sartu direnak). Ehuneko horrek urte bat lehenago bildutako datua (% 49) 6 puntutan gainditzen du.

Beraz, Interneterako sarbidea orokortu bada ere, Bilboko biztanle guztiek ez dute hein berean erabiltzen teknologia hori (eten digitala); batzuen eta besteen arteko aldea adina, jarduera-arloa, sexua eta eskolatzeko-maila kontuan hartuta aztertu da.

2011n, Bilbon bizi diren gizonezkoen % 62k erabili du Internet, eta emakumezkoen batez bestekoa, aldiz, % 49koa izan da urte berean; hortaz, 13 puntutan gainditu du gizonezkoenak. Urte bat lehenago, eten digitalaren ondoriozko alde hori ehuneko 9 puntukoa zen (% 61,6 eta % 48,5).

#### *Bizkaiko familien tresna teknologiko nagusiak (familien %tan)*

	2009	2010	2011
Ordenagailua	58,6	60,5	61,9
Mahai gainekoa	44,3	42,2	40,5
Eramangarria	27,1	36,4	41,4
Internet	50,5	53,7	56,8

Iturria: Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. Eustat.

### *15 urte edo gehiagoko bizkaitarren % 55ek Internet erabiltzen du*



Biztanleen adinaren arabera ere alde nabarmenak ikusten dira Interneten erabileran. Bizkaiko 15 eta 24 urte bitarteko gazte ia guztiak (% 94) maiz sartzen dira Interneten. Ehuneko hori murriztu egiten da adinak gora egiten duen hein berean. 45 urte edo gehiago dituztenen tartean, kasurako, batez besteko erabilera % 40koa izan da.

Biztanleek Internet zertarako baliatzen duten ere aztertu da: Sarera jotzen duten bizkaitar ia guztiak (% 95) posta elektronikoa kontsultatzeko egiten dute, edo bestela, ondasun eta zerbitzuen inguruko informazioa bilatzeko (% 94). Lau erabiltzailetik hiruk, gainera, komunikabideen web orriak kontsultatzen dituzte (% 76), eta internauta guztien erdiak pasatxo (% 53) banka elektronikoa erabiltzen du izapideren bat betetzeko.

Inkestan adierazitakori erreparatuta, argi dago erabiltzaileek hobeto ezagutzen dituztela Sarearen baliabide aurreratuak, eta horren haritik, eragiketa askotarikoak eta gero eta konplexuagoak bideratzen dituzte. Horietako bat merkataritza elektronikoa da, jakina. Hasieran erosketak elektronikoa egiteari errezeloz begiratzen bazioten ere, urteak joan, urteak etorri, ohituz joan dira biztanleak; eta, batez ere, enpresak.

2011. urtean, bizkaitarren % 28k zerbait erosi edo zerbitzuren bat kontratatu du Internet bidez. Datu horrek aurreko urtekoarekiko (% 33) behera egin badu ere, aipatzekoa da azken bost urteetan portentzajezko 6 puntu igo dela.

Biztanleek gehienbat erosi dituzten ondasun eta zerbitzuak honako hauek izan dira: bidaiak eta ostatu-zerbitzuak (% 33), arropa eta kirola egiteko gaiak (% 34), ikuskizunetarako sarrerak (% 14) eta etxerako produktuak (% 14). Guztira, Bizkaiko internautek 2011n egin dituzten erosketak guztien % 60 izan dira esandako horiek.

Hortaz, bai Bizkaian, bai Bilbon, herritarrak teknologietara gero eta irekiago daude, eta prest daude hainbat tresna berri erabiltzeko. Gainera, urteen joanarekin, eskura dituzten baliabideak aiseago erabiltzen dituzte eta etekina ateratzen diete. Horrekin guztiarekin ere, eten digitalak bere horretan dirauela onartu beharra dago.

### Internet erabiltzen duten biztanleak (15 urte edo gehiago duten biztanleen %)

	2009	2010	2011
Total	50,9	49,2	54,6
Mujeres	45,7	44,8	48,5
Hombres	56,8	54,2	61,6
Brecha digital (p.p.)	11,1	9,4	13,1

Iturria: Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. Eustat.

## Bizkaiko internauten % 28k produktu edo zerbitzuren bat Internet baliatuta erosi du 2011n



Bilbo: "Zientziaren eta berrikuntzaren hiria"

Informazioaren gizartea Bilbon

Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen jarduerak

Unibertsitatea, ikerketa iturri

1 • 2

## Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Ikerketa, garapen eta berrikuntza (I+G+b) jarduerak aurrera egiten jarraitzen dute Bilbon. Hiribilduan gero eta ahalegin gehiago bideratzen da horrelako jardueretara, bai bertako enpresen aldetik, bai herritarren aldetik ere.

Eustatek egindako Berrikuntzari buruzko inkestaren datuen arabera, Bilboko hamar enpresatik bik (% 18k) berrikuntzarekin lotutako ekintzaren bat bideratu zuen 2010ean. Inkestaren ondoretarako, ekintza berrizaitzat jo da prozesu zein produktuetan ezarritako edozein berritasun, teknologikoa zein beste arlo batekoa izan.

Aurreko urteetan, enpresa berrizaitzearen ehunekoak gorantz egin du, gutxi izan bada ere: 2008an % 15ekoa izan zen; 2009an, % 16,1ekoa. 10 langile edo gehiago dituzten enpresen artean, berriz, berrizaitzat jotzen direnak ehuneko ia lau puntu jaitsi dira urtebetean: 2009an, % 31,7; 2010ean, % 28,0.

Denboran atzerago egiten badugu, azken hiru urteetan euren jardunean berrikuntzaren bat egin dutela adierazi duten enpresen % 71k (guztirakoaren % 13k) ekoizpen prozesuak berritu omen dituzte. Gainerakoek (% 23), berriz, produktu berriak eta hobeak merkaturatzeko asmoarekin abiatutako berrikuntzak garatu dituzte.

Batzuek eta besteek I+G+b jardueren arloan egin duten ahalegina ukatzerik ez dago, inbertsioei dagokienez; berrikuntzara, guztira, 234,2 milioi euro zuzendu baitzituzten Bilboko enpresek 2010. urtean (10 langile edo gehiago dituzten enpresek egindako gastua zenbateko horren % 81ekoa izan da). Nolanahi ere, krisialdiak zailtasun ekonomiko ugari ekarri ditu eta, horren ondorioz, nabarmen murriztu da berrikuntzan egindako gastua (-% 21,3): 2009. urtean baino 63,5 milioi euro gutxiago eman dira berrikuntza jardueretarako.

2010eko datuak aurreko urtekoekin alderatzen baditugu, ordea, egoerak nolabait hobera egin zuela ageri da: Hiribilduko 164 enpresak 2010ean I+G<sup>3</sup>, jarduerak garatu zituztela adierazi dute; hortaz, 2009an baino % 3,1 gehiago izan ziren arlo horretan aritu zirenak. Horrelako jardueretan 3.400 enplegatutako langileak zuzentzen lanean enpresek; horietako % 65, ikertzaileak.

I+G jardueretan egindako gastua 103,7 milioi eurotik gorakoa izan da eta 2009tik % 5,2 igo da. Hona hemen inbertsio horren xede nagusiak: guztirakoaren % 45, barne I+G<sup>3</sup> izan da; makinerian egindako gastua, % 18koa; eta kanpoko I+G zerbitzuak erostera zuzendutakoa –teknologia-zentro, unibertsitate, ikerketa-zentro eta halakoen bitartez–, % 16.

(3) I+G ekintzak aipatzean, ezagutza sortzeko jardueraz ari gara; berrikuntza bera kanpo uzten da.

## Berrikuntza arloan egindako gastua % 21,3 jaitsi da, 234,2 milioi eurora arte

### Berrikuntza

	2008	2009	2010	% 2010/09
<i>Establezimendu berrizaitzeak (%)</i>	15,0	16,1	18,2	2,1*
<i>10 langile baino gehiagokoak (kop.)</i>	35,1	31,7	28,0	-3,7 *
<i>Enpresak: Berrikuntzan egindako gastu guztia (milaka €-tan)</i>	329.988	297.741	234.261	-21,3
<i>10 langile baino gehiagokoak (milaka €-tan)</i>	175.797	192.847	189.767	-1,6

\* portzentajezko puntu.

Iturria: I+G<sup>3</sup> buruzko inkesta, Eustat

## 164 enpresa bilbotarrek I+G jarduerak garatu dituzte, eta, guztira, ia 104 milioi euroko gastua egin dute 2010ean



Bilbo: "Zientziaren eta berrikuntzaren hiria"

Informazioaren gizartea Bilbon

Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen jarduerak

Unibertsitatea, ikerketa iturri

1 • 2

Hiribilduko enpresa eta unibertsitateetan hainbat ekimen dago abian ikerketa eta garapen arloetan: sortutako asmakizunak bizitasun horren erakusgarri dira. 2011ko adierazleek, gainera, 2010ekoek baino datu hobek eman dituzte, asmakizunei dagokienez.

Hain zuzen, 2011. urtean, 22 patente eskaera egin dira (2010ean baino bi gehiago); Euskal Herrian egin diren eskaera guztien % 9. Horrez gain, 425 marka komertzial erregistratzeko eskaerak bideratu dira (2010ean baino % 12 gehiago; Euskal Herriko guztien % 21), baita 14 utilitate-modelo, 15 industria-diseinu eta 40 izen komertzial aurrera eramateko eskaerak ere.

Bilboko enpresek berrikuntzaren alorrean beren aldetik egin duten ahalegin sendoaz gain, herritarren eta Administrazioaren eskutik ere hainbat ekimen etorri dira 2011n, euren ezaugarriei edo xedeari begira, Hiribilduan jarrera berritzaileak sustatzen nabarmen lagundu dutenak.

Horren adibide bat, Eutokia izeneko proiektua, berrikuntza soziala Boluetako auzotik Bilbo osora zabaltzeko sortua. Zentro horren bitartez (2010ean ireki zituen atea), 2011n berrikuntza sozialari lotutako egitasmo andana bideratu da, berrikuntza mota hori sustatzearen eta jendea sentiberatzearen alde.

Bestalde, Hiribilduaren beraren hiri birsorkuntza eta diseinua ahalbidetzeko gaitasunari lotuta, aipatu beharra dago Bilbo, 2011. urte erdian, 2014ko Diseinuaren Munduko Hiriburu izateko hiru hautagaietako bat izendatu zutela (Dublin eta Lurmutur Hiriarekin batera, beste 53 hautagaiak atzean utzita). Azkenean saria Lurmutur Hiriak eskuratu bazuen ere, Batzorde antolatzaileak<sup>4</sup> aipamen berezia egin zion Bilboko Hiribilduari, hitzez hitz, "herritarrei bereziki zuzendutako diseinu berritzailea baliatuta hiria eraldatzen egindako lan onagatik".

Esandakoez gain, 2011. urte bukaeran, arlo sozial eta ekonomikoan, eta Administrazioan barne ere, berrikuntzak zer garrantzia duen eztabaidatzeko hitzaldiak eta sentiberatze-jardunaldiak egin dira. Besteak beste, ondoko hauek: Gamerland (Bideo-jokoan eta berrikuntzaren azoka), Bilbao Web Summit topagunea, hóPlay Bideo-jokoan Nazioarteko Lehiaketa, Innosfera ekimena, Merkataritza Ganberak bultzatutako Ezagutza Azoka edo Berrikuntza eta Diseinuaren Sari Nazionalen banaketa (bi alor horietan gehien nabarmendu diren enpresa eta profesionalen Espainian ematen zaizkien sari garrantzitsuenak).

## I+G

	2008	2009	2010	% 2010/09
Gastua I+Gn (milaka €-tan)	99.468	98.673	103.781	5,2
I+G jarduerak bideratzen dituzten enpresak (kop.)	156	159	164	3,1
I+Gn diharduten langileak (kop.)	3.015	3.366	3.400	1,0
I+Gn diharduten ikertzaileak (kop.)	2.094	2.198	2.202	0,2

Iturria: I+Gri buruzko inkesta, Eustat.

## Patenteak eta markak. Bilbon erregistratutako eskaerak

	2009	2010	2011	% 2011/10
Patenteak	14	20	22	10,0
Markak	392	380	425	11,8
Utilitate-modeloak	10	13	14	7,7
Industria-diseinuak	9	9	15	66,7
Izen komertzialak	20	38	40	5,3

Iturria: OEPM.

(4) Industria-diseinuko Elkartearen Nazioarteko Kontseilua, Montreal.



Bilbo: "Zientziaren eta berrikuntzaren hiria"

Informazioaren gizartea Bilbon

Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen jarduerak

Unibertsitatea, ikerketa iturri

## Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen jarduerak

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuetan berrikuntzarekin eta ezagutzaren gizartearekin zerikusi zuzena daukaten jarduera-arloak batzen dira: informazioaren eta komunikazioen ingurukoak (telekomunikazioak, informatika-zerbitzuak, ikus-entzunezko zein informazio eta edizio zerbitzuak); finantza-zerbitzuen eta aseguruaren ingurukoak; eta jarduera profesional zientifiko eta teknikoaren ingurukoak (zerbitzu juridikoak, kontabilitatea, aholkularitza, arkitektura eta ingeniariaritza, I+G, publizitatea, marketina, etab.).

2011. urte amaieran, 29.190 pertsonak egiten zuen lan sektore horretan (guztirako enpleguaren % 17), Hiribilduko 2.377 enpresatan (guztirakoaren % 15). Sektore horretako hamar enpleguko lau Zerbitzu profesional, tekniko eta zientifikoaren azpisektorearen barnekoak dira (% 40), eta horien artean, erdia –gutxi gorabehera– zerbitzu juridikoei, kontabilitatekoei eta aholkularitzakoei lotuta daude (5.604 afiliatu).

Informazio eta komunikazio zerbitzuen azpisektorearen barne, berriz, lanpostu gehien (3.752) ematen dituen jarduera-arloa informatika zerbitzua da. Bestalde, finantza-zerbitzuen eta aseguruaren azpisektoreari dagokionez, guztirako enplegatuen bi heren finantza-jardueretan lanean ari dira (6.467 lanpostu).

Jarraian ikusgai dagoen koadroan, bai sektoreak, bai enpresa kopuruak behera egin dutela ageri da: -% 2,7 eta -% 0,5, hurrenez hurren (2010eko datuekin alderatuta). Orobat nabarmentzekoak dira ikus-entzunezko, informazio eta edizio zerbitzuetan zein publizitate eta marketin zerbitzuetan galdu diren lanpostuak (-% 10,8, batean zein bestean).

## Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Afiliatuak

	2009	2010	2011	% 2011/10
<i>Afiliatuak (kop.)</i>	30.035	30.009	29.190	-2,7
<i>Informazioa eta komunikazioa</i>	8.374	8.416	7.916	-5,9
<i>Telekomunikazioak</i>	1.327	1.374	1.368	-0,4
<i>Informatika zerbitzuak</i>	3.922	3.906	3.752	-3,9
<i>Ikus-entzunezko, informazio eta edizio zerb.</i>	3.125	3.136	2.796	-10,8
<i>Finantza-zerbitzuak eta aseguruak</i>	9.873	9.746	9.591	-1,6
<i>Finantza arlokoak</i>	6.766	6.626	6.467	-2,4
<i>Aseguruak eta zerb. laguntzaileak</i>	3.107	3.120	3.124	0,1
<i>Zerb. profesional, zientifiko eta teknikoak</i>	11.788	11.847	11.683	-1,4
<i>Zerb. juridikoak, kontabilitatea eta aholkularitza</i>	5.437	5.506	5.604	1,8
<i>Arkitektura, ingeniariaritza eta I+G zerb.</i>	3.769	3.711	3.631	-2,2
<i>Publizitatea eta marketina</i>	1.633	1.672	1.491	-10,8
<i>Beste batzuk</i>	949	958	957	-0,1

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

## Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Soldatapeko langileak dituzten enpresak

	2009	2010	2011	% 2011/10
<i>Soldatapeko langileak dituzten enpresak (kop.)</i>	2.401	2.388	2.377	-0,5
<i>Informazioa eta komunikazioak</i>	394	408	407	-0,2
<i>Telekomunikazioak</i>	40	47	49	4,3
<i>Informatika zerbitzuak</i>	160	175	189	8,0
<i>Ikus-entzunezko, informazio eta edizio zerb.</i>	194	186	169	-9,1
<i>Finantza-zerbitzuak eta aseguruak</i>	376	384	380	-1,0
<i>Finantza arlokoak</i>	90	88	90	2,3
<i>Aseguruak eta zerb. laguntzaileak</i>	286	296	290	-2,0
<i>Zerb. profesional, zientifiko eta teknikoak</i>	1.631	1.596	1.590	-0,4
<i>Zerb. juridikoak, kontabilitatea eta aholkularitza</i>	983	975	979	0,4
<i>Arkitektura, ingeniariaritza eta I+G zerb.</i>	329	317	300	-5,4
<i>Publizitatea eta marketina</i>	220	207	206	-0,5
<i>Beste batzuk</i>	99	97	105	8,2

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.



Bilbo: "Zientziaren eta berrikuntzaren hiria"

Informazioaren gizartea Bilbon

Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen jarduerak

Unibertsitatea, ikerketa iturri

1 • 2

## Unibertsitatea, ikerketa iturri

Azken hamarkadetan, unibertsitateen jarduera-esparrua aldatu egin da. Bai gizarteak, bai herri-administrazioek, eskualdeen aurrerabide teknologiko eta ekonomikoan parte-hartze aktiboagoa izateko eskatu diete. Jakina, unibertsitateek ardura hori bere gain hartzeak, ezagutza sortzeko beharra dutela esan nahi du.

Patenteak adierazle bikaina dira unibertsitateek garatutako ikerketa eta berrikuntza teknologikoen emaitzak neurtzeko, eta aplikagarriak dira, baita ere, enpresen jarduneari zein gizartearen hainbat esparrutan.

UPV/EHUK emandako azken datuen arabera, 2010. urtean 56 patente erregistratu ziren, aurreko urteko datutik gertu.


## UPV/EHUKo aurreko urteetako ikasle kopuruak mantendu egin dira azken ikasturtean

Euskal Herriko Unibertsitateak hainbat Unibertsitate Fakultate ditu Bilbon: Sarriko, Arangoiti, Elkano, La Casilla eta San Mames. 2010-2011 ikasturteko datuen arabera, ikasketak Bilbon egin dituzten EHUKo ikasleak 12.816 izan dira; aurreko urtean bezala, gutxi gorabehera (-% 0,2).

Ikasle guztien erdia baino gehiago Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean eta Industria Ingeniaritza eta Telekomunikazioen Goi Eskola Teknikoan aritu dira (3.506 eta 3.339, hurrenez hurren). Azken ikasturtean ikasleen datuek gora egin dute, beraz.

Guztirako ikasle kopuruei begira, hirugarren eta laugarren tokietan Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola eta Irakasleen Unibertsitate Eskola daude. Bakoitzak 2.000 ikasletik gora ditu, baina 2009-2010 ikasturteko datuekin konparatuta, oraingoan ikasle gutxiago izan dituzte (-% 4,4 eta -% 7,8, hurrenez hurren). Alderantziz, Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan ikasle gehiago izan dituzte: guztira, 1.528 (% 6,7 gehiago). Ildo beretik, Basurtuko Medikuntza eta Odontologia Fakultatean ere 192 ikasletik 237ra igaro dira.

## UPV/EHUK 2000tik 2010era aurkeztutako patenteen bilakaera



Iturria: UPV/EHU ZENBAKITAN 2010/2011.

## UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleak (Bilboko campusa)

	2009	2010	2011	% 2011/10
UPV/EHUKo Bilboko campusa, guztira	13.213	12.839	12.816	-0,2
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fak.	3.451	3.422	3.506	2,5
Industria Ingeniaritza eta Telekom. GET	3.356	3.313	3.339	0,8
Industria Ingeniaritza Teknikoko Unib. Eskola	2.300	2.219	2.121	-4,4
Irakasleen Unib. Eskola	2.295	2.261	2.085	-7,8
Enpresa Ikasketen Unib. Eskola	1.536	1.432	1.528	6,7
Medikuntza eta Odontologia Fak. Basurtu	275	192	237	23,4

Ikasturte akademikoaren amaierako urtea.

Iturria: UPV/EHU.



Bilbo: "Zientziaren eta berrikuntzaren hiria"

Informazioaren gizartea Bilbon

Ikerketa, garapena eta berrikuntza

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen jarduerak

Unibertsitatea, ikerketa iturri

1 • 2

## UPV/EHUko Bilboko zentroak berrantolatze bidean daude

Azkenik, ezin aipatzeke utzi 2011n Bilboko Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateak sinatutako Lankidetzaren hitzarmena. Horren arabera, datozen urteetan, Bilboko unibertsitate ikasketetako zentroak hiru gune nagusiren inguruan bilduko dira: gune juridiko-ekonomikoa (Sarriko), gune teknologikoa (San Mames) eta osasun gunea (Basurtu).

Horrela, bada, Erakustazoka ohiak hartzen zuen lursailean Ingeniaritza Eskolaren instalazio berriak egongo dira; Sarrikoko Fakultatearen ondoan, Zientzia Ekonomikoen eta Juridikoen eraikin berria (Zorrozturreko eremu berrira arte zabalduko da); eta, azkenik, Basurtun Medikuntza eta Odontologia Fakultatea eta Erizaintzako Unibertsitate Eskola egongo dira<sup>5</sup>.

Hitzarmen horrekin pauso bat aurrera egiten ari dira "UPV/EHUko Campusa garatzeko plana 2005/2010" gauzatzeko bidean. Egitasmo hori guztiz osatzen denerako, egun hirian sakabanatuta dauden fakultateak bata bestearekin lotuago egongo dira eta Bilbo benetako unibertsitate hiri bihurtuko da.

Deustuko Unibertsitateko Bilboko campusa ere erdigunean bertan dago, Guggenheim Museoaren aurrean. Hona hemen campus horretan dauden zentroak: eraikin nagusia edo Literarioa –Zuzenbide eta Letra ikasketen egoitza–; Komertzialaren eraikina –Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea–, eta ESIDE eraikina –ingeniaritzak eta Mendeurreneko Eraikina daude bertan–. Ehun urtetik gorako eraikin historiko hauen aurrean, Liburutegi-IIBZ (Ikasteko eta Ikertzeko Baliabideen Zentro) berria dago. Campusaren barne integratuta dago, itsasadarra gainetik zeharkatzen duen Arrupe Aitaren zubiarri esker.

Bilboko campusean, guztira, 6.000 ikasletik gora hartu ditu Deustuko Unibertsitateak 2010-2011 ikasturtean. Gutxi gorabehera, ikasle kopuru bera izan dute fakultate batzuek eta besteek: Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (1.494 ikasle)<sup>6</sup>, Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea (1.137), Ingeniaritza Fakultatea (1.126), Zuzenbide Fakultatea (1.115) eta Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea (929). Gainerako ikasleak Teologia Fakultatekoak, Irakasleen Unibertsitate Eskolakoak eta Zuzenbide eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradu bikoitzeak dira.

### Deustuko Unibertsitateko ikasleak (Bilboko campusa)

	2010-2011 ikasturtea
Deustuko Unibertsitatea	6.518
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea*	1.494
Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea	1.137
Ingeniaritza Fakultatea	1.126
Zuzenbide Fakultatea	1.115
Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea	929
Irakasleen Unibertsitate Eskola	405
EAZ + Zuzenbidea Gradu Bikoitza*	193
Beste ikasketa batzuk	119

\* Bizkaia eta Gipuzkoako campusetako ikasleak bane. Iturria: Deustuko Unibertsitatea.

## Deustuko Unibertsitateak 6.000 ikasle baino gehiago ditu Bilbon

(5) Irakasleen Unibertsitate Eskola, berriz, Enekuritik Leioara eraman dute.

(6) Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak emandako datuan (1.494 ikasle) Bizkaia eta Gipuzkoako campusetako ikasleak sartu dira.

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Soldatapeko langileak dituzten enpresak

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Afiliatuak

Patenteak eta markak. Bilbon erregistratutako eskaerak

## Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Soldatapeko langileak dituzten enpresak

	2009	2010	2011
Soldatapeko langileak dituzten enpresak (kop.)	2.401	2.388	2.377
Informazioa eta komunikazioak	394	408	407
Telekomunikazioak	40	47	49
Informatika zerbitzuak	160	175	189
Ikus-entzunezko, informazio eta edizio zerb.	194	186	169
Finantza-zerbitzuak eta aseguruak	376	384	380
Finantza arlokoak	90	88	90
Aseguruak eta zerb. laguntzaileak	286	296	290
Zerb. profesional, zientifiko eta teknikoak	1.631	1.596	1.590
Zerb. juridikoak, kontabilitatea eta aholkularitza	983	975	979
Arkitektura, ingeniariaritza eta I+G zerb.	329	317	300
Publizitatea eta marketina	220	207	206
Beste batzuk	99	97	105

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Soldatapeko langileak dituzten enpresak

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Afiliatuak

Patenteak eta markak. Bilbon erregistratutako eskaerak

## Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Afiliatuak

	2009	2010	2011
Afiliatuak (kop.)	30.035	30.009	29.190
Informazioa eta komunikazioa	8.374	8.416	7.916
Telekomunikazioak	1.327	1.374	1.368
Informatika zerbitzuak	3.922	3.906	3.752
Ikus-entzunezko, informazio eta edizio zerb.	3.125	3.136	2.796
Finantza-zerbitzuak eta aseguruak	9.873	9.746	9.591
Finantza arlokoak	6.766	6.626	6.467
Aseguruak eta zerb. laguntzaileak	3.107	3.120	3.124
Zerb. profesional, zientifiko eta teknikoak	11.788	11.847	11.683
Zerb. juridikoak, kontabilitatea eta aholkularitza	5.437	5.506	5.604
Arkitektura, ingeniariaritza eta I+G zerb.	3.769	3.711	3.631
Publizitatea eta marketina	1.633	1.672	1.491
Beste batzuk	949	958	957

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa.

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Soldatapeko langileak dituzten enpresak

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Afiliatuak

Patenteak eta markak. Bilbon erregistratutako eskaerak

## Patenteak eta markak. Bilbon erregistratutako eskaerak

	2009	2010	2011
Patenteak	14	20	22
Markak	392	380	425
Utilitate-modeloak	10	13	14
Industria-diseinuak	9	9	15
Izen komertzialak	20	38	40

Iturria: OEPM.

## 7. *Kapitulua* *Kultura* *eta Kirola*



Udal jarduera kulturala  
Antzerki, dantza eta musika jarduerak  
Museoak  
Liburutegiak  
Kirola





Udal jarduera kulturala

Antzerki, dantza eta musika jarduerak

Museoak

Liburutegiak

Kirola

“Kultura aniztasuna gizon-emakume guztion ondarearen mamia da... horri esker, pertsona guztien bizitza asebetegarriagoa da adimenaren, moralaren eta espiritualtasunaren arloetan” (Kultura aniztasunari buruzko UNESCOren adierazpen unibertsala, 3. artikulua).

Kulturaren Behatokiak estatuko hiriek eskaintzen duten eskaintza kulturalaren kalitatea eta berrikuntza aztertu du, eta ikerketaren horren arabera, 2011. urtean Bilbok hirugarren tokia irabazi du, Madril eta Bartzelonaren ondotik. Fundazio Garaikideak –Behatokiaren bitartez– euren ibilbideari erreparatuta aski ezagunak diren kulturaren arloko profesionalak biltzen ditu lan horretarako. Aditu talde horren esku uzten du, beraz, azterketa zehatza egitea, estatuan kultura zertan den jakiteko.

Hainbat arlotako adituek hartu dute parte: hala nola idazleak, artistak, zuzendari eta aktoreak, musikariak, arkitektoak, museo eta kultur zentron arduradunak, argitaratzaileak, ekoizleak, sustatzaileak, galerietako jabeak eta kultura industrien arduradunak, kultura kudeatzaileak eta arloko profesionalak, baita estatuko, autonomietako zein tokiko udal administrazioetako kultura sailtako eta erakundeetako arduradunak ere. Horien guztien iritzia kontuan hartuta, garbi geratu dira hiribilduan kultura sustatzearen alde aritu diren eragileen lan eta ahalegin guztiak.

Eragile horien artean, Udalak erakunde gisa egindako lana nabarmendu behar da bereziki.



Udal jarduera kulturala
Antzerki, dantza eta musika jarduerak
Museoak
Liburutegiak
Kirola

## Udal jarduera kulturala

Kulturaren 21 Agenda delakoa, kultura garatzeko asmoarekin sortua, hirien eta tokiko gobernuen konpromisoa ezartzearen alde egiten duen nazioarteko lehen agiria da. Tokiko gobernuak zeregin handia dute gaur egun, globalizazioa herritarren zerbitzura jarri eta kultura irekia eta askotarikoa sustatu nahi badute. Kulturaren 21 Agenda onartzean, hiri sinatzaileek bere egiten dituzte bertan adierazitako konpromisoak, kulturaren garapenerako ezinbestekoak diren alderdiekin hartu beharrekoak, alegia. Eta hartutako konpromiso sendoari esker, kulturaren arloa hirigintza politiken ardatz nagusi bihurtzen dute.

Kulturaren 21 Agendak kultura nazioarte mailan garatzen lagunduko duten hatsarre, konpromiso eta gomendioak nork bere egitea dakar, beraz, baina tokiko arlotik abiatuta; gizartearen eskubide kolektiboa baita, izatez.

Argi dago, orduan, kultura aniztasunaren alde egiteak eta kulturaren ikuspegi irekia sustatzeak duen garrantzia, kultura sormena eta parte-hartzea guztiontzako baliagarria baita.

Bilboko Udalak 2005eko martxoaren 2an egin zuen bat Kulturaren 21 Agendarekin, Gobernu-batzordeak hala adostuta.

2011. urtean zehar, udalaren jarduera kulturalak sei ildo nagusi izan ditu: kultura eta aisialdi ekitaldiak antolatzea; Liburutegien eta Udal Artxiboaren sarea sendotzea; kultura-egitarauen alde egitea; arte sormena eta artisten trebakuntza sustatzea; auzoetako egitarauak osatzea eta hiriko artearen arloko sektoreekin lankidetzak ahalbidetzea.

Ondoko koadroan ageri denez, ildo horiei jarraituta 41 proiektu garatu dira eta horien bitartez 1.606 ekitaldi gauzatu dira; guztira, 855.000 lagun batu dituzte.

Udalak zentzu horretan egindako lan eskergaren ondorioa da Bilbok Espainiako beste hiri batzuei ateratzen dien aldea, kultura arloko jarduerari dagokienez. Kapitulua honen hitzaurrean adierazitakoa Kulturaren Behatokiaren, 5. barometroaren emaitzek egiaztatzen dute: 2011. urte bukaeran Bilboko hiria hirugarren tokian zegoen kulturaren arloan egindako zerrandan (bertan egindako kultura-egitarauen kalitateak 44 puntu lortu ditu), Madril (87) eta Bartzelonaren (80) atzetik, eta beste hauen aurretik: Valentzia (27), Sevilla (26) eta Donostia (20), gutxi batzuk aipatzearen. Kulturaren berritzeagatik ere aintzat hartu dute Bilbon egindako lana, eta sail horretan ere hirugarren tokian dago; kasu honetan, Bartzelonaren (76) eta Madril (72) atzetik – hurrenkera horretan –, eta Valentzia (25), Murtzia (15) eta Sevillaren (10) aurretik.

(1) Fundazio Garaikideak egina, kultura izen handia duten profesionalekin eta herri administrazioetako kultura sail eta erakundeetako arduradunekin osatutako aditu talde bati galdetuta, hain zuzen ere.

## Udal jarduera kulturalaren adierazleak (2011)

	Egitasmoak	Ekitaldi kop.	Bertaratutakoak
<i>Kultura eta aisialdi ekitaldiak</i>	Bilboko Kalealdia 53. Zinebi Kaleszena Txotxongiloen Nazioarteko XX. Jaialdia XIII. BAD XVII. FANT XII. BilbaoPoesia	257	54.007
<i>Liburutegi eta Udal Artxiboa sendotzea</i>	Udal Liburutegien Sarea Udal Artxiboa	336	689.379
<i>Kultura-egitarauen alde egitea</i>	Bidebarrieta Kulturgunea Liburu azokak bultzatzea XII. Arte eta Kultura Topaketetan laguntzea Argitalpenak Bilbao Izan XXIII. Bilbainada lehiaketa Kultura 18 Kultura arloko diru-laguntzak Hitzarmenak	2733	22.5671
<i>Arte sormena eta artisten trebakuntza sustatzea</i>	Bilbao Eszena Artistak egoitzatan hartzea Bilboko Zirkuitua Bilboko Haur Antzerki topaketak Kultura lantegiak Literatura lehiaketak Bilbao Film Commission	243	17.074
<i>Auzoetako egitarauak osatzea</i>	8 barrutitako egitarauak Expodistrito Bilbao Distrito Jazz Gabonetako abesbatzen lehiaketa Bilbao Distrito Foto 11 Dantza Plazetan XXVII. Udaberriko Bertso Saiok	497	72.529
<i>Artearen arloko sektoreekin lankidetzak ahalbidetzea</i>	Ikusmen-arteak Arte eszenikoak		
<b>GUZTIRA</b>		<b>1.606</b>	<b>855.556</b>

1 Ez dira kontuan hartu Liburu Azokak, Argitalpenak, Kultura 18, Diru-laguntzak, ezta Hitzarmenak ere. Iturria: Bilboko Udala.



Udal jarduerak kulturala

Antzerki, dantza eta musika jarduerak

Museoak

Liburutegiak

Kirola

## Antzerki, dantza eta musika jarduerak

Antzerki eta musika jarduerak ugari dira Bilbon, eta hainbat tokitan egiten dira. Guztira, eszena-ekitaldietarako 10 gune eta 6 kontzertu-areto daude; aipagarrienak, Arriaga Antzokia eta Euskalduna Jauregia.

2011n, Arriaga Antzokiak atek berriz ireki zituenetik 25 urte bete dira. Hiru urtez egon zen itxita, 1983ko abuztuko uholdeek Alde Zaharrean eragin zituzten kalte larrien ondorioz.

Hortaz, udal antzokiak urte berezia izan du: bi jardunalditan atek edonorentzat ireki zituen, bilbotar guztiek barrutik doan ikus zezaten. Hala ere, esan beharra dago egoera ekonomiko orokorrak ez duela lagundu, eta gastu publikoa murriztu izanak ere izan duela eragina antzokiak 2011n eskaini duen programazioan eta jaso duen ikusle kopuruan.

Arriaga Antzokian 61 ikuskizun eta 218 emanaldi antolatatu dira 2011n, eta ekitaldi horiek guztiek 133.304 ikusle bereganatu dituzte. 2010eko datuekin alderatuta, eskainitako ikuskizunak % 9,0 gutxiago izan dira (6 ikuskizun gutxiago); eta emanaldiak, % 19,0 gutxiago. Ikusle kopurua ere jaitsi da: 41.213 lagun gutxiago, zenbaki absolututan (% 23,6 gutxiago).

Ikusleen herenak ia (% 32,7) antzerkia hautatu du, gainerako genero artistikoez askoz jarraitzaile gutxiago batu dituzte; kasurako, operak (% 15,9), kontzertuak (% 11,6), dantza ikuskizunak (% 11,5), zarzuelak (% 8,8) edo musikalak (% 8,6). Ikusle kopuruei erreparatuta soilik, jende gehien batu duen ikuskizuna "Avenue Q" izan da (9.843), eta horren ondorik, "El Caserío" zarzuela (7.185) eta "Momix" dantza-ikuskitzuna (6.178).

Euskalduna Jauregiak, bestalde, 351 arte ikuskizun eskaini ditu. Ikuskizun kopurari guztirako ikusleen (318.993, 2011n) eta sarreren salmentaren (9,1 milioi eurotik gora) datuak gehituta, Euskalduna Jauregia estatuko entzunareto publikoen buru da.

Ikuskizunak askotarikoak izanik ere, genero artistikoei dagokionez, antzerki-lanak eskaini dira, batik bat: guztirako herena baino gehiago (% 36,5; 128 emanaldi). Hona hemen antolatutako beste ikuskizun mota batzuk: orkestra eta abesbatzen kontzertuak (% 20,5), Musika-Música 2011 zikloko kontzertuak (% 18,8) eta opera emankizunak (% 8,5).

2011. urtean zehar asko izan dira Euskalduna Jauregira etorri diren izen handiko artistak, musikaren, abestiaren edo arte eszenikoen arloan, hala nola Inma Shara, Víctor Pablo Pérez, Juan José Ocón, Fuat Mansurov, Jiri Belchlevek, Donato Renzetti, Tulio Gagliardo, Juan Diego Flórez, Carlos Álvarez, Ainhoa Arteta, BOS, Düsseldorfer Symphoniker orkestra, BBCko orkestra sinfonikoa, Real Filharmonia de Galicia, Orfeoi Donostiarra, Saint Marc de

## 2011n Euskaduna Jauregian 351 emanaldi antolatatu dira, eta ikuskizunok guztira 319.000 lagun batu dituzte

### Arriaga Antzokia: antolatutako ikuskizunak eta ikusle kopurua

	2010	2011	% 2011/10
Ikuskizunak	67	61	-9,0
Emanaldiak	269	218	-19,0
Beraratutakoak	174.517	133.304	-23,6

Iturria: Arriaga Antzokia.

Lyon abesbatza, Andra Mari Abesbatza, Víctor Ullateren Balleta, Kubako Ballet Nazionala eta Joaquín Achúcarro.

Bestalde, 2011n atek ireki dituen "Harrobia Eskena" aipatu beharra dago. Euskadin ekoizpen eszeniko profesionalaren arloan dagoen errendimendu handiko lehen zentroa da hori, eta Euskadiko Ekoizpen Eszenikoko Enpresen Elkarte (ESKENA) arduratu da bere kudeaketaz.

Otxarkoagako eliza izan zen eraikinean dago. Izan ere, urte askotan eskatu izan dute arte eszeniko profesionalaren arlokoek azpiegitura hori. Behin sortuta eta bere lekua hartuta, zentro berriaren xedea Bilboko eta Euskadi osoko antzerki ekoizpenari bultzada berri bat ematea da.

"Harrobia Eskenak" 1.000 metro koadro ditu, guztira, eta hiru solairu. Baliabide teknikoan aldetik, behar besteko hornikuntza du, prozesu eszenikoak osorik hartzeko eta eskaintzeko adina, barne sartuta prozesuaren garapena, aurre-ekoizpena eta altxaera. Edo beste modu batera esanda, ikuskizun eszenikoak baldintza profesionaletan eta kontrolpean emateko eta sustatzeko egokiak diren azpiegiturak ditu.

(2) Horrez gain, Musika-Música 2011 zikloaren barne 35 kontzertu eskaini ziren doan.



- Udal jarduera kulturala
- Antzerki, dantza eta musika jarduerak
- Museoak**
- Liburutegiak
- Kirola

## Museoak

Bilboko museo eta arte erakustokien eskaintza zabala da: 12 museo eta arte-galeria asko dago bertan. Horien guztien artean, ezin aipatzeko utzi Guggenheim Museoa, nazioartean duen oihartzunarengatik, eta Arte Eder Museoa, gordetzen duen bilduma ikusgarriarengatik.

Bilboko Guggenheim Museoak 962.358 bisita jaso ditu 2011n, aurreko urtean baino % 0,6 gehiago; 5.941 gehiago, zenbaki absolututan. Beraz, testuinguru ekonomiko orokorrak kontsumoa kaltetu duela kontuan izanda, museoaren emaitzak ez dira batere kaskarrak izan.

Aurreko urteetan bezala, bisitari gehienak atzerritik etorri dira: 2011ko guztien % 62; batez ere, Frantziatik, Erresuma Batutik, Alemaniatik, AEBtik eta Italiatik.

Gainerako % 38 estatuko hainbat lekutatik etorri dira. Nolanahi ere, nabarmendu beharra dago euskal herritar gehiago ere etorri dela urte honetan; batik bat, erakusketa hauek bisitatzeko: Kaosa eta Klasizismoa eta Urrezko Aroa: Städel Museum-en Holandako eta Flandeseko pintura.

Bestalde, Bilboko Arte Eder Museoak inoizko bisitari kopuru handiena lortu du 2011n: gutxi gorabehera 260.000 bisitari, 2010ean baino % 35,4 gehiago. Antonio López eskainitako erakusketak izandako arrakasta handiagatik hautsi da marka, erakusketa horrek 209.531 lagun ekarri baitzituen; hau da, museoak inoiz izan duen erakusketa bisitatuena izan da.

Museoetz gain, Bilbon dagoeneko aski ezagun eta ospe oneko bihurtu diren bestelako kultur guneak daude, hala nola Itsas Museoa (56.720 bisitari 2011n), Elizbarrutiko Arte Sakratuko Museoa (17.843 bisitari), Bizkaiko Arkeologia Museoa, Artelan Berreginen Museoa eta Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoa.

### *Museoak (bisitariak)*

	2009	2010	2011	% 2011/10
<i>Guggenheim Museoa</i>	905.048	956.417	962.358	0,6
<i>Arte Eder Museoa</i>	207.978	191.962	259.968	35,4

*Iturria: Guggenheim Bilbao Museoa, Bilboko Arte Eder Museoa.*



Udal jarduerak kulturalak
Antzerki, dantza eta musika jarduerak
Museoak
<b>Liburutegiak</b>
Kirola

## Liburutegiak

### *Liburutegi sareko erabiltzaileek % 10,2 gutxiago baliatu dituzte 2011n*

Bilbon udal liburutegi sare zabala dago, liburuak, aldizkariak, filmak, musika edukiak eta abar kontsultagai jartzen eta maileguan hartzeko aukera ematen dutenak. Hiriko liburutegi-zerbitzu gehientsuenak Bidebarrietako Liburutegi Nagusiak ematen baditu ere, horren osagarri, hainbat barrutitan banatutako beste 13 liburutegi daude; besteak beste, Begoña, Deustu, Uribarri, Txurdinaga-Otxarkoaga, Ibaiondo, Errekalde eta Basurtu-Zorrotza. Horiez guztiez gain, Bilbao Musika liburutegi espezializatua dago (liburutegiko funtsak musika edukiz besterik ez daude osatuta), baita Buiako liburutegi-zerbitzugunea ere.

2011n, nahiz eta liburutegiko txartela daukatenak aurreko urtean baino % 6,6 gehiago izan diren, liburutegietara % 10,2 gutxiago bertaratu dira erabiltzaileak (77.066 bisita gutxiago). Batez beste, 6,7 bisita egin ditu erabiltzaile bakoitzak 2011n. 2010ean, aldiz, 8,0 bisita egin zituzten batez beste. Funtsen maileguak ere behera egin du (-% 8,3), bildumak % 4,5 handitu diren arren.

Arestian esan bezala, Bidebarrietako Liburutegi Nagusia da erabiliena Bilbon. Hona hemen zenbait datu argigarri: liburutegi batera jo dutenen % 41ek bertara jo du 2011n; erabiltzaileen herena baino gehiago bertakoak dira, eta urtean guztira egin diren maileguen herena baino gehiago ere bertan burutu da (% 36, kasu batean zein bestean). Bestalde, 2011. urte hasieran Ibaialde liburutegiak atek ireki ditu Ibaiondoko barrutian, eta lehen urtean jada ia 15.000 bisita jaso ditu.

Baliabide sare zabal honetaz gain, museoen azpiegiturei lotutako guneak (Arte Eder Museoa, Guggenheim Museoa, Euskal Museoa...) edo bestelako zentroak ere badaude Bilbon (Alhóndiga Bilbaoko Mediateka, Azkue Biblioteka).

### *Liburutegiei buruzko adierazleak*

	2009	2010	2011	% 2011/10
Bertaratutakoak	760.904	754.166	677.100	-10,2
Maileguak	445.732	416.830	382.184	-8,3
Bildumaren tamaina	381.369	386.944	404.331	4,5
Txartela duten erabiltzaileak	86.857	94.174	100.363	6,6

Iturria: Bilboko Udal Liburutegiak.

### *Liburutegiei buruzko adierazleak (2011)*

	Bisitak	Erabiltzaileak	Maileguak	Funtsak
<b>GUZTIRA</b>	<b>677.100</b>	<b>100.363</b>	<b>382.184</b>	<b>404.331</b>
Bidebarrieta	277.358	35.937	137.373	126.090
Deustu	94.370	13.695	49.786	26.396
San Inazio	37.704	6.802	27.701	21.015
Zurbaranbarri	8.219	2.385	8.006	7.633
Castaños	21.213	1.539	11.450	5.083
Otxarkoaga	24.263	3.130	10.988	16.399
Begoña	77.790	13.529	54.958	31.274
San Adrian	7.441	1.988	5.539	6.840
San Frantzisko	20.382	3.929	9.460	16.533
Zabala	3.846	841	4.347	4.328
Irala	14.347	2.202	11.678	9.229
Errekalde	32.742	8.312	15.549	14.270
Zorrotza	28.760	4.103	19.058	14.860
Buia	144	26	98	1.271
Bilbao Musika	13.797	947	3.832	8.023
Garellanoko liburu-gordailua	-	-	4.479	89.311

Iturria: Bilboko Udal Liburutegiak.



Udal jarduera kulturala
Antzerki, dantza eta musika jarduerak
Museoak
Liburutegiak
<b>Kirola</b>

## Kirola

### *Bilbo, “2012ko Kirolaren Europako Hiri”.*

Bilbon kirolak bizi gaitu. Seguruenik, horrexegatik aukeratuko zuten “2012ko Kirolaren Europako Hiri”. Ez alferrik, Bilboko hiriak kirola sustatzeko konpromisoa sendoa hartu baitu. Sekulako inbertsioak egin ditu, beraz, azken urteetan, punta-puntako kirol instalazioak eraikitzeko, eta herritarrei eskaintza askotarikoa eta kalitatezkoa emateko.

Sari honek zera esan nahi du, nazioartean begi onez ikusi dituztela Hiribilduan bideratutako kirol politika, azpiegitura berriak eraikitzen zuzendutako erakundeen arteko lankidetzak (Bizkaia Frontoia, Bilbao Arena, San Mames Barria...) eta kirol-jarduerak sustatu dituzten eragile publiko eta pribatu guztien lana ere.

2011. urtean zehar garatu diren kirol jardueren arloa etorrita, Bilbao Kirolak udal zerbitzuak emandako datuek urte ona izan dela erakusten dute.

Hona hemen jarduera neurtu duten adierazle nagusien emaitzak: udal kiroldegietan ia 2,9 milioi aldiz sartu dira erabiltzaileak; kirol zerbitzuan izena emanda daudenak 96.493 izan dira; ikastaroetan 178.041 pertsonak eman du izena; ume eta gazteentzako udalekuetan 6.192 lagunek hartu du parte; aretoetan, ur-instalazioetan eta kirol egokituko zerbitzuetan 65 jarduera garatu dira, guztira.

Eta ohiko zerbitzuez gain, Bilboko instalazioetan aparteko kirol-jarduerak ere gauzatu dira 2011. urtean; besteak beste, hauexek: Patin-hockeyko Kopa Kontinental, Boxeo Jaialdia Casilla pabiloian, VI. Indoor Futbol Txapelketa, “Bilbo Hiribildua Irekia” pilota txapelketa, Bilbao Kirolak Nazioarteko Atletismo Milia, Gorpil-lerroko Patin Hockey IV. Txapelketa Zorrotzako kiroldegian, II. “Golf Hirian” ekimena, eta Bilbao Arenan egindako IV. EuskalGym jaialdia.

Eraikitako edo berritutako kirol azpiegiturei dagokionez, honako hauek aipatu ditzakegu: Errekaldeko Kiroldegian 147 autorentzako lekua duen aparkaleku berri bat egin da; “La Raqueta jauregia” inauguratu da San Inazio kiroldegian, padelean jolasteko 8 pista eta teniseko beste 7 dituena; San Inazioko igerileku estalia estreinatu da; Txurdinaga kiroldegiko pistak berri dira; Mallonako futbol zelaiako belar artifiziala aldatu da, eta metalezko harmailak egin dira Bilbao Arenako goiko eraztunean.

Bestetik, Bilbao Kirolak udal zerbitzuak 4 prestakuntza-programatan hartu du parte 2011n: Kirol Politikak Udalerrietan izeneko VII. Topaketa, Euskal Herriko Unibertsitateko XII. “Bilbao Arte eta Kultura” udako ikastaroak, eta Nazioarteko IDI-Sport Biltzarra.

(3) Kirolaren Europako Hiriburu Elkarteak (ACES) ematen du urtero sari hori.

## Arriaga Antzokia: antolatutako ikuskizunak eta ikusle kopurua

	2010	2011
<i>Ikuskizunak</i>	67	61
<i>Emanaldiak</i>	269	218
<i>Bertaratutakoak</i>	174.517	133.304

Iturria: Arriaga Antzokia.

## Museoak (bisitariak)

	2009	2010	2011
Guggenheim Museoa	905.048	956.417	962.358
Arte Eder Museoa	207.978	191.962	259.968



Iturria: Guggenheim Bilbao Museoa, Bilboko Arte Eder Museoa.

## Liburutegiei buruzko adierazleak

	2009	2010	2011
Bertaratutakoak	760.904	754.166	677.100
Maileguak	445.732	416.830	382.184
Bildumaren tamaina	381.369	386.944	404.331
Txartela duten erabiltzaileak	86.857	94.174	100.363

Iturria: Bilboko Udal Liburutegiak.

## 8. kapitulua *Hirigintza eta Etxebizitza*



Hirigintza

Bilboko etxebizitza eta lokalen  
ezaugarriak

Higiezinaren eskaintza





Hirigintza	Azpiegitura nagusiak
Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak	
Higiezin eskaintza	

## Hirigintza

### Azpiegitura nagusiak

Bilboren hiri birsorkuntzaren ondorioz abian jarritako berebiziko proiektu eta azpiegiturei esker, hiria zeharo aldatu da: orain, bisitarientzat eta herritarrentzat ere hiri erakargarria, erosoa eta irekia da.

Bilboko hiria modernotasunaren eta ongizatearen erreferente bihurtzeko ahaleginek saria izan dute, estatu zein nazioarte mailan goraipamenak han eta hemen jaso ditu eta. Goraipamenez ari garela, arkitekturaren arloan Bilbao Arenak jasotakoa aipatu behar da: "2011 Urteko Eraikina", kirol instalazioen kategorian. Lehiaketa horretan, gainera, nazioartean aski ezagun diren beste batzuk atzean utzi ditu: hala nola Londresko Zentro Akuatikoa, Medellingo Lau Kirol Agertokiak, Portugalgo Povoação hiriko udal igerilekuak eta San Franciscoko Airearen Etxea.

Bestalde, 2011n inauguratu diren azpiegiturei dagokionez, ondoko hauek hiribiduaren garapen estrategikoan erabakigarriak izan dira: Bilbo Zaharreko Mariaren Bihotza plaza berria, Euskadi plaza, Ingelesen Landa parkea, UPV/EHUko Abandoibarrako Parainfo berria (Bizkaia Aretoa), eta maila txikiagoan izan bada ere, hiriarri mesede handia egin dioten beste batzuk. Kasurako, Mazarredo zumarkalearen eta Abandoibarra etorbidearen arteko igogailua, Deustuko zubi azpietan egindako zaharberritzea, Zankoeta kaleko Auzo Etxea edo pilotalekuak eta Kirol-Etxea Miribillan.

Etorkizunera begira, orain arte egindakoaren ildo beretik jarraituko da, eta Bilbo hiri birsorkuntzaren abangoardian jarriko duten proiektuak bideratuko dira.

Hona hemen aurreikusita dauden batzuk: Zorrotzaurreko eremua uharte bihurtzeko ekimena, UPV/EHUko Bizkaiko Unibertsitate Campusa Bilbon zabaltzeko lanak, San Mames Ekipamendu-eremuaren plan bereziaren moldaketa, Garellanoko Hiri berrikuntza plana, Olabeaga eta Zabalgunea oinezkoentzako lotzeko plana, Basurtu-San Mames eremua hiriberritzeko plan berezia (horren barne egingo dira San Mameseko estadio berria eta UPV/EHUko Campus Teknologiko berria) edo Euskalduna Jauregia zabaltzeko lanak.

## Bizkaia Aretoa

Deustuko Unibertsitatearen Liburutegiaren ondoan, Abandoibarran, Bizkaia Aretoa ikus daiteke orain: UPV/EHUko paraninfoa, Bilboko arkitekturaren erreferente berria<sup>1</sup>. Unibertsitatearen azpiegitura berri honek eraikitako 9.000 m<sup>2</sup> baino gehiago ditu. Barne hartzen ditu hiru entzungela, erakusketetarako lau eremu, bilera-gelak eta informatika aretoak, lorategia duen terraza bat, unibertsitatearen beharretarako beste gela eta eremu batzuk eta aparkalekua. Biltzarra, mintegiak eta unibertsitate organoen bilerak hartzeaz gain, oraindik aurrera, Bizkaia Aretoak BizBAK (Bizkaia Bilbao Arte eta Kultura) jarduerak bilduko ditu; hau da, UPV/EHUk Bizkaian antolatutako kultur egitaraua eta uda ikastaroak.

## Ingelesen Landa parkea

Abandoibarran beste azpiegitura garrantzitsu bat inauguratu da: Ingelesen Landa parkea. Guztira 24.580 m<sup>2</sup>-ko azalera hartzen du, Guggenheim Museotik Deustuko zubira doan tartean. Inguru horretan, gainera, eraikin berri deigarriak ikus daitezke: Deustuko Unibertsitateko Liburutegia, EHUko Parainfoa eta Iberdrola Dorrea, besteak beste.

Hain zuzen ere, Ingelesen Landa parkearekin azkenean amaitu dira Abandoibarra egokitzeko lanak. Proiektu horrek, hamabost urteko epean, goitik behera aldatu du Guggenheim Museoaren eta Euskalduna Jauregiaren arteko 35 hektareako eremua, antzina fabrikek eta portu eta trenbide instalazioek hartzen zuten lursaila.

## Euskadi plaza

Euskadi plaza ere 2011. urtean inauguratu da. Gune berri horretan bat egiten dute orain Zabalguneak eta Ingelesen Landa parkeak. Iraganbide berde zabala izateko sortu da plaza hau, Kasilda parketik aipatutako Ingelesen Landa parkeraino. Guztira, 6.600 m<sup>2</sup> hartzen ditu eta paseoan ibiltzeko zein bertan egoteko eremuak ditu.

## Mariaren Bihotza plaza

Bilbo Zaharreko Mariaren Bihotza plaza XVI. mendeko frantziskotarren komentu bat aurkitu zuten tokian bertan dago. Sei urteko lana egin behar izan da lekuan hirigintza ekintzak burutzeko.

Berritutako eremuak 7.130 metro koadroko azalera du; oinezkoentzat baino ez. Erdian 1.000 m<sup>2</sup> inguruko gune librea dago (askotariko ekitaldiak egiteko aproposa), eta, horrekin batera, haurrentzako bi jolasleku eta ariketa fisikoak eta errehabilitazioa egiteko tresnak dituen beste eremu bat ere. Duen zabaleragatik eta erabiltzeko aukera guztiengatik, plaza hau Bilbo Zaharreko auzoko gune nagusi bihurtuko da, ziurrenik.

(1) Eraikina Álvaro Siza arkitekto ospetsuaren lana da.



Hirigintza	Etxebizitzen udal estatistika
Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak	Etxebizitzak
Higiezinaren eskaintza	Lokalak

## Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

### Etxebizitzen udal estatistika

2012an, Eustatek Etxebizitzen Udal Estatistikaren emaitzak argitaratu ditu. Lan horretan, EAEko etxebizitza kopuruari (autonomia erkidegoari zein lurralde historikoei dagokienez), egiturari eta hornidurari buruzko argibideak ematen ditu.

Estatistiken arabera, 2010eko (bildutako datuak urte horretakoak dira) Bilboko etxebizitza parkean 157.683 etxebizitza zegoen, eta horietatik % 89,3 familiako etxebizitzak (157.458) ziren, eta gainerakoak, establezimendu kolektiboak (126).

Hiribilduko familiako etxebizitzek 46,1 urte dituzte, batez beste; beste bi euskal hiriburuetan baino zaharragoak dira, alegia. Vitoria-Gasteizko etxebizitza parkea da guztietan berriena (29,6 urte), eta bere atzetik, Gipuzkoako hiriburukoa (45 urte). Bilboko etxebizitza parkea, hiriburuetakoa zaharrena izateaz gain, EAE osokoa (39,2) baino zaharragoa ere bada.

Bilboko etxebizitzen batez besteko azalera 82 m<sup>2</sup>-koa da; hau da, Gasteizen (85,2 m<sup>2</sup>) eta Donostian (85,7 m<sup>2</sup>) baino murriztagoa. Azalerari dagokionez, Bilboko batez bestekoa EAEko datutik (86,9 m<sup>2</sup>) beherago dago.

### EAEko familiako etxebizitzak, eremuaren eta egituraren arabera

	Guztira	Logela kopurua			Bainugela kopurua		Igogailua	
		1-3	4-6	≥7	1	2 edo gehiago	Badu	Ez du
EAE	1.004.740	72.804	875.215	56.721	678.339	315.943	645.739	359.001
Araba / Álava	151.342	10.625	130.794	9.923	93.783	56.030	105.861	45.481
Gipuzkoa	328.556	23.659	288.408	16.489	224.929	99.999	217.747	110.809
Bizkaia	524.842	38.520	456.013	30.309	359.627	159.914	322.131	202.711
Bilbo	157.458	15.428	132.754	9.276	110.493	45.916	124.177	33.281
Donostia-San Sebastián	87.533	12.252	70.212	5.069	54.000	32.925	65.573	21.960
Vitoria-Gasteiz	107.024	7.984	95.022	4.018	63.566	43.017	92.553	14.471

Iturria: Eustat. Etxebizitzen udal estatistika.



Hirigintza

Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak

Higiezinaren eskaintza

Etxebizitzen udal estatistika

Etxebizitzak

Lokalak

## Etxebizitzak

Bilboko 4.064,94 hektareako azaleran, 2011. urtean, 11.579 eraikin zeuden eta horien artean, 157.059 etxebizitza eta 34.455 lokal.

Guztirako etxebizitza kopurua % 0,5 igo da 2010. urtearekin alderatuta (821 gehiago, zenbaki absolututan). Etxebizitzen % 90,1en bizilagunen bat dago (batez beste, 2,5 pertsona etxe bakoitzeko), eta gainerako % 9,9 hutsik daude.

Barrutiaren arabera, etxe gehiago edo gutxiago dago: Ibaiondon dago etxebizitza kopuru handiena (guztirakoaren % 17,7), eta ondoren, Abandon (% 15,3), Deustun (% 14,0) eta Errekalden (% 13,6). Horietan guztietan 20.000 etxebizitza baino gehiago dago. Hain zuzen ere, horietan daude –Deustun salbu– etxebizitza hutsen kopuru handienak; guztietan daturik nabarmenena, Abandon (% 14,8). Otxarkoaga-Txurdinagan, alderantziz, etxebizitza guztien % 5,6 baino ez dago hutsik.


Aurreko urteetan bezala, etxebizitza dentsitate handienak Abandon eta Begoñan erregistratu dira, 112,5 eta 106,6 etxebizitza hektareako 2011n, hurrenez hurren. Batez besteko balio horiek Hiribilduaren batez besteko dentsitatearen (38,6 etxeb./Ha) halako hiru dira, ia-ia.

### Bilboko etxebizitza parkea, barrutiaren arabera (kop.)

	2010		2011			
	Etxebizitzak	Hutsik %	Etxebizitzak	Hutsik %	Bizt./ etxeb.	Dentsitatea (etxeb./Ha)
<i>Etxebizitzak, guztira (kop.)</i>	156.238	9,8	157.059	9,9	2,50	38,6
<i>Deustu</i>	21.961	8,6	21.961	8,6	2,52	44,3
<i>Uribarri</i>	17.369	9,6	17.355	9,8	2,41	41,4
<i>Otxarkoaga-Txurdinaga</i>	10.981	5,8	11.009	5,6	2,70	28,2
<i>Begoña</i>	18.812	6,4	18.882	6,8	2,41	106,6
<i>Ibaiondo</i>	27.444	10,5	27.803	10,6	2,49	28,8
<i>Abando</i>	24.017	15,1	24.073	14,8	2,54	112,5
<i>Errekalde</i>	21.096	9,1	21.402	10,1	2,47	30,7
<i>Basurtu-Zorrotza</i>	14.558	9,6	14.574	9,8	2,51	20,6

Iturria: Udal errolda.

### 2010-2011ko Bilboko etxebizitza kopuruaren bilakaera barrutien arabera (%)



Iturria: Grupo Territorio. Bilboko Udalaren Hiritarrekiko Harremanen Zerbitzua.



Hirigintza	Etxebizitzen udal estatistika
Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak	Etxebizitzak
Higiezinaren eskaintza	Lokalak

## Lokalak

Udal Erroldak Bilboko lokalen inguruan ematen dituen datuen arabera, guztirako kopurua % 0,2 jaitsi da: 2010ean, 34.525; 2011n, 34.455 (zenbaki absolututan, 70 lokal gutxiago dago). Horietako % 68,32n jardueraren bat abian da. Datu hori ez da ia aldatu 2010ekoarekin konparatuta (% 68,41).

Nolanahi ere, barrutiaren arabera alde handiagoa dago, lokalen okupazioari begira. Sei barruti ez dira batez bestekora heltzen: Uribarri (% 45,32), Otxarkoaga-Txurdinaga (% 55,65), Basurtu-Zorrotza (% 60,68), Ibaiondo (% 60,96), Errekalde (% 63,22) eta Deustu (% 67,31). Datu hori gaintitzen dutenak beste bi hauek dira: Begoña (% 66,54) eta Abando (% 85,38).



Hirigintza	Etxebizitza berria eta erabilitakoa
Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak	Transakzioak eta etxebizitzak
Higiezinaren eskaintza	Etxebizitzen alokairua
	Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

## Higiezinaren eskaintza

## Etxebizitza berria eta erabilitakoa

### Prezioak murriztu diren arren, higiezinaren merkatua ez da arean ere mugitu

Eusko Jauriaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren Higiezinaren Eskaintzari buruzko Estatistikaren arabera, Bilbon eskura dauden etxebizitza berri libreen batez besteko prezioa 4.655 €/m<sup>2</sup>-koa izan da 2011n. Horrek esan nahi du aurreko urtearekin alderatuta % 14,4 jaitsi dela. Hala ere, balio hori urte bereko Bizkaiko batez besteko prezioa (3.802 €/m<sup>2</sup>) baino altuagoa da, 1,22 aldiz handiagoa. Etxebizitza berri libre baten batez besteko prezioa Bilbon 380,6 mila eurokoa da.

Ondoko barruti hauetan, Uribarri (3.576 €/m<sup>2</sup>), Errekalde (3.843 €/m<sup>2</sup>), Bolueta (4.182 €/m<sup>2</sup>), eta Deustu-San Inazio (4.311 €/m<sup>2</sup>), batez besteko prezioa –etxebizitza berri librerako– Hiribilduaren batez bestekoa baino baxuagoa da. Alde Zaharreko etxebizitzaren batez besteko prezioa (4.672 €/m<sup>2</sup>) Bilbokoaren mailan dago, ia-ia, eta Abando 7.399 €/m<sup>2</sup>-ko prezioa dute, batez beste. Bertan, etxebizitza berri librea 631,6 mila eurotan saltzen da, batez beste.

Bigarren eskuko etxebizitzetan apenas aldatu da prezioa (-% 0,5): 2010ean batez bestekoa 4.269 €/m<sup>2</sup>-tan zegoen, eta 2011n, 4.249 €/m<sup>2</sup>-tan. Hau da, erabilitako etxebizitza baten batez besteko prezioa 398 mila eurokoa izan da. Kontuan hartu behar da, bestalde, 2009an dagoeneko jaitsi zirela erabilitako etxebizitzaren prezioak, 2008an inoizko preziorik altuenetan salgai egon ondoren: 4.651 €/m<sup>2</sup>.

Barrutiz barrutiko datuei erreparatuta, Abando da Hiribilduaren batez bestekoa gaintzen duen bakarra, batez besteko 5.237 €/m<sup>2</sup>-ko prezioarekin. Batez besteko prezio murriztena Boluetan ikusi da: 3.653 €/m<sup>2</sup>.

#### Etxebizitzaren batez besteko prezioa

	2009	2010	2011	% 2011/10
Etxebizitza berria (€/m <sup>2</sup> )	5.135	5.440	4.655	-14,4
Etxebizitza berria (€/m <sup>2</sup> )	4.242	4.269	4.249	-0,5

Iturria: Eusko Jauriaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Higiezinaren eskaintzari buruzko inkesta, 2011ko 4. hiruhilekoa.

#### Salgai jarritako etxebizitza berri librearen eta erabilitakoaren batez besteko prezioak (€/m<sup>2</sup>), eremuaren arabera (2011ko 4. hiruhilekoa)

	Etxebizitza berri libreak			Erabilitako etxebizitzak		
	Kop.	m <sup>2</sup> -ko prezioa (€)	Etxebizitzako prezioa (mila €-tan)	Kop.	m <sup>2</sup> -ko prezioa (€)	Etxebizitzako prezioa (mila €-tan)
Bilbo	429	4.654,69	380,6	5.054	4.249,01	398,0
Deustu-San Inazio	43	4.310,59	337,8	326	4.056,82	380,6
Uribarri	81	3.576,27	285,3	370	3.802,14	332,5
Otxarkoaga	-	-	-	157	3.843,10	345,0
Bolueta	62	4.182,10	334,7	703	3.652,68	317,5
Alde Zaharra	128	4.671,68	388,9	1.055	3.934,39	352,6
Abando	67	7.399,08	631,6	1.450	5.236,73	525,2
Errekalde	46	3.842,51	309,1	669	3.893,60	345,1
Basurtu	-	-	-	323	3.818,72	362,8

Bilboko metropolia, Lurraren Antolamendu Planean diseinatutako eremu funtzionalaren arabera.

Iturria: Eusko Jauriaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Higiezinaren eskaintzari buruzko inkesta, 2011.

(2) Ez dugu Basurtuko eta Otxarkoagako barrutietako datunik.



Hirigintza	Etxebizitza berria eta erabilitakoa
Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak	Transakzioak eta etxebizitzak
Higiezinaren eskaintza	Etxebizitzaren alokairua
	Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

## Etxebizitzaren transakzioak

### Etxebizitzaren transakzioak % 12 jaitsi dira Bilbon 2011. urtean

Higiezinaren burbuila delakoarekin batera, finantza-sistemaren likidezia arazoak gainera etorri zaizkigula, eta horren ondorioz, finantzaketarik eza eta jarduera ekonomikoaren gainbehera arlo orotara zabaldu dela, higiezinaren zikloa ere errotik aldatu da: etxebizitzaren merkatua ez aurrera ez atzera gelditu da. Eskaintza handia egonik ere, prezioak arian-arian murriztuz joan diren arren, zeharo urritu dira transakzio edo salerosketak.

Izan ere, Sustapen Ministerioaren Higiezinaren Transakzioei buruzko Estatistikaren arabera (eskritura publiko bidez notario baten aurrean egiten diren salerosketei buruzko estatistikekin osatutako txostena), Bilbon 2011n egindako salerosketa eragiketak 2.704 izan dira: % 12,1. 2005etik 2007ra bitartean, berriz, urtero 3.800 transakzio burutu ziren; iaz baino askoz gehiago, beraz.

Higiezinaren merkatua ahulduta dago Hiribilduan: etxebizitza libreei dagokienez (eragiketa horiek 2011ko guztien % 82,2 izan dira), adibidez, % 27 egin du atzera transakzioen kopuruak urtetik urtera. Bigarren eskuko etxebizitzetan are gehiago jaitsi da salerosketa kopurua (-% 31,1): guztira, 1.919 eragiketa 2011n, eta 2010ean, 2.786.

### Etxebizitzaren transakzioak

	2009	2010	2011	% 2011/10
<b>Etxebizitzak, guztira</b>	2.408	3.076	2.704	-12,1
Libreak	2.261	3.046	2.223	-27,0
Babestutakoak	147	30	481	1.503,3
Eraiki berriak	622	290	785	170,7
Bigarren eskukoak	1.786	2.786	1.919	-31,1

Iturria: Higiezinaren salerosketei buruzko estatistika, Sustapen Ministerioa.



Hirigintza	Etxebizitza berria eta erabilitakoa
Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak	Transakzioak eta etxebizitzak
Higiezinaren eskaintza	Etxebizitzaren alokairua
	Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

## Etxebizitzaren alokairua

### Bilbon alokairuan jarritako etxebizitzaren batez besteko errenta 953 eurokoa izan da 2011n

Bilbon etxebizitza bat alokatzea merkeagoa izan da 2011n aurreko urtean baino, % 1 gutxiago, 953 euroko errenta eskatu baitute maizterrek, batez beste.

Hona hemen lurralde historiko batzuen eta besteen datuak: Bizkaian 882,3 euro jaitsi da (-% 4,5, urtetik urtera; Gipuzkoan, errenta altuena eskatzen jarraitu dute (993,8 euro, -% 1,1, 2010eko datuarekiko); eta Araban datu murriztena erregistratu da, nahiz eta % 0,4 igo den, urtetik urtera (830,7 euro, zenbaki absolutuetan).

Bilboko Hiribilduan, erantsitako koadroaren arabera, errentak igo egin dira Alde Zaharrean eta Abandon, 2010eko datuarekin alderatuta: % 2,4 eta % 1,7, hurrenez hurren. Bi kasuetan EAEko batez besteko errenta gainditu da.

#### Alokairuan jarritako etxebizitza libreak eta errentak (€/hileko), eremuaren arabera (2011ko 4. hiruhilekoa)

EREMUAK	Etxebizitzak	Errenta* (€/hileko)
EAE	1.602	896,3
Bizkaia	797	882,3
Araba	413	830,7
Gipuzkoa	392	993,8
Bilboko metropolia	688	908,6
<b>Bilbo</b>	<b>330</b>	<b>953,0</b>
Deustu-San Inazio	61	908,7
Alde Zaharra	44	899,4
Abando	110	1.117,8
Errekalde	40	825,7

\* Etxebizitza kolektiboen errenten datuak biltzen dira bakarrik.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Higiezinaren eskaintzari buruzko inkesta, 2011. (Lagina nahikoa izan ez denez, ez dago daturik Uribarri, Otxarkoaga, Bolueta eta Basurtuko barrutietarako).



Hirigintza	Etxebizitza berria eta erabilitakoa
Bilboko etxebizitza eta lokalen ezaugarriak	Transakzioak eta etxebizitzak
Higiezin eskaintza	Etxebizitzen alokairua
	Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

## Lokal komertzialak, garajeak eta trastelekuak

*Bilbon salgai jarritako lokal komertzial libreen batez besteko prezioa 2.424 eurokoa izan da, hiru lurraldeetan baino garestiago*

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak EAEko lokal komertzial, garaje eta trastelekuen batez besteko salmenta eta alokairu prezioen gaineko informazioa biltzen du.

Bildutako datuen arabera, Bilbon salgai jarritako lokal komertzial libreen batez besteko prezioa 2.424 euro/m<sup>2</sup>-koa izan da, EAEn baino % 26,26 altuagoa. Alokairua hileko 1.345,3 eurotan egon da, EAEn baino % 2,36 garestiago.

Bilbon, 2011. urtean, 47.136,7 eurotan jarri dira salgai garaje libreak. Prezio hori EAEn oro har eskatutakoen (30.723,6 euro) oso gainetik dago, baita hiru lurraldeetan eskatutakoen gainetik ere. Bilbokoak, hain zuzen, Bizkaiko guztien % 32 dira, eta EAEko guztien % 15.

EAEko babestutako merkatuko 6.623 garajeetatik % 91,2 jarri dira salgai; batez beste, 14.910,1 euroko prezioan. Alokairuan jarritakoei dagokienez, batez beste 40,4 euroko prezioan eskaini dira: merkeenak Bizkaian, 37,6 eurotan; eta garestienak Gipuzkoan, 42,9tan.

Trastelekuen eskaintza 399 unitatekoa izan da Bilbon, 2011. urtean, eta horien salmenta prezioa merkatu librea, 1.211,3 eurokoa. Bilboko trastelekuak Bizkaiko guztien % 25 dira. Lokal eta garajeekin gertatzen den bezala, Bilboko prezioak hiru lurraldeetakoak eta EAEkoak baino altuagoak dira.

Babestutako trastelekuen salmenta prezioa, berriz, 553,3 eurokoa izan da Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan baino merkeago. Bilboko trastelekuen eskaintza EAEko guztirakoaren % 40 da.

## EAEko lokal komertzialak, eremuaren arabera. Salmenta eta alokairu prezioak

	Libreak				Babestutakoak			
	Salmenta		Alokairua		Salmenta (*)		Alokairua	
	Kop.	m <sup>2</sup> -ko prezioa (€)	Kop.	Errenta/hileko	Kop.	m <sup>2</sup> -ko prezioa (€)	Kop.	Errenta/hileko
CAPV	5.717	1.919,8	3.842	1.314,2	282	1.313,0	-	-
Bizkaia	1.981	1.862,3	1.720	1.295,3	-	-	-	-
Araba	2.143	1.782,3	954	1.178,9	-	-	-	-
Gipuzkoa	1.593	2.192,8	1.169	1.417,5	-	-	-	-
Bilbo	526	2.424,0	575	1.345,3	-	-	-	-

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sails. Higiezin eskaintzari buruzko inkesta.

- Lagin nahikorik ez; osatu gabeko datua.

(\*) Salgai jarritako babestutako lokal komertzialen prezioa, 2012ko lehen hiruhilekoa.

## EAEko garajeak, eremuaren arabera. Salmenta eta alokairu prezioak. 2011

	Libreak				Babestutakoak			
	Salmenta		Alokairua		Salmenta		Alokairua	
	Kop.	Prezioa	Kop.	Errenta/hileko	KOP.	Prezioa	Kop.	Errenta/hileko
EAE	7.282	30.723,6	784	89,9	6.043	14.910,1	580	40,4
Bizkaia	3.487	31.832,2	342	84,5	2.451	15.192,2	284	37,6
Araba	870	31.166,9	215	72,3	2.119	14.892,0	-	-
Gipuzkoa	2.925	29.262,4	228	114,6	1.473	14.465,9	296	42,9
Bilbo	1.130	47.136,7	103	103,7	-	-	-	-

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sails. Higiezin eskaintzari buruzko inkesta.

- Lagin nahikorik ez; osatu gabeko datua.

## EAEko trastelekuak, eremuaren arabera. Salmenta eta alokairu prezioak. 2011

	Libreak				Babestutakoak			
	Salmenta		Alokairua		Salmenta		Alokairua	
	Kop.	Prezioa	Kop.	Errenta/hileko	Kop.	Prezioa	Kop.	Errenta/hileko
EAE	2.506	993,0	-	-	6.018	587,1	576	24,1
Bizkaia	1.572	1.036,3	-	-	2.433	553,3	279	26,3
Araba	253	789,0	-	-	2.152	637,1	-	-
Gipuzkoa	681	968,2	-	-	1.433	568,4	296	22,5
Bilbo	399	1.211,3	-	-	-	-	-	-

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sails. Higiezin eskaintzari buruzko inkesta.

- Lagin nahikorik ez; osatu gabeko datua.

## Bilboko etxebizitza parkea, barrutiaren arabera (kop.)

	2010	2011
<b>Etxebizitzak, guztira (kop.)</b>	<b>156.238</b>	<b>157.059</b>
Deustu	21.961	21.961
Uribarri	17.369	17.355
Otxarkoaga-Txurdinaga	10.981	11.009
Begoña	18.812	18.882
Ibaiondo	27.444	27.803
Abando	24.017	24.073
Errekalde	21.096	21.402
Basurtu-Zorrotza	14.558	14.574

Iturria: Udal errolda.

## Etxebizitzen batez besteko prezioa

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Etxebizitza berria (€/m <sup>2</sup> )	2.650	2.936	4.241	4.496	5.385	5.347	5.135	5.440	4.655
Etxebizitza berria (€/m <sup>2</sup> )	3.379	3.467	3.694	4.105	4.527	4.651	4.242	4.269	4.249


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila. Higiezinaren eskaintzari buruzko inkesta, 2011ko 4. hiruhilekoa.

## Etxebizitzen transakzioak

	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
<b>Etxebizitzak, guztira</b>	2.941	3.800	3.649	3.840	2.468	2.408	3.076	2.704
Libreak	2.666	3.488	3.513	3.393	2.328	2.261	3.046	2.223
Babestutakoak	275	312	136	447	140	147	30	481
Eraiki berriak	1.180	1.166	746	979	734	622	290	785
Bigarren eskukoak	1.761	2.634	2.903	2.861	1.734	1.786	2.786	1.919

Iturria: Higiezin salerosketei buruzko estatistika, Sustapen Ministerioa.

## 9. kapitulua *Garraioa eta ingurumena*



Garraioa eta mugikortasuna  
Ingurumena





Bilbon, metropoli-eremu baten erdigunea izanik, milioi bat biztanle ingurukoa, eskualdeko bidaia guztien bi heren egiten dira. Gainera, erdigunea izateak administrazio-, turismo- eta merkataritza-jarduerak bertan biltzen direla esan nahi du. Horregatik nahitaezkoa du estrategia jakin bat izatea, garraio publikoa eta oinezkoen joan-etorriak kudeatzeko.

Halaber, bere kokapen geografikoa dela-eta, ardatz atlantikoaren erdi-erdian, prest egon behar du Bilbok merkataritza-trukeen zein bidaiariak mundu osoan garraiatzeko zerbitzuen bolumen geroz eta handiagoei aurre egiteko.

Garraioa, beraz, eremu funtzionala behar bezala antolatzeko ezinbesteko zerbitzua da. Tren, tranbia, metro eta autobus lineek hirigunean mugikortasuna areagotzea eta joan-etorri arinak egiteko aukera ematea dute xede. Eta helburu berarekin abian jarri dira hainbat azpiegituraren eraikuntza-lanak, zabaltzeak eta hobetzeak ere; aipatutako zerbitzu horien guztien arteko sareak finkatzen laguntzeko, hain justu ere.



## Garraioa eta mugikortasuna

### Hiriko eta metropoli barruko garraioa

## Herritarrek gero eta gehiago erabiltzen dute garraio publikoa; joan-etorri gehienak, Metro Bilbaorekin

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuen arabera, 2011. urtean Bilboko garraio publikoak 119 milioi bidaiariri baino gehiagori eman dio zerbitzu, Metro Bilbao, EuskoTran eta Bilbobusen eskutik. Guztirako zenbatekoa % 2,0 igo da 2010eko datuarekiko.

Garraio publiko bidez egindako bidaia gehienak Metro Bilbaorekin egin dira: guztira, 89,6 milioi bidaia 2011n. Gainera, metroko guztirako bidaiarien kopurua % 1,2 igo da urtetik urtera, 2010eko datuarekin alderatuta, nahiz eta lan-gatazken ondorioz deitutako greba egunetan hainbat pertsonak beste garraibide batzuetara jo behar izan duen.

Metroz pertsona gehien bidaiatu zuen egunean 337.172 joan-etorri zenbatu ziren, eta neguko lanegunen batez bestekoa 287.153koa izan da. 2011ko geltoki erabilienak Moyua, Abando, Alde Zaharra eta Indautxu izan dira; bakoitza, 6 milioi bidaiarirekin. Bestalde, urte horretan bi geltoki berri inauguratu ditu Metro Bilbaok Basaurin, eta horrekin ia-ia osatu da metroko 2. linea.

Bilbobusek ere datu onak lortu ditu 2011n, 26,6 milioi bidaia eskaini baititu (+% 4,5 gehiago, urtetik urtera). Zenbateko hori udal garraio zerbitzuak inoiz lortutako onena izan da, 2008tik hona: lanegunetan, 88.869 bidaiari batez beste. Bidaiari gehien bildu dituzten lineak 77a eta 56a izan dira (2 milioi inguru bakoitzak), eta 2011. urtean bidaia kopuruaren aldetik igoera handiena izan dutenak, A6 eta A3 lineak (% 174,2 eta % 12,4, hurrenez hurren).

Tranbia zerbitzua ematen duen konpainiak, EuskoTranek, urte ezin hobea izan du 2011koa, inoizko daturik onenak lortu baititu: ia 3 milioi bidaia, guztira (urtetik urtera, % 5,2ko igoera), eta 8.216 erabiltzaile batez beste. Bidaiariek maizen erabili dituzten geltokiak San Mames, Uribitarte, Erribera eta Abandoibarra izan dira.

### Hiri eta metropoli barruko garraioa

	2009	2010	2011	% 2011/10
<i>Bidaiariak, guztira (milaka)</i>	115.597,6	116.830,7	119.176,0	2,0
<i>Metro Bilbao</i>	87.043,7	88.556,3	89.616,4	1,2
<i>EuskoTran</i>	2.799,4	2.849,6	2.980,8	4,6
<i>Bilbobus</i>	25.754,5	25.424,8	26.578,8	4,5

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa.



## Aireko garraioa

### Bilboko aireportuak emaitza ezin hobekak izan ditu: 4 milioi bidaiari baino gehiago

Bilboko aireportuan 4.046.172 bidaiari izan dira 2011n, % 4,0 gehiago, urtetik urtera (zenbaki absolututan, 157.217 pertsona gehiago). Horrela, Bilboko aireportuak, 2010. urtean gorako bidean hasi (3,88 milioi bidaiari zenbatu zen orduan), eta orduz geroztik etengabe egin du hobera. Atzean utzi ditu, beraz, 2009ko datu eskasak (3,65 milioi erabiltzaile). Urte ona izan den arren, 2011n ere ez da gainditu 2007ko inoizko daturik onena (4,27 milioi), krisialdi ekonomikoa hastear zegoela lortutakoa.

2011ko bidaiarien guztirakoaren emaitza estatu barruko bidaien beherakadaren (-% 2,6) eta nazioarteko hegaldien gorakada sendoaren (+% 22,5) ondorioa da. Bilboko aireportuak aurrera egin badu, kostu txikiko airelineek –batik bat– nazioarteko hainbat ibilbiderako irteerako edo helmugako aireportu izateko aukeratu dutelako da.

Izan ere, nahiz eta oraindik ere hegaldi komertzialetako bidaiari gehienak estatu barruko joan-etorrietan ibiliak diren (2011n, 2,8 milioi, ia-ia), azken urteetan agerikoa da gero eta garrantzi erlatibo gutxiago dutela halako bidaiak guztirako hegaldiekiko: 2009an, % 74; 2011n, % 69.

Bidaiariek gain, orobat igo da hegaldietarako eragiketen (aireratzeak eta lurreratzeak barne) kopurua: 2010ean, 47.235; 2011n, 47.341. Kasu horretan ere, estatu barruko trafikoa jaistearekin batera (-% 5,6), gora egin du nazioarteko joan-etorriena (% 13,7). Izan ere, 2011. urtean, azken horiek hegaldi guztien (16.188) herena izatera heldu ziren.

Bidaiari gehien izan dituzten aire konpainiak ondoko hauek izan dira: lehena, Vueling (933.297 bidaiari); bigarrena, Spanair (602.980); eta hirugarrena, Iberia (536.637). Hiruren artean, aireportuaren urteko joan-etorrien erdia baino gehiago egin dituzte (% 23,1, % 14,9 eta % 13,2, hurrenez hurren). Bilboko aireportuko hegaldiek izan dituzten irteerako eta/edo helmugako aireportuei erreparatuta, hegaldi gehien Madrilgo Barajasekoarekin gauzatu dira: guztirakoaren % 20,0 (guztira, 809.158 bidaiari). Eta, horren atzetik, Bartzelonako El Prat aireportuarekin (588.883, % 14,6), Mallorcako Palmakoarekin (230.155, % 5,7) eta Alemaniako Frankfurtokoarekin (211.913, % 5,2).

### Aireko garraioa

	2009	2010	2011	% 2011/10
<i>Bidaiariak (guztira)</i>	3.654.957	3.888.955	4.046.172	4,0
<i>Hegaldi komertzialak</i>	3.640.773	3.881.627	4.036.340	4,0
<i>Estatukoak</i>	2.697.565	2.859.027	2.783.865	-2,6
<i>Nazioartekoak</i>	943.208	1.022.600	1.252.475	22,5
<i>Hegaldi komertzialak</i>	46.497	47.235	47.341	0,2
<i>Estatukoak</i>	32.443	33.002	31.153	-5,6
<i>Nazioartekoak</i>	14.054	14.233	16.188	13,7
<i>Merkantziak (t)</i>	2.691,5	2.548,0	2.633,5	3,4

Iturria: Aena.



## Itsas garraioa

### Portuko merkantzien trafikoa behera egin du, jarduera ekonomikoaren atzerakadaren eraginez

2011. urtean guztira 32 milioi tona merkantzia mugitu dira Bilboko Portuan; hau da, 2010ean kudeatutako bolumena baino % 7,7 gutxiago.

Merkantziek ia trafiko osoa hartzen dute: 31,7 milioi tona, guztira (aurreko urtearekin alderatuta, % 5,7 gutxiago). Tokiko trafikoa edo hornidurakoa, berriz, 275.000 tona ingurukoa izan da (-% 72,7, 2010. urtearekin konparatuta).

Portuan solteko gai likidoak mugitzen dira, gehienbat (petrolio gordina, fuel-olioa eta gasa, batik batik): 2011n, 17,9 milioi tona. Hala ere, urtetik urtera % 9,6 jaitsi da solteko gai horien bolumena, erregaien kontsumoaren murrizketa orokortu eta gero Petronor findegiak izandako produkzio beherakadaren eraginez.

Solteko gai solidoak, aldiz, % 10,1 jaitsi dira (guztira, 4 milioi tona). Kasu horretan, bi merkantzia nagusien trafikoa gutxitu izanagatik etorri da beherakada: txatarra (-% 34, ArcelorMittal-ek aldi baterako ixtearen ondorioz) eta babak eta soja-irina (-% 11).

Merkantzia orokorren trafikoa, ordea, gorantz egin du % 4,4, eta ia 9,9 milioi tonara iritsi da. Horren arrazoia, hauex: edukiontzietan kudeatutako merkantzia orokorraren gorakada nabarmena (+% 6,7; ia 6,4 milioi tona, guztira). Merkantzia orokorraren trafikoa emaitza onak izatea mesedegarria da, gainera, beste merkantzia mota batzuek baino balio erantsi handiagoa duelako (portuko zereginetarako eskulan gehiago eskatzen du) eta errepideko merkantzien garraioari eragiten diolako.

Edukiontzien trafikoa % 7,8 igo da eta inoizko daturik onenak lortu dira: 572.784 TEU kudeatu dira, guztira; 2008an erregistratutako 557.355 TEUen gainetik, beraz.

Bilboko Portuan Ardatz Atlantikoarekin kudeatutako itsas garraioa nagusi da, oraindik ere: merkantzia guztien trafikoa % 45era heldu da 2011n. Merkatu horretan, hartu-eman gehienak herrialde hauekin egin dira: Errusia, Erresuma Batua, Belgika eta Herbehereak. Denak ere, 2011n asko hazi diren trafikoa. Bestalde, Amerika-Ipar Atlantikokoa Bilboko Portuko bigarren merkatu handiena bilakatu da, AEBekin izandako trafikoa % 11 gora egin ostean.

### Portuko trafikoa

	2009	2010	2011	% 2011/10
Portuko trafikoa (t)	32.180.077	34.666.185	32.002.547	-7,7
<b>Merkantzien trafikoa</b>	<b>31.604.601</b>	<b>33.661.626</b>	<b>31.727.968</b>	<b>-5,7</b>
Solteko gai likidoak	20.497.908	19.763.269	17.860.890	-9,6
Solteko gai solidoak	3.827.992	4.451.911	4.000.347	-10,1
Merkantzia orokorra	7.278.701	9.446.446	9.866.731	4,4
Edukiontzia	4.756.787	5.696.335	6.080.477	6,7
Konbentzionala	2.521.914	3.750.111	3.786.254	1,0
<b>Tokiko trafikoa eta hornidurakoa</b>	<b>575.476</b>	<b>1.004.559</b>	<b>274.579</b>	<b>-72,7</b>
Edukiontzia (TEU)	443.468	531.457	572.784	7,8

Iturria: Estatuko portuak.

# Garraioa eta ingurumena



Garraioa eta mugikortasuna	Hiriko eta metropoli barruko garraioa
Ingurumena	Aireko garraioa
	Itsas garraioa
	Errepideko trafikoa

## Errepideko trafikoa

Gaur gaurkoz, Bilbok hamaika sarbide ditu, hiria metropoli guneko zein hortik kanpoko udalerriekin lotzen dutenak. Hamaika sarbide horietatik, zazpi gaitasun handiko errepideak dira (lau erreetik gora dituztenak), eta gainerako laurak gaitasun txikikoak.


2011. urtean, batez beste eguneko 336.590 ibilgailuk erabili dituzte Bilboko sarbideak. Horrek esan nahi du, 2010ean erregistratutako datuen aldean, % 2,1 gutxitu dela trafikoa bide horietan. Beherakada hori, azken urteetako joeraren ildo beretik, garraio publikoa hobetu izanaren ondorio garbia da (batez ere, metroko lineak zabaldu izana), baita Bilboko erdigunean aparkatzea saihesteko sartutako neurrien ondorioa ere. Bestalde, 2008ko krisiak ere izan du eraginik trafikoaren beherakadan.

Ibilgailu kopurua urritu dela Basurtu-Zorrotzako errepide loturan igarri da inon baino gehiago (2010ean baino eguneko 1.907 ibilgailu gutxiago). Eta hor ez ezik, Sabino Arana etorbideko (1.560 gutxiago) eta Juan de Garai kaleko (1.194 gutxiago) sarbideetan baita ere. Alderantziz, Orueta-Egiritako eta Deustu-Enekuriko sarbideetan trafikoa areagotu egin da (eguneko 503 eta 192 ibilgailu gehiago, 2010eko datuekin alderatuta).

Trafikoaren banaketari dagokionez, 2011. urtean ere, Iparraldeko eremuan (Eskuinaldean) Hegoaldean (Ezkerraldean) baino astunagoa izan da, oro har, nahiz eta alde bietan gutxitu den: eguneko 880 ibilgailu gutxiago Iparraldean (-% 0,6) eta 6.471 gutxiago Hegoaldean (-% 3,5). Hegoaldeko sarbideetan (Basurtu-Zorrotzan, Sabino Aranan eta Juan de Garain, nagusiki) nabaritu den beherakada horren atzean hauek egon daitezke: San Mameseko loturaren eraikitze-lanak, Hegoaldeko Saihesbideko (A-8) Larraskituko lotura berria (Metropoliko Hegoaldeko Ingurubidea) edota krisialdi ekonomikoa bera.

## Trafikoa gehiago urritu da Hegoaldeko sarbideetan (-% 3,5) Iparraldekoetan baino (-% 0,6)

## Bilborako sarbideak



Gaitasun handiko bideak (A) eta gaitasun txikiko bideak (B). Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.



## Ingurumena

### Jasangarritasunaren aldeko apustua

Asko eta asko dira Bilbok jasangarritasunaren alde egindako apustu sendoaren bitartez aurrera eramán dituen ekimenak: Agenda 21, klima aldaketaren aurkako BIO Bulegoa, bizikletak maileguan hartzeko zerbitzua (Bilbon bizi), eraikuntza ekoeraginkorraren aldeko Udal Etxebizitzen gaineko konpromisoa, bidegorri sare gero eta zabalagoa...

Izan ere, Bilboko ingurumen baldintzak eta tokiko jasangarritasuna hobetzera zuzendutako ekintzei esker, Hiribildua hirugarren tokian dago “Espainiako hiri jasangarrienen” zerrendan, Madrilén eta Gasteizen atzetik, eta Bartzelona, Iruñea, Logroño edo Zaragoza bezalako hirien aurretik, besteak beste.

Gogoan izan behar da “Espainiako hiri jasangarrienen proiektuak”<sup>1</sup> Estatuko 25 hiri nagusien jasangarritasun-maila neurtzea xede duela. Zerrenda hori ingurumen inpaktuari lotutako zazpi alderdi jakinetan hiri bakoitzean zer neurri politiko, estrategia eta jarduera gauzatu den kontuan hartuta osatzen da: hala nola berotegi efektuko gas isurketak murriztea, energia-eraginkortasuna sustatzea, eraikuntzarako estandar eraginkorrak ezartzea, hiri barneko mugikortasun jasangarria ahalbidetzea, gune berdeak eskuragarriago eta gozagarriago egitea, uraren aprobetxamendu egokia egitea eta airearen kalitatea bermatzea.

Gainera, Bilbok bigarren tokia lortu du mugikortasun gaietan, Mallorcako Palmako hiriaren atzetik. CO<sub>2</sub> isurketak murrizteari buruzko atalean ere ez da txarto aritu, laugarren tokira heldu baita, eta uraren kudeaketa eraginkorra aztertzen duen horretan, bosgarrenera.

Horrela, bada, Udalaren eta herritarren beraien ahaleginen ondorioz are jasangarriago bilakatu den hiri honek hainbat sari eskuratu ditu nazioartean 2011. urtean.

Jasotako goraipamen guztien artean, nabarmentzekoa da LivCom Awards<sup>2</sup> ospetsua. Itzal handiko saria da hori “Paisaia Natural eta Eraikien Hobekuntzaren” arloan, eta Bilboren kasuan, hiriaren eraldatze eta birsortze prozesua aintzat hartu du, gai izan delako, aldi berean, komunitate jasangarria eta bizigarria sortzeko, alderdi ekologikoak eta gizatasunaren ingurukoak barne hartuta. Zalantzarik gabe, ingurumenarekin, garapenarekin eta ongizatearekin hartutako konpromisoaren bermetzat har daitekeen saria da.

Gainera, Merkantzien Garraioaren arloan Urteko Proiektu Onenaren Sari Nazionala lortu du Bilboko hiriak. Aipamen hori ITS España elkarte nazionalak ematen du, Europako Freilot proiektuaren esparruan. Bilboko Udalak eta Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Klusterrak Bilboko kaleetan jarri dute martxan egitasmo hori, helburu hauekin: CO<sub>2</sub> isurketak % 25 gutxitzea, eta trafikoak dakartzan eragozpenak eta zarata murriztea; hiri garbiago egon dadin eta bertatik ibilgailu gutxiago ibil dadin, betiere.

Saritutako proiektu horren barne, Internet bidez aparkalekuak automatikoki erreserbatzeko sistema bat eratu da, salgaien banaketan aritzen diren ibilgailuetarako. Xedea, hiri barruko antolaketa hobetzea, energia-eraginkortasuna areagotzea eta ingurumena zaintzea. Proiektu pilotu gisa jarri da abian, baina aurrera begira merkantziak hiri barruan banatzeko eredu baten barne ezartzeko asmoa dago. Gainera, eredu hori Europako beste hiri batzuen eskura zein horren beharra duten operadore eta erabiltzaileen eskura ere jarri ahal izango da.

(1) Siemens-en babesarekin *Análisis e Investigación aholkularitza enpresak egindako proiektua da. Horren bitartez, beste herrialde batzuetan –kasurako, Alemanian eta AEBetan– burututako ekimenak tokira egokitzen dira.*

(2) LivCom Awards saria ingurumenaren kudeaketan eta komunitate bizigarriak herri mailan sortzeko ekimenetan ari direnentzako munduan dagoen lehiaketa bakarra da. Horren helburua berrikuntza eta lidergoa sustatzea da, ingurune “biziak eta ekologiarren aldetik jasangarriak direnak” sortzeko.



## Hondakinak sortzea eta kudeatzea

### Kontsumoaren beherakadak etxe-hondakinak gutxitzea ekarri du

Bizkaiko Foru Aldundiaren Hondakinen Behatokiaren datuen arabera, 2011. urtean 124.277 tona hondakin sortu dira Bilboko etxeetan; hau da, 2010eko datuarekin alderatuta, % 1,2 gutxiago. Hortaz, biztanleko etxe-zaborra sortzeko tasa murriztu egin da, gutxi izan bada ere: 2010ean, urteko 356,2 kilo; 2011n, urteko 352,4 kilo.

Masa-bilketaren sistemaren bitartez etxeetako zabor guztiaren % 81,1 jasotzen da. Oso gutxi jaitsi da horrela jasotakoaren bolumena, aurreko urtearekin alderatuta (104 tona gutxiago). Gaikako bilketarekin gainerako hondakinak jasotzen dira, % 18,9. Bildutakoaren bolumen gordina 23.548 tonakoa izan da; beraz, urtetik urtera % 5,7 jaitsi da (guztira, 1.417 tona gutxiago). Baliteke krisi ekonomikoaren eraginez etxeetan gutxiago kontsumitu izana, eta horrek beherakada hori ekarri izana.

Gaika bildutako hondakinen ia erdia papera eta kartoia izan da. Hala ere, mota horretako zabor gutxiago batu da 2011n, 2010eko datuarekin alderatuta (urtetik urtera, % 9,8 gutxiago). Ildo beretik, ontzi gutxiago batu da: guztira, 4.530 tona (-% 1,2). Beirarekin alderantziz gertatu

Hiriko zaborra behar bezala kudeatzeko, Bilbok 2.899 edukiontzi izan ditu 2011. urtean masa-bilketarako. Gaikako bilketarako, berriz, 1.086 edukiontzi egon da papera eta kartoia biltzeko, 897 beira uzteko, 1.445 ontzietarako, eta beste 909 pilak batzeko.

Azkenik, aipatu beharra dago beste 122 edukiontzi ere badaudela Bilbon erabilitako olioia biltzeko. 2011n, 115 tona baino gehiago batu dira jada sistema horren bitartez. Eta hori ez ezik, udalak "5. edukiontzi" bat ere jarri du, kalitate handiko konposta egitera zuzendutako hondakinen gaikako bilketa probatzeko, esperimentu gisa.

### Generación de residuos

	2009	2010	2011	% 2011/10
<i>Etxe-hondakinak (t)</i>	123.068	125.797	124.277	-1,2
<b>Masa-bilketa</b>	<b>96.614</b>	<b>100.833</b>	<b>100.729</b>	<b>-0,1</b>
<b>Gaikako bilketa</b>	<b>26.454</b>	<b>24.965</b>	<b>23.548</b>	<b>-5,7</b>
<i>Papera eta kartoia</i>	14.107	12.863	11.607	-9,8
<i>Beira</i>	6.662	6.691	6.755	1,0
<i>Hondakin handiak</i>	1.140	826	655	-20,7
<i>Ontziak</i>	4.544	4.584	4.530	-1,2
<i>Etxe-hondakinak (Kg/bizt./urteko)</i>	346,8	356,2	352,4	-1,1

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

## Hiri eta metropoli barruko garraioa

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
<i>Bidaiariak, guztira (milaka)</i>	--	--	--	--	--	116.034,60	116.887,40	115.597,6	116.830,7	119.176,0
<i>Metro Bilbao</i>	--	--	--	--	--	85.864	86.333,7	87.043,7	88.556,3	89.616,4
<i>EuskoTran</i>	--	--	--	--	--	2.906	2.847,0	2.799,4	2.849,6	2.980,8
<i>Bilbobus</i>	23.277,4	23.146,4	24.092,9	25.517,9	26.086,4	27.264,6	27.706,7	25.754,5	25.424,8	26.578,8

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

**Aireko garraioa**

	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
<i>Bidaiariak (guztira)</i>	2.463.698	2.850.524	3.395.773	3.843.253	3.876.062	4.277.610	4.172.901	3.654.957	3.888.955	4.046.172
<i>Hegaldi komertzialak</i>	--	--	--	--	--	4.254.395	4.149.572	3.640.773	3.881.627	4.036.340
<i>Estatukoak</i>	--	--	--	--	--	3.174.156	3.053.177	2.697.565	2.859.027	2.783.865
<i>Nazioartekoak</i>	--	--	--	--	--	1.080.239	1.096.395	943.208	1.022.600	1.252.475
<i>Hegaldi komertzialak</i>	--	--	--	--	--	54.877	52.966	46.497	47.235	47.341
<i>Estatukoak</i>	--	--	--	--	--	37.009	35.709	32.443	33.002	31.153
<i>Nazioartekoak</i>	--	--	--	--	--	17.868	17.257	14.054	14.233	16.188
<i>Merkantziak (t)</i>	3701,3	3813,6	4152,8	3958,0	3423,2	3240,9	3188,6	2.691,5	2.548,0	2.633,5

Iturria: Aena.

**Portuko trafikoa**

	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Portuko trafikoa (t)	34.100.617	38.590.828	40.014.330	39.397.955	32.180.077	34.666.185	32.002.547
<b>Merkantzien trafikoa</b>	<b>33.237.170</b>	<b>38.422.503</b>	<b>37.980.450</b>	<b>37.980.450</b>	<b>31.604.601</b>	<b>33.661.626</b>	<b>31.727.968</b>
Solteko gai likidoak	19.684.508	22.289.779	22.682.180	23.057.335	20.497.908	19.763.269	17.860.890
Solteko gai solidoak	4.261.127	5.524.178	5.832.384	5.266.459	3.827.992	4.451.911	4.000.347
Merkantzia orokorra	9.291.535	9.394.336	9.907.939	9.656.656	7.278.701	9.446.446	9.866.731
Edukiontzia	5.467.959	5.629.098	5.920.114	6.138.927	4.756.787	5.696.335	6.080.477
Konbentzionala	3.823.576	3.765.238	3.987.825	3.517.729	2.521.914	3.750.111	3.786.254
<b>Tokiko trafikoa eta hornidurakoa</b>	<b>863.447</b>	<b>168.325</b>	<b>2.033.880</b>	<b>1.417.505</b>	<b>575.476</b>	<b>1.004.559</b>	<b>274.579</b>
Edukiontzia (TEU)	503.805	523.113	554.558	557.345	443.468	531.457	572.784

Iturria: Estatuko portuak.

**Hondakinen bilketa**

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Etxe-hondakinak (t)	143.265	131.068	127.621	123.068	125.797	124.277
<b>Masa-bilketa</b>	<b>115.882</b>	<b>105.627</b>	<b>101.769</b>	<b>96.614</b>	<b>100.833</b>	<b>100.729</b>
<b>Gaikako bilketa</b>	<b>27.383</b>	<b>25.441</b>	<b>25.851</b>	<b>26.454</b>	<b>24.965</b>	<b>23.548</b>
Papera eta kartoia	14.226	14.680	14.709	14.107	12.863	11.607
Beira	5.472	6.059	6.307	6.662	6.691	6.755
Hondakin handiak	2.728	640	619	1.140	826	655
Ontziak	4.958	4.062	4.217	4.544	4.584	4.530
Etxe-hondakinak (Kg/bizt./urteko)	405,7	371,1	361,2	346,8	356,2	352,4

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia.

## 1 BIZTANLERIA

Biztanleria, sexuaren arabera

Biztanleria, adinaren arabera

Biztanleriaren mugimendu naturala

Migrazio mugimenduak

Biztanle atzeritarrak

Batez besteko errenta pertsonala

Familiako batez besteko errenta

Diru-sarrerak bermatzeko errenta, oinarrizko gizarte zerbitzuen arabera

Ordaindutako gizarte-larrialdietarako laguntzak, oinarrizko gizarte zerbitzuen arabera

Ikasten ari ez direnek aurretik egindako ikasketak

## 4 MERKATARITZA

Jarduera komertzialak txikizkariak

Jarduera komertzialak handizkariak

Soldatapeko langileak dituzten enpresak

Autonomoen Araubide Berezian izena emanda dauden langileak. Merkataritza

Enpleguak

Merkataritza jardueretan egindako altak eta saldo garbia

## 7 KULTURA ETA KIROLA

Arriaga Antzokia: espectáculo programados y asistencia

Museoak (bisitariak)

Liburutegiei buruzko adierazleak

## 2 EKONOMIA ETA ENPRESA

Ekonomia eta enpresa jarduerak

Soldatapeko langileak dituzten enpresak

Langile Autonomoen Araubide Berezian afiliatutako pertsonak

Merkataritza-sozietate berriak

Bilboko enpresek erregistratutako kontratuak

## 5 TURISMOA

Ostatu jarduerak (baimenak)

Hotelen eskaintza

Etorritako bidaiariak, jatorriaren arabera

Itsas bidaldietako jarduera

Biltzarrak eta bilerak

## 8 HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA

Bilboko etxebizitza parkea, barrutiaren arabera (kop.)

Etxebizitzen batez besteko prezioa

Etxebizitzen transakzioak

## 3 LAN-MERKATUA

16 urte edo gehiagoko biztanleria aktiboa eta jarduera-tasa

16 urte edo gehiagoko biztanleria okupatua eta enplegu-tasa

16 urte edo gehiagoko biztanleria langabetua eta langabezia-tasa

Afiliatuta dauden biztanleak, kotizazio-erregimenen eta jarduera-sektoreen arabera

Afiliazioa, jarduera-arloen arabera

Erregistratutako kontratuak

Erregistratutako langabetuak

## 6 BERRIKUNTZA

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Soldatapeko langileak dituzten enpresak

Ezagutzari bereziki lotutako profesionalen eta enpresen zerbitzuak: Afiliatuak

Patenteak eta markak. Bilbon erregistratutako eskaerak

## 9 GARRAIOA, MUGIKORTASUNA ETA INGURUMENA

Hiri eta metropoli barruko garraioa

Aireko garraioa

Portuko trafikoa

Hondakinen bilketa